



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

LAN BALDINTZEI BURUZKO INKESTA 2013

LBI-2013

1996-2013 ikuspegia

2015eko maiatzaren 5a

*Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako
Organo Berezia*

SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Saileko Organo Estatistiko Espezifikoko agiri honetan 2013rako eguneratutako **Lan baldintzei buruzko inkestaren** (LBI) emaitzak aurkeztuko ditu. LBI izeneko eragiketa Euskal Estatistika Planean sartzen da, eta arestian aipatu den Eusko Jaurlaritzako Saila arduratzen da hartaz.

Txostenaren ardatza Euskal Autonomia Erkidegoko soldatapekoen eta antzekoen lan baldintzak 1996 eta 2013 bitartean izan duen bilakaeraren azterketa da, eta bereziki 2009 eta 2013 bitartean gertatutako aldaketak azaltzen dira. Azterketak barnean hartzen ditu soldatapekoak modu zorrotz-zorrotzean, kooperatibistak eta beren enpresetan soldatapeko gisa lan egiten duten autonomoak edo kanpoko enpresa bakar batentzat ia-ia eskusiboki lan egiten dutenak (TRADE langileak).

Aurreko edizioetan bezala, LBI 2013ren txostenak lan-baldintzen ikuspegi zabala hartzen du, baldintza horiek lanaren jardunarekin lotutako dimentsioen multzo anitza eta askotarikoa definitzen dutela kontuan izanda. Alde horretan, LBI lan-baldintzen alderdi hauek aztertzen dira:

- *Langileak enpresarekin duen harremana*, hainbat gai barnean hartuta, hala nola kontratu mota, lanbide-kategoria, ordaintzeko sistemak edo ordainsari horien zenbatekoa. Beste hainbat gai ere jorratzen dira kapitulu horretan, hala nola prestakuntzarekin edo sindikatzeko-mailekin lotutakoak.
- *Lanaren antolamendua*, hainbat elementuri buruzko gaiak kontuan izanda, hala nola antolamendu-egitura eta lanaren garapena, edo lan-erritmoa eta produktibitatea. Era berean, kontuan hartzen da diskriminazio-egoerak ere egon litezkeela.
- *Lan-denbora*, lanaldiaren ezaugarriak, ordutegiak, eta horiek bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzearekin duten lotura. Era berean, atal honetan denbora partzialeko lana eta urteko lan-egutegia kontuan hartzen dira.
- *Ekipoen erabilera, laneko giroa eta arriskuak*, zenbait ekoizpen-ekipamenduren erabilera, eta lana zer ingurumen-egoeratan eta egoera psikofisikotan garatzen den, laneko segurtasun- eta osasun-jarduerak zainduz.
- *Lanarekiko gogobetetasuna*, lan baldintzen alderdi batzuei eta besteei buruz azaldutako gogobetetasuna aztertuz.

2013an bereziki kontuan hartzen dira soldatapekoen eta antzekoen lan baldintzak 2009 eta 2013 bitartean nabarmen okertzea ekarri duten alderdiak, eragindako biztanleriaren ikuspegitik aztertuta.

LBI 2013 txostenaren emaitzak laburbilduta aurkeztu dira, eta hautemandako aldaketa nagusiak izango ditu ardatz. Emaitza nagusien txostenarekin batera aurkeztutako Estatistika Eranskinak eragiketaren estatistika-emaitzetan xehe sakontzeko aukera emango du.

EMAITZA NAGUSIAK

1. SOLDATAPEKOEN BILAKAERA

2009 eta 2013 bitartean ikusi da nabarmen behera egin duela soldatapekoen bolumenak

Krisiaren eraginak LBI aztergai den biztanleriaren beherakada nabarmena ekarri du. Soldatapekoak 2009an 778.241 pertsona izan ziren, eta 2013an 734.036. Erreferentziako laurtekoan 44.204 pertsona gutxiago izan dira, beraz landunen ehunekoak behera egin du % 5,7. Kuantitatiboki sektore pribatuko soldatapekoen bolumenak beherakada handiagoa izan du, 25.087 landun gutxiago, sektore publikoan baino (19.118 gutxiago). Hala ere, erlatiboki, landunen beherakadak askoz handiagoak izan dira azken kasu honetan. 2009 eta 2013 bitartean, soldatapekoen bolumenak behera egin du % 12,2. Sektore pribatuan, aldiz, % 4 egin du behera.

Jaitsiera erlatiborik deigarriena, hala ere, kooperatibistena da (-% 26,7). Talde horretan, kalkuluen arabera beherakada 9.252 pertsonakoa izan da (2009an 34.617 landun, eta 2013an aldiz 25.365).

Ez dago erreferentzia estatistikorik autonomoen bilakaera aztertzeko, 2013ko LBI soldatapekoekin parekatu zirelako. Beren enpresako soldatapekoak direnen taldea eta enpresa bakar batentzat lanean ari diren autonomoen taldean 24.873 pertsona zeuden 2013an.

1. taula
Soldatapekoak eta antzekoak. Lanbide-egoera. EAE. 1996-2013
Datu absolutuak eta 2009-2013 bilakaera kopuru absolututan eta ehunekotan

Lanbide-egoera	2009	2013	2009-2013 bilakaera	
	Abs.	Abs.	Abs.	%-tan
Guztira	812.857	784.274	-28.583	-3,5
Soldatapeko soilak	778.241	734.036	-44.204	-5,7
<i>Sektore publikoko soldatapekoak</i>	<i>157.270</i>	<i>138.153</i>	<i>-19.118</i>	<i>-12,2</i>
<i>Sektore pribatuko soldatapekoak</i>	<i>620.970</i>	<i>595.883</i>	<i>-25.087</i>	<i>-4,0</i>
Kooperatibistak	34.617	25.365	-9.252	-26,7
Beste kasu batzuk	0	24.873	24.873	

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Hala ere, landunen kopurua 2004koa baino handiagoa da

Landunen kopuruak 2009 eta 2013 bitartean behera egin duen arren, 2013ko 734.036 landun soilak 2004ko LBI detektatutako 722.869ak baino gehiago dira. Kopuru horrek urte hartan era berean hazkunde argi eta etengabea agerrarazten zuen 1996ko 545.870en aldean.

2004arekin alderatuta, biztanleria okupazioaren mailak 2013an handiagoak izateak zerikusia du sektore pribatuko soldatapeko enpleguak krisian izan duen bilakaera ez hain txarrarekin. Hain zuzen ere, enplegu horretan soilik sendotu dira landunen kopuruak 2013an (595.883 landun, eta 2004an aldiz

583.492). Kooperatibistekin gertatzen den bezalaxe, 2013an sektore publikoko soldatapekoen artean landunen maila 2004koa baino txikiagoa da (138.153, 139.378ren aldean).

1. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Landunen kopuruak 2009-2013 epealdian izan duen beherakadak ez du eraginik lanaren eduki guztietan, ezta talde soziodemografiko guztietan ere

Okupazio mailaren beherakada batez ere industria-ekoizpenaren kategoria baxuetan eta bulegoko lanean gertatu da

Lanaren edukia kontuan hartuta, 2009-2013 epealdiko okupazioaren krisiaren eraginpean batez ere industria-ekoizpenaren taldea egon da, lanbide-kategoria baxuetan. Kasu horretan, laurtekoan 28.269 okupazio galdu dira, lanaren edukiei dagokienez 2009 eta 2013 bitartean okupazioen aldetik bilakaera negatiboa izan duten 65.311 okupazioen % 43,3.

Aztertutako epealdian, industria-ekoizpenaren kategoria baxuetan izandako okupazio-galera 2009 eta 2013 bitartean okupazioaren beherakadan gehiago lagundu zuten beste hiru okupazio-taldeetan baterako % 42 baino handiagoa da. Bulegoko zereginari eta hirugarren sektoreko ekoizpenari dagozkion kategoria baxuko taldeak dira (% 14,9 eta % 13, hurrenez hurren), bai eta bulegoko jardueren kategoria ertain eta altuetakoak (% 14,2).

Multzoan hartuta, industria-ekoizpenaren kategoria baxuetan eta bulegoko lanen multzoan okupazioak izan duen beherakadak azaldu egiten du 2009-2013 epealdian atzera egin duten lan-edukietan

okupazioak izandako galeren % 72,3a. Murrizketa hori % 85,3ra igotzen da hirugarren sektoreko kategoria baxuak kontuan hartzean, eta % 92,3ra irakaskuntzako goi mailako titulazioak sartzean.


2. taula.

Soldatapekoak eta antzekoak. Lan-edukiaren tipologia. EAE. 1996-2013
Datu absolutuak eta 2009-2013 bilakaera kopuru absolututan eta ehunekotan

Lan-edukia	2009	2013	2009-2013 bilakaera	
	Abs.	Abs.	Abs.	%-tan
Guztira	812.857	784.274	-28.583	-3,5
L1 Zuzendaritza	59.464	58.928	-536	-0,9
L2 Irakaskuntza (goi-mailako titulazioa)	64.014	59.438	-4.576	-7,1
L3 Osasuna (goi-mailako titulazioa)	21.949	33.043	11.094	50,5
L4 Bulegoa (kategoria altua eta ertaina)	87.222	77.962	-9.259	-10,6
L5 Merkataritza (kategoria altua eta ertaina)	50.356	58.215	7.858	15,6
L6 Industria-ekoizpena (kategoria altua eta ertaina)	97.633	95.640	-1.993	-2,0
L7 Hirugarren sektoreko ekoizpena (kategoria altua eta ertaina)	30.832	44.260	13.428	43,6
L8 Bulegoa (kategoria baxua)	34.483	24.782	-9.701	-28,1
L9 Merkataritza (kategoria baxua)	116.742	121.089	4.348	3,7
L10 Industria-ekoizpena (kategoria baxua)	92.128	63.859	-28.269	-30,7
L11 Hirugarren sektoreko ekoizpena (kategoria baxua)	96.316	87.814	-8.502	-8,8
L12 Bestelako zereginak	61.718	59.244	-2.474	-4,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2. grafikoa



Oharra: Beste kasu batzuk izeneko taldean sartzen dira epealdian okupazioak izandako beherakadan % 5 baino gutxiagoko ekarpena izan duten lan-edukiak (% 0,8 Zuzendaritza; % 3,1 Industria-ekoizpena kategoria altua eta ertaina; % 3,8 Bestelako zereginak)


Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Kasu batzuetan, 2009-2013 epealdian lanaren eduki batzuei eragin dien okupazioaren narriadurak jatorria duela gutxien gertatutako krisia baino lehenagoko garaian dauka. Hala, industria-ekoizpeneko kategoria baxuko pertsonen kasuan, okupazioaren dinamikak landunen beherakada nabarmena eta

etengabea izan du 2004az geroztik. Gainera, egiaztatu da landunen beherakada moderatua 2000. eta 2004. urteen artean gertatzen ari zela. 2000-2013 epealdian, okupazio-talde hori 118.570 landunetik 63.859ra igaro zen; beraz, mende hasieran zegoen okupazio-bolumenaren % 46,1 galdu du.

Jaitsiera hori, zati batean, industria-ekoizpenaren lanbide-kategorien egituraren barnean egindako berrantolaketaren ondorioa da, kategoria baxuak birkualifikatu baitira; hori agerikoa izan da 2004 eta 2009 bitartean. Multzoan hartuta, hala ere, industria-ekoizpenean okupazioak joera negatiboari eusten dio. 2000ko 210.153 landunek pisua galdu dute apurka 2009ko 189.761ak arte. Kopuru horrek behera egin du 2013an 159.499 okupaziora arte. 2000 eta 2013 bitartean industria-ekoizpenean 50.654 okupazio galdu dira, mende hasieran zeudenen % 24,1.

3. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Okupazioak 2004az geroztik izan duen etengabeko beheranzko joera bulegoko zereginetako kategoria baxuko pertsonengana hedatu da. Kasu horretan, 2004an 38.838 pertsona ziren, eta 2013an, aldiz, 24.782; okupazioaren galera % 36,2koa izan da epealdi horretan. Bestelako zereginak kategoriak ere beherakada izan du; kasu horretan, 2004an 89.636 landun zeuden, eta 2013an, aldiz, 59.244. Murrizketa, beraz, % 33,9koa izan da.

2013an okupazioa 2004koa baino handiagoa izan da bulegoko zereginetako kategoria ertain eta altuetan. Hala ere, krisiak eragin ezberdina izan du lan-edukiaren mota horretan, eta okupazioaren % 10,6 galdu du 2009 eta 2013 bitartean.

Benetan, enpleguaren krisiaren eragina askoz handiagoa izango zen, baldin eta krisi horrekin batera lan-edukiaren mota batzuetan okupazioaren joera goranzkoa izan ez balitz. Hala, osasunaren goi-mailako titulazioetan, hirugarren sektoreko ekoizpenari lotutako kategoria altu eta ertainetan eta, orokorrean, merkataritza arloko lanetan –edozein kategoriatan– okupazioak gora egin du 2000 eta 2013 bitartean. Lan-edukien multzo horretan, okupazioak 36.727 pertsona egin du gora 2009 eta 2013 bitartean; epealdi horretan, 219.879 landunetik 256.607ra igo da okupazioa. Lanaren mota horietan, okupazioaren mailarik handiena 2013an egon da 2000. urteaz geroztik.

Okupazioak txarrera egin du 45 urtetik beherako pertsonen artean, bereziki 30 urtetik beherakoen artean, eta gizonen artean

Demografiari dagokionez, 2009-2013 epealdiko okupazioaren beherakadaren eraginik handiena gazteenek jasan dute. 45 urteko eta gehiagoko biztanleriari lotutako okupazioak gora egin du. Bitartean, behera egin du adin horretatik beherako biztanlerian, eta atzera egin duten taldeei lotutako murrizketaren % 84,9 30 urtetik beherako pertsonen artean bildu da (aldiz, 30 eta 44 urte bitarteko pertsonen artean % 15,1 da).

Bereziki deigarria da gizonezko biztanleei lotutako narriadura. 45 urtetik beherako pertsonen lotuta dauden eta atzera egin duten okupazio-taldeetan, gizonezkoak okupazioaren galeren % 61,7 izan dira, eta galera horien % 48,8 eskusiboki 30 urtetik beherako gizonei dagozkie.


Gizonezko biztanleriaren narriadura erlatiboa 45 urtetik gorako biztanlerian ere sumatu da. Talde horretan, multzoan hartuta, 46.382 landun gehiago egon dira 2009 eta 2013 bitartean. Igoera horren % 20,4 ozta-ozta gizonei dagokie, eta gainerako % 79,6 emakumei.

3. taula
Soldatapekoak eta antzekoak. Sexua eta adina. EAE. 1996-2013
Datu absolutuak eta 2009-2013 bilakaera kopuru absolututan eta ehunekotan

Sexua eta adina	2009	2013	2009-2013 bilakaera	
	Abs.	Abs.	Abs.	%-tan
Guztira	812.857	784.274	-28.583	-3,5
Gizona	447.667	410.850	-36.817	-8,2
Gizona 16-29	85.931	49.377	-36.554	-42,5
Gizona 30-44	189.867	180.137	-9.730	-5,1
Gizona 45-64	171.869	181.336	9.467	5,5
Emakumea	365.190	373.424	8.234	2,3
Emakumea 16-29	76.522	49.428	-27.093	-35,4
Emakumea 30-44	169.403	167.815	-1.588	-0,9
Emakumea 45-64	119.266	156.181	36.915	31,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


4. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Benetan, emakumezko soldatapekoen kopurua etengabe igo da 1996az geroztik. Urte hartan 196.676 emakume landun zeuden, eta 2013an 373.424. Igoera % 89,9koa izan da. Aldiz, 2013ko 410.850 gizon ezko landunak 2004ko eta 2009ko erregistroetatik behera daude, baina 2000koetatik behera ere bai, urte hartan landunak 418.233 gizon izan baitziren. 1996ko okupazioaren erregistroa soilik gaitzen da, gizon ezko landunak urte hartan baino % 10,6 gehiago baitira.

5. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2. SOLDATAPEKOEN POSIZIOA EKOIZPEN-SISTEMAN ETA ENPRESAN

Goranzko joera Euskal AEko ekoizpen-sistemako kategorien egituran

2009-2013 krisialdiko fenomenorik deigarrienetako bat Euskal AEko soldatapeko enpleguaren kategorien egiturak gorantz izan duen joera erlatiboa izan da. Alde horretan zera nabarmentzen da: 1996tik hona okupazioari dagokionez goranzko joerari eutsi dion talde bakarra lanbide-kategoria altuko landunena izan da. 2009an gehieneko mailari heldu zen, 217.911 landun; gerora, kopuruak gora egin zuen, eta 2013an 246.949 izan ziren. Hazkunde garbia 29.037 okupaziokoa izan da, 2009an zeudenen % 13,3.

Bilakaera horren aldean, 2009 eta 2013 bitartean, 10.949 okupazio gutxiago egon dira kategoria ertainetan (-% 4,8 laurtekoan) eta 46.672 gutxiago kategoriari baxuenetan (-% 12,7). Azken kasu horretan, iraun egin du 2004az geroztik joera negatiboak; horren ondorioz, okupazioak behera egin du % 14 2004-2013 epealdian. Aldiz, 2013an, kategoria ertainetako soldatapekoen okupazio-kopurua 2004koa baino % 11,3 handiagoa da, eta proportzio hori % 30,9ra heldu da kategoria altuetan.

4. taula
Soldatapekoak eta antzekoak. Lanbide-kategoria. EAE. 1996-2013
Datu absolutuak eta bilakaera epealdi diferentetan, kopuru absolututan eta ehunekotan

Maila	1996	2000	2004	2009	2013	2009-2013 bilakaera		2004-2013 bilakaera		1996-2004 bilakaera	
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%-tan	Abs.	%-tan	Abs.	%-tan
Guztira	568.000	680.971	756.298	812.857	784.274	-28.583	-3,5	27.976	3,7	188.297	33,2
ALTUA	124.012	167.716	188.594	217.911	246.949	29.037	13,3	58.355	30,9	64.582	52,1
Goi-mailako titulua	56.403	69.165	73.681	110.504	102.317	-8.187	-7,4	28.636	38,9	17.279	30,6
Erdi-mailako titulua	39.450	54.089	63.808	68.473	88.603	20.130	29,4	24.796	38,9	24.358	61,7
Administratioko eta tailerreko buruzagitza	28.159	44.462	51.105	38.934	56.028	17.094	43,9	4.923	9,6	22.946	81,5
ERTAINA	179.829	190.746	194.678	227.579	216.630	-10.949	-4,8	21.952	11,3	14.849	8,3
Administrazio- ofizialtza	24.946	37.223	45.053	55.994	60.401	4.407	7,9	15.348	34,1	20.107	80,6
1./2. mailako ofizialtza	154.883	153.523	149.625	171.585	156.229	-15.355	-8,9	6.604	4,4	-5.258	-3,4
BAXUA	264.160	322.509	373.026	367.367	320.695	-46.672	-12,7	-52.330	-14,0	108.866	41,2
3. mailako ofizialtza	72.760	75.273	96.230	78.133	73.423	-4.711	-6,0	-22.807	-23,7	23.469	32,3
Administrari laguntzailea	48.800	53.859	64.093	56.210	65.457	9.247	16,5	1.364	2,1	15.294	31,3
Peoia	107.815	129.706	159.062	170.060	127.176	-42.884	-25,2	-31.886	-20,0	51.247	47,5
Mendekoa	34.784	63.670	53.640	62.963	54.639	-8.324	-13,2	999	1,9	18.856	54,2

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Kategoria-mota bakoitzaren barruan (altua, ertaina edo baxua), bilakaera apur bat diferentea da azpikategoria batzuetan eta besteetan. Alde horretan, kategoria altuetan 2009-2013 epealdiko

okupazioaren gorakada batez ere titulazio ertainetan eta administrazio-buruzagitzetan edo tailerreko buruzagitzetan gertatu da, eta goi-mailako titulazioa duten biztanleen bolumenak behera egin du % 7,4. Aldiz, kategoria ertain eta baxuetan administrazio-ofizialtzak dauzkaten pertsonen bolumenaren gorakada mantendu da eta gora egin du administrazio-lan osagarriei lotuta dagoen bolumenak. Okupazio-galerarik handienak mendeko langileei eta peoiei dagozkienak izan dira.

Ikusi den bilakaerak epe luzeko aldatetako dinamika estrukturala agertzen du. Dinamika hori alderdi honetan ikusten da batez ere: kategoria altuko langileen edo administrazio-ofizialtzei lotutako kategoria ertaineko soldatapeko enpleguak sisteman duen pisuak gora egitea. Landunen talde horrek modu etengabea gora egin du, 1996ko 148.958 landunetatik 2013ko 307.349etara. 90eko hamarkadaren erdialdean soldatapekoen % 26,2 ziren, eta 2013an % 39,2.


1996an okupazioa 419.042 pertsonakoa zen, eta 2009an, aldiz, 538.952: Horren ostean, krisiak eragin nabarmena izan du gainerako biztanleria landunean, eta 2013an 476.925 landun izan ziren, 2000ko 476.032 okupazioen antzeko kopurua.

6. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

7. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Kategoria baxuetan okupazioak jaitsiera handia izan du; hala ere, esan behar da 2013ko okupazio-bolumena oraindik % 21,4 handiagoa dela 1996koa baino kategoria horietan, argi eta garbi kategoria altuen % 99,1etik behera, baina kategoria ertainen % 20,5etik askoz gora. Alde horretan hau ekarri behar da gogora: 1996 eta 2004 bitartean, soldatapekoen kopuruaren igoera handiak oinarria gehienbat kategoria baxuko biztanleria-talde horretan izan zuen. Talde horren pisua 1996an soldatapekoen % 46,5 zen, eta 2004an, aldiz % 49,3.

Okupazioak kategoria altu eta ertainetan (administrazio arloan) izan duen gorakada onuragarria izan da soldatapekoen eta antzekoen artean emakumezkoen presentzia igotzeko. Hain zuzen ere, gora egin duen talde horretan emakumeen pisuak etengabe egin du gora. 1996an proportzio hori okupazio osoaren % 41,7 zen; etengabe egin du gora, eta 2009an % 50etik gora zegoen (% 51,4). Gorakada 2013an ere egon da, eta % 53,1era heldu da.

Epe luzeko gorakada zalantzarik gabe ikusi da 45 urtetik beherako pertsonen artean. Talde horretan, emakumeak 1996an kategoria altuetan eta kategoria ertainetan/administrazio zereginetan okupazioaren % 48,2 ziren. Kasu horretan, 2013an ehunekoak % 59,1era arte egin zuen gora. 45 urtetik gorako populazioan, gorakada 1996ko % 27,5etik 2013ko % 44,9era izan zen. Proportzio hori apur bat txikiagoa izan zen 2009ko % 45,8 baino. 1996az geroztik lehenengo aldiz, 2009 eta 2013 bitartean, konparatuta, gora egin du gehiago gizonezkoen okupazioak 45 urtetik gorako taldean kategoria altu eta ertainetan/administrazioko kategorietan.

8. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Iraupen mugagabeko kontratazioak oraindik pisu nagusia dauka

Krisiaren ondorioz behera egiten du iraupen mugagabeko kontratazio duten biztanleen bolumenak, eta horrekin batera, aldibaterakotasunak ere gora egiten du. Hala, 2009 eta 2013 bitartean, iraupen mugagabeko kontratua zuten soldatapeko eta antzekoen kopurua 642.114tik 616.662ra jaitsi zen, eta okupazioaren murrizketa % 4 izan zen. Aldiz, aldi baterako kontratua duen biztanleriak gora egin du % 5 laurteko horretan, okupatutako 129.597 pertsonatik 136.039 pertsonara. Iraupen mugagabeko kontratazioaren eta aldi baterako kontratazioaren batura kontuan hartuta, gainerako egoerak sartu gabe (kontraturik gabe edo beste egoeraren bat), aldibaterakotasunaren pisuak gora egin du 2009ko % 16,8tik 2013ko % 18,1era.

Hala ere, 2013ko gertakaririk nabarmenena hau izan da: iraupen mugagabeko kontratazioa errealitate nagusia da; zalantzarik gabe, hori lotuta dago krisia gainditzea lortu duen EAEren ekoizpen-sistemaren kualifikazio-prozesuarekin. 2004rekin konparatuz gero, aldi baterako kontratua duen biztanleriaren bolumenak 2013an behera egin du 45.400 pertsona, baina iraupen mugagabeko biztanleriaren bolumena handiagoa izan da, 77.580 pertsona gehiago.


Benetan, 2013an iraupen mugagabeko kontratua zuten 616.662 soldatapekoen kopurua 2004koa baino % 14,4 handiagoa zen. Gorakada % 61,7 izan da 1996an mota horretako kontratua zuten 381.244 pertsonekin alderatuta. Aldiz, 2013an iraupen mugagaberik ez zuten 167.612 okupazioak (barnean direla kontraturik gabeko formak eta bestelako egoerak) 1996ko 186.756ak baino % 10,3 gutxiago dira.

5. taula
Soldatapekoak eta antzekoak. Kontratu mota. EAE. 1996-2013
Datu absolutuak eta 2009-2013 bilakaera kopuru absolututan eta ehunekotan

	Guztira	Mugagabea	Ez-mugagabea	Aldi baterakoa	Kontraturik gabe	Beste egoeraren bat
Urtea	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.
1996	568.000	381.244	186.756	151.062	29.746	5.948
2000	680.971	480.129	200.842	172.605	22.369	5.868
2004	756.298	539.082	217.216	181.439	28.346	7.431
2009	812.857	642.114	170.743	129.597	25.407	15.740
2013	784.274	616.662	167.612	136.039	5.986	25.587
Bil.2009/2013 Abs.	-28.583	-25.452	-3.131	6.443	-19.421	9.847
Bil.2009/2013 %	-3,5	-4,0	-1,8	5,0	-76,4	62,6
Bil.2004/2013 Abs.	27.976	77.580	-49.604	-45.400	-22.360	18.155
Bil.2004/2013 %	3,7	14,4	-22,8	-25,0	-78,9	244,3

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

9. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Erlatiboki, hain zuzen ere, 2013an soldatapekoen eta antzekoen % 21,4en ezaugarria jatorriko enpresarekiko iraupen mugagabeko lan-harremanik eza zen, baina proportzio hori oraindik ere askoz txikiagoa da 2004ko % 28,7a baino. Krisiari lotuta aldi baterako kontratazioak izan duen gorakada erlatiboak, beraz, ez du aldatzen adierazlearen epe luzeko jaitsieraren joera. 1996an, egoera horretan pertsonen % 32,9 zegoen.

Enpresarekin lotura egonkorra duen biztanleriaren pisu erlatiboa egonkortzeko arrazoietakoa bat hau da: 2009 eta 2013 bitartean aldi baterako lanaren eraginak gora egin du, baina kontraturik gabeko lan-formek epealdi horretan ere modu nabarmenean behera egin dute (25.407 kasutik 5.986 kasura kopuru absolututan; horrenbestez, egoera horien pisua murriztu da soldatapeko eta antzeko biztanleria osoan, 2009ko % 3,1etik 2013ko % 0,8ra).

10. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Hala ere, zera esan behar da: lanaren edukiaren edo sexuaren eta adinaren arabera talde batzuetan, kopuruen aldetik nabarmena da iraupen mugagabeko kontratazioak 2009-2013 epealdian izan duen gorakada.

Lanaren edukiari dagokionez, alde batetik, bereziki nabarmentzekoa da aldi baterako kontratazioak osasunaren eta irakaskuntzaren arloetan goi-mailako tituludunen artean duen garrantzia.

Osasun arloko lanbiderik kualifikatuenetan, 2009-2013 epealdiko krisiaren ondorioz, argi eta garbi haustura gertatu da adierazle horrek 2009an izan zuen hobealdian. Osasun arloko profesionalen talde horretan, iraupen mugagabeko kontraturik gabeko taldearen goranzko joera 2004 baino lehenagoko garaia ezaugarria izan zen. Iraupen mugagabeko kontraturik gabeko biztanleriaren proportzioa 1996ko % 23,7tik 2004ko % 31,8ra igo zen. 2004-2009 epealdian beherakada gertatu zen, 2009an % 26,6. 2009-2013 laurtekoko gorakadaren ondorioz, adierazlea gehieneko kopuru beste batera heldu zen 1996az geroztik. Hain zuzen ere, iraupen mugagabeko kontraturik gabeko taldeak duen proportzioa kasu horretan soilik izan da handiagoa 2013an 1996an baino (% 32,3, % 23,7ren aldean).

Irakaskuntzako goi-mailako titulazioen kasuan, iraupen mugagabeko kontraturik ez duten soldatapekoen eta antzekoen pisua egonkortu egin da % 26,5 inguruko kopuruetan 2004az geroztik. Horrekin batera, apur bat hobera egin du 1996ko eta 2000ko kopuruekin alderatuta (% 28,2 eta % 30,4, hurrenez hurren). Hala ere, aldi baterako enpleguaren eragina Euskal AEko batez bestekoa baino askoz handiagoa da, eta gainera mota horretako lanaren eraginak orokorrean duen beheranzko joeratik aldentzen da.

Beste alde batetik, iraupen mugagabeko kontratazio-formen eragina Euskal AEko batez besteko mailetatik behera mantendu da, baina duela gutxiko bilakaerak agerian jarri du mota horretako lanak gora egin duela soldatapekoen beste kategoria altu eta ertain batzuetan, eta gorakada hori deigarria izan dela merkataritzaren eta bulegoko lanaren jarduera-arloetan. Lehenengo kasuan, 1996 eta 2004 bitartean % 29,3tik % 15,2ra jaitsi ondoren, urte hartatik aurrera gora egin du iraupen mugagabeko kontraturik gabeko lanak. 2013an, okupazioaren % 19 zen. Are deigarriagoa da bulegoko lanik kualifikatuenaren arloan egon den joera-aldaketa. Kasu horretan, iraupen mugagabeko kontraturik gabeko lanaren eraginak gora egin zuen % 19,5etik % 23ra. Horren ostean, mota horretako lanak bat-batean behera egin zuen % 8,2ra 2009an. Hala ere argi eta garbi gora egin zuen 2013an, eta azken urte horretan okupazioaren % 17,7 izan da.


Lanaren edukiaren arabera, gainerako taldeetan, barneko diferentziak daude, eta narriaduraren bat ere bai lanbide-talderen batean 2009 eta 2013 bitartean, baina ezaugarri nagusia iraupen mugagabeko kontraturik gabeko lanaren eraginaren epe luzeko beherakada nabarmena izan da. Hala, eraginak etengabe behera egin du 1996ko % 35,4tik 2013ko % 20,9ra.

Sexuaren eta adinaren arabera, iraupen mugagabeko kontraturik gabeko lan-formek 2009 eta 2013 bitartean izan duten gorakadaren ondorioz, 30 urtetik beherako biztanleria, gizonak zein emakumeak, % 50eko atalasearen gainetik jarri da. 2013an, hala ere, lan-forma horien pisua 1996ko eta 2000ko kopuruetatik behera eta 2004ko kopuruetatik hurbil edo beherago egon da.

30 urtetik gorako biztanlerian, 2009 eta 2013 bitartean iraupen mugagabeko kontraturik gabeko okupazioaren eragina emakumeen artean egonkortu da. Gizonen artean, ordea, joera goranzkoa izan da. Dena dela, adin horietan, goranzko joerak iraupen mugagabeko kontraturik gabeko lan-formen


eragina talde bakar batean jarri du 2004ko kopuruen gainetik, 45 urteko eta gehiagoko gizonen taldean. Kasu horretan, 2013ko % 11,2ak argi eta garbi gaitzen du 2000-2009 epealdiko % 6,5etik % 8,8ra bitarteko igoera, eta 1996ko % 12,2ra hurbiltzen da. Hala ere, hori da Euskadin sexuaren eta adinaren arabera iraupen mugagabeko kontraturik gabeko biztanle-proportzio txikiena duen taldea.

11. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

12. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Soldatapekoen posizioaren narriadura estruktural nagusiak zerikusia du ordainsarien beherakadarekin

2013an soldatapeko landunen posizioak epe luzerako hobekuntza estrukturala izan du; hala ere, horrekin batera, krisialdian, ordainsariek nabarmen behera egin dute (soldaten diru-sarrerak eta antzekoak).

Hala, 2009 eta 2013 bitartean, kobratutako azken hileko batez besteko ordainsari garbiak behera egin du 1.503,00 eurotik 1.453,80 eurora; jaitsiera erlatiboa % 3,3koa izan da. Jaitsiera zertxobait txikiagoa izan da orduko ordainsariari dagokionez (% 2,4), eta adierazlea 2009ko batez besteko 10,80 eurotik 2013ko 10,54 eurora igaro da.

2013ko prezioetan, 2009-2013 epealdiko soldaten beherakada askoz esanguratsua da. % 10,7ra iritsi da orduko ordainsarian (11,80 eurotik 10,54 eurora) eta % 11,4ra hileko ordainsarian (1.641,3 eurotik 1.453,8 eurora). Kopuru konstanteetan, zenbakiek zera erakusten dute: nabarmen atzera egin da 2004ko batez besteko soldaten kopurura. Urte harekin alderatuta, igoera ozta-ozta % 0,3koa izan da orduko ordainsarian (urte hartan kopurua orduko 10,51 euro zen) eta % 1,8koa hileko ordainsarian (2004an 1.427,8 euro, 2013ko prezio baliokideetan) ¹.


6. taula
Soldatapekoak eta antzekoak
Azken hilabeteen kobratutako ordainsari garbiaren batez bestekoa (prezio korranteetan eta 2013ko prezioetan). Euskal AE. 1996-2013
Batez bestekoa eurotan eta batez besteko aldaketa epealdi jakin batzuetarako, %tan

	1996	2000	2004	2009	2013	2009- 2013 aldakuntza	2004- 2013 aldakuntza
Ordainsariaren adierazlea	Batez besteko a	Batezbesteko a	Batezbesteko a	Batezbesteko a	Batezbesteko a	%-tan	%-tan
Ordainsaria, guztira (prezio korranteak)	892,7	1.030,6	1.143,2	1.503,0	1.453,8	-3,3	27,2
Ordainsaria, guztira (prezio konstanteak)	1.415,8	1.468,6	1.427,8	1.641,3	1.453,8	-11,4	1,8
Soldata/ordua (prezio korranteak)	6,38	7,23	8,41	10,80	10,54	-2,4	25,3
Soldata/ordua (prezio konstanteak)	10,12	10,31	10,51	11,80	10,54	-10,7	0,3

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

¹ Azaldu behar da auzi hori modu egokian aztertzeke era berean etxebizitza eskuratzeko eta mantentzeko kostuaren bilakaera kontuan hartu beharko litzatekeela. Faktore horrekin lotutako aldaketen ondorioak ez dira osorik kontuan hartzen KPIri buruzko estatistiketan. Hala ere, txosten honetan ezin da auzi hori zehaztasunez aztertu. Beraz, kopuruak 2013ko prezio konstanteetan doitu dira KPIren bilakaera oinarri hartuta.

13. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2009-2013 epealdia ordu bakoitzeko ordainsariari dagokionez prezio konstanteetan konparatuz (2013ko prezioak), egiaztatu ahal da 2013an beherakada erlatibo nabarmena egon dela EAEko batez besteko diru-sarrerak edo handiagoak dituzten soldatapeko edo antzekoetan.

Modu horretan, 2013ko prezio konstanteetan, 2013ko batez besteko diru-sarrera baino % 125 gehiagoko diru-sarrerak dituzten soldatapekoen pisu erlatiboak gora egin zuen % 23,9tik % 37,1era 1996 eta 2009 bitartean, eta diru-sarrera horien % 100 eta % 125 bitarteko diru-sarrerak dituzten biztanleen pisu erlatiboak gora egin zuen 1996ko eta 2000ko % 20-21 inguruko kopuruetatik 2009ko % 25,5era. Hala ere, erreferentziazko proportzioek behera egin zuten % 28,6ra eta % 21,4ra 2013an. Atzerakada esanguratsua da, eta adierazleak 2004ko egoerara itzuli dira. Bi urte horietan, eta 2013ko prezio konstanteen batez besteko kopuruetan, batez bestekoaren % 100eko edo gehiagoko diru-sarrerak dituzten soldatapekoak % 50 dira.

2004arekin alderatuta, hala ere, hobetu diren bi alderdi nabarmendu behar dira. Alde batetik, batez bestekoaren % 125etik gorako diru-sarrerak dituzten pertsonen proportzioa handiagoa da (2013an % 28,6, eta 2004an % 27,3). Beste alde batetik, batez bestekoaren % 75etik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonen proportzioa zertxobait txikiagoa da (2013an % 20,8, eta 2004an % 21,2). Gainera, egoera hori 2013an okupazioak 2004arekin alderatuta duen bolumen handiagorekin lotzen da.

14. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Hala ere diferentzia nabarmenak dira lanaren edukiaren eta sexuaren eta adinaren arabera

Duela gutxiko soldaten dinamikak portaera diferenteak izan ditu lanaren eduki batzuen eta besteen arabera.

Eraginik handiena jasan duen taldean daude kopuru errealetan 2009-2013 laurtekoan batez besteko ordainsarian guztira % 10etik gorako jaitsiera jasan duten eta, gainera, 2004arekin alderatuta ere galerak jasan dituzten taldeak. Talde horietan, hileko ordainsari garbien beherakada, 2013ko prezioetan, 2004 eta 2013 bitartean % 1,9koa izan da hezkuntzaren sektorean goi-mailako titulazioa duen biztanleriaren artean, % 4,5 ingurukoa merkataritzako lanarekin lotutako kategoria altu eta ertainetan eta industria-ekoizpenaren kategoria baxuetan eta % 8,5etik gorako kopuruak merkataritza-jardurekin eta hirugarren sektoreko ekoizpenarekin lotutako kategoria baxuetan.

Deigarria da honako hau egiaztatzea: talde horietan, soldaten diru-sarreraren benetako beherakada nahiko txikiagoa izan da orduko ordainsariei dagokienez 2004-2013 epealdian. Orokorrean, -% 0,3 eta -% 3,6 bitartekoa izan da. Horrek agerian jartzen du lotura bat batez besteko ordainsariaren murrizketaren eta batez beste lan egindako ordu-kopuruaren artean. Salbuespen bakarra irakaskuntzako goi-mailako tituludunei dagokie. Esparru horretan ordu bakoitzeko ordainsaria % 12,3

jaitsi da 2004 eta 2013 bitartean. Irakaskuntzan, beraz, aztertutako epealdian % 1,9ko jaitsiera batez beste lan egindako ordu-kopuruaren igoerarekin lotzen da.

7. taula
Soldatapekoak eta antzekoak
Azken hilabeteen kobratutako ordainsari garbiaren batez bestekoa (guztira eta orduka 2013ko prezioetan),
lan-edukiaren arabera. EAE.
Batez bestekoen aldaketa epealdi jakin batzuetarako, % tan

Lan-edukia	Ordainsaria/guztira		Ordainsaria/ordua	
	2009-2013	2004-2013	2009-2013	2004-2013
Guztira	-11,4	1,8	-10,7	0,3
L1 Zuzendaritza	-8,0	11,2	-14,7	1,7
L2 Irakaskuntza (goi-mailako titulazioa)	-16,2	-1,9	-22,2	-12,3
L3 Osasuna (goi-mailako titulazioa)	-15,1	3,3	-13,2	-1,8
L4 Bulegoa (kategoria altua eta ertaina)	-13,6	5,1	-17,2	-3,0
L5 Merkataritza (kategoria altua eta ertaina)	-14,0	-4,5	-16,0	-0,3
L6 Industria-ekoizpena (kategoria altua eta ertaina)	-4,9	7,1	-5,8	2,8
L7 Hirugarren sektoreko ekoizpena (kategoria altua eta ertaina)	-8,2	4,6	-7,0	-6,1
L8 Bulegoa (kategoria baxua)	-9,4	0,1	-7,7	-3,8
L9 Merkataritza (kategoria baxua)	-18,8	-8,7	-7,7	-3,6
L10 Industria-ekoizpena (kategoria baxua)	-10,8	-4,4	-12,2	-0,7
L11 Hirugarren sektoreko ekoizpena (kategoria baxua)	-13,5	-11,6	-2,3	-2,4
L12 Bestelako zereginak	-14,9	5,7	-2,8	9,2

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gainerako soldatapekoek hileko batez besteko ordainsarian beherakada handia jasan dute 2009 eta 2013 bitartean, ia-ia kasu guztietan % 8tik gorakoa, baina 2004arekin alderatuta aurrera egin dute, edo gutxienez haien diru-sarreraren mailari eutsi diote.

2004-2013 epealdian 2004arekin alderatuta batez besteko ordainsarian prezio konstanteetan izandako aurrerakada % 11,2koa izan da zuzendaritzaren esparruan. Osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean, bulegoko lanari eta hirugarren sektoreko ekoizpenari lotutako kategoria altu eta ertainetan eta bestelako zereginen taldean kopuru askoz txikiagoetan dago, baina kopuru esanguratsuak dira, % 3,3 eta % 5,7 bitartean. Aldiz, ozta-ozta % 0,1ekoa da bulegoen sektoreko kategoria baxuko lanetan. Hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria altu eta ertainetan eta bulegoko lanaren kategoria baxuetan batez besteko ordainsariaren beherakada % 8,2 eta % 9,4 bitartekoa izan da 2009 eta 2013 bitartean. Azaldu diren gainerako lan-edukietan, aldiz, batez besteko ordainsari errealean beherakada nabarmena egon da 2009 eta 2013 bitartean, % 13 baino gehiagoko beherakada.

2009-2013 laurtekoan, azaldu diren lan-edukien antzeko posizioa ikusten da industria-ekoizpenaren kategoria altu eta ertainetan, baina jaitsiera askoz txikiagoa izan da batez besteko ordainsarian: -% 4,9,

epealdi horretan ikusitakoen artean txikiena. Inguruabar horri esker, 2013an taldearen ordainsari erreala 2004koa baino % 7,1 handiagoa izan da. Gorakada hori zuzendaritzako jardueren arduradunek soilik gainditu dute.

Bilakaera konparatu hobe izan duten talde horietan, ordu bakoitzeko ordainsaria 2013ko prezio konstanteetan 2004koa baino handiagoa izan da zuzendaritzako lanetan, industria-ekoizpeneko kategoria altu eta ertainetan eta bestelako zereginetan. Hileko ordainsaria baino beheragoko mailetan da zuzendaritzaren esparruan (% 1,7, % 11,2ren aldean) eta kategoria altu eta ertaineko industria-ekoizpenean (% 2,8, % 7,1en aldean), eta horrek agerian jartzen du lanorduen gorakada. Aldiz, gorakada handiagoa da beste zeregin batzuetan (% 9,2, % 5,7ren aldean). Horrek agerian jartzen du lan-esparru horretan batez besteko lanaldia murriztu dela.

Gainerako kasuetan, 2013an 2004arekin alderatuta batez besteko ordainsari errearen hobekuntza lanordu kopuruaren gorakadarekin lotzen da. Halaber, ordu bakoitzeko ordainsariak behera gin du % 1,8 osasunaren arloko goi-mailako titulazioetan, % 3 eta % 4 bitartean bulegoko lanetan, edozein kategoriatan dela ere, eta % 6,1 hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria altu eta ertainetan.


Ere luzeagoko ikuspegi batean, zera egiaztatzen da: 2013ko ordainsari garbi erreala argi eta garbi 1996-2004 epealdikoa baino handiagoa da lan-edukien talde bakar batean, hirugarren sektoreko edo industriako zuzendaritza- eta ekoizpen-jarduerekin lotutako kategoria altu eta ertainen taldean, alegia. Kasu horretan, 2013ko bataz besteko ordainsari garbia, 1.803,79 euro, argi eta garbi 1996-2004 epealdiko 1.727,07 euroko gehieneko kopurua baino handiagoa da. Hala ere, egiaztatu da dinamika hori gorabehera ez dela nabarmen hobetu ordu bakoitzeko ordainsaria, 2013an 11,34 euro, 2004ko 11,32 euroen eta 2000ko 11,20 euroen antzeko kopurua (hala ere argi eta garbi 1996ko 10,74 euroak baino handiagoa). Behintzat 2000. eta 2004. urteei dagokienez, batez besteko ordainsari osoaren hobekuntzak zerikusia du, beraz, lanordu kopurua ugaritzearekin.

Gainera, zera egiaztatu da: azaldu diren kategorietan orduko batez besteko ordainsaria irakaskuntzari, osasunari, bulegoko lanari edo merkataritza-lanari eta Bestelako zereginen taldeari lotutako gainerako kategoria altu eta ertainetan baino txikiagoa izan da beti, 2013an ere bai. Edukien talde horretan, orduko batez besteko ordainsaria 2013an 11,93 euro izan da, 2004ko 11,92en antzekoa, baina etengabeko beheranzko joeran (2009ko gorakada bazter utzita), 1996ko 12,34 euroekin alderatuta.

Lan-eduki horietan, zuzendaritza- eta ekoizpen-jardueretik hileko diru-sarrera oso txikiagoen zergatia lanorduen kopuru txikiagoa da. Hala eta guztiz ere, 2009 eta 2013 bitartean joera lanordu-kopuru handiagoa izan zen, eta horri esker, 2013an hileko batez besteko ordainsaria 2004koa baino handiagoa izan zen (1.602,71 euro, 1.535,52en aldean). Hala ere, kopurua 2004 baino lehenagoko mailetatik behera ere egon da (1996an 1.664,76 euro, eta 2000n 1.620,07).


Bilakaerarik txarrena soldatapekoen kategorია baxuena izan da. Kasu horretan, ordainsariak (guztira zein ordu bakoitzeko) gora egin dute 2009ra arte, baina krisia dela-eta soldatek nabarmen egin dute behera. Hala, 2013ko batez besteko 1.075,84 euroko ordainsaria 2013ko gutxieneko kopurutik behera dago. Hain zuzen ere, 1996an 1.122,70 euro izan zen. 2013ko ordu bakoitzeko ordainsaria 1996ko eta 2000ko erregistroak baino handiagoa da (2013an 8,65 euro, 2000n 8,56 eta 1996an 8,26). Horrek agerian jartzen du batez besteko ordainsari osoak 2009 eta 2013 bitartean izandako beherakadak zerikusia duela kategorია baxu horietan bai lanaren ordu bakoitzeko ordainsariarekin bai batez besteko lanaldiaren murrizketarekin.

15. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

16. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren arabera, ikusten da 2009 eta 2013 bitartean modu nabarmenean narriatu dela gazteen eta 45 urteko eta gehiagoko emakumeen batez besteko ordainsaria, 2013ko prezioetan. 30 urtetik gorako gizonen eta 30 eta 44 urte bitarteko emakumeen batez besteko ordainsariak % 9,5-10 inguruko beherakadak izan ditu. 30 urtetik beherako gizonen artean, berriz, jaitsiera % 18,1ekoa izan da, 45 urtetik gorako emakumeen artean % 19,3koa eta gehienez % 25,5ekoa 30 urtetik beherako emakumeen artean.

Hiru kategoria horiek, era berean, eraginik handiena jasaten dute 2013ko ordainsaria 2004koarekin konparatzean. Hala, 2013ko batez besteko ordainsari erreala 2004koa baino % 1,4 eta % 1,7 bitartean handiagoa da 30 urtetik gorako gizonen eta 30 eta 44 urte bitarteko emakumeen artean. Aldiz, 45 urtetik gorako emakumeen artean jaitsiera % 4koa da, 30 urtetik beherako gizonen artean % 8,4koa eta adin-talde horretako emakumeen artean % 13,4koa.

Prezio konstanteetako ordu bakoitzeko ordainsariaren datuek, hala ere, agerian jartzen dute 2004-2013 epealdian narriadura erlatibo handiagoa izan dela 30 urtetik gorako emakumeentzat, % 5etik gorako beherakadekin. Bilakaera negatibo hori moderatu egiten da, baita konpentsatu ere, lan egindako batez besteko ordu-kopuruarekin, 30 eta 44 urte bitarteko emakumeekin gertatzen den bezala.

8. taula
Soldatapekoak eta antzekoak
Kobratutako azken hilabeteen ordainsari garbiak izandako bilakaera (guztira eta orduka 2013ko prezioetan),
sexuaren eta adinaren arabera. Euskal AE.
Batez bestekoen aldakuntza epealdi jakin batzuetarako, % tan

Sexua eta adina	Ordainketa/guztira		Ordainketa/ordua	
	2009-2013	2004-2013	2009-2013	2004-2013
Guztira	-11,4	1,8	-10,7	0,3
Gizona	-8,6	4,1	-8,8	2,8
Gizona 16-29	-18,1	-8,4	-8,4	10,6
Gizona 30-44	-9,5	1,4	-11,1	-2,8
Gizona 45-64	-9,4	1,5	-9,5	-1,7
Emakumea	-14,1	1,7	-12,5	-2,1
Emakumea 16-29	-25,5	-13,4	-12,0	-2,3
Emakumea 30-44	-10,2	1,7	-10,5	-5,0
Emakumea 45-64	-19,3	-4,0	-18,9	-8,4

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Epe luzerako datuei buruzko hurbilketak agerian jartzen du 30 urtetik gorako gizonek dutela ordainsari osoen artean handiena. Puntu honetan tartea hartzen dute 45 urteko eta gehiagoko emakumeengandik, funtsean ordu gehiagoan lan egin dutelako, baina hurbil daude ordu bakoitzeko ordainsariaren datuak.


30 urtetik gorako gizonen talde horretan, beste alde batetik, 2013ko ordainsaria, 1.707,12 euro, hurbil dago 2004 baino lehenagoko gehieneko kopuruetatik; 2000n gehienekoa 1.713,31 euro izan zen, eta gainditu egiten dira 1996ko nahiz 2004ko kopuruak (1.629,31 eta 1.677,14 euro). 2013ko ordu bakoitzeko ordainsaria, 11,15 euro, 1996koa ere (10,81 euro) baino handiagoa da, baina kasu horretan, 2000koa eta 2004koa baino apur bat txikiagoa da (11,21 euro eta 11,37 euro, hurrenez hurren).

Egoera nahiko antzekoa da 45 urtetik gorako emakumeen artean. Batez besteko ordainsari osoa 2013an 1.317,88 euro izan da, 1996ko 1.269,71 euroak baino handiagoa eta 2000ko eta 2004ko erregistroak baino zertxobait handiagoa soilik. Epealdi hartan gehieneko kopurua 1.373,40 euro izan zen 2004an. Gizonen artean ikusten denaz bestela, 2004an izandakoarekin alderatuta oso negatiboak ez diren erregistro horien oinarri bakarria lanordu kopuruen gorakada besterik ez da. Ordu bakoitzeko ordainsaria, 2013ko prezioetan, emakume-talde horrentzat 2013an 10,55 euro izan da, argi eta garbi 2000. urteko 10,97 euroko erregistroa baino txikiagoa.

Gauza bera gertatzen da 30 eta 44 urte bitarteko emakumeekin. Ordu bakoitzeko ordainsaria 2013an 10,02 euro izan da, kasu horretan 1996ko gutxieneko maila den 10,25 euroko kopurua baino txikiagoa. 2013ko batez besteko ordainsari osoaren 1.267,68 euroak kasu horretan 2004ko 1.246,71 euroak baino gehiago dira, baina etengabeko beheranzko ildoak agertu dute 1996ko 1.372,67 euroekin eta 2000ko 1.357,69 euroekin alderatuta.


2013ko kopurua, beste alde batetik, gutxieneko maila historikora heldu da 30 urtetik beherako biztanlerian, eta batez besteko ordainsari osoa 1.057,99 euro izan da, 1996ko 1.076,35ak baino gutxiago, beraz. Kasu horretan, arrazoiak zerikusia du lanorduen kopuru txikiagoarekin. 2013ko ordu bakoitzeko 9,16 euroak talde horretan 2009ko 10,21 euroek soilik gainditzen dituzte.

17. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

18. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Nabarmentzekoa da konparatuta emakumeen ordainsariak izan duen narriadura. LBI 2013k gizonekin alderatua 1996az geroztik egon den desorekarik handiena jasotzen du. 1996 eta 2004 bitartean % 21,5 eta % 22,8 bitarteko kopuruetan egon zen, eta 2009an batez besteko ordainsari osoaren desoreka % 19,6 soilik izan zen. 2013an % 24,5era heldu zen Ordu bakoitzeko ordainsariari dagokionez, 2000n % 6tik gorako aldeak egon ziren. 2004an, aldiz, aldea % 3,7ra jaitsi zen. Hortik aurrera aldeak gorantz jo zuen, lehenengoz 2009an % 4,4ra, eta gero 2013an % 8,3ra.

Narriadurarik handiena ordu bakoitzeko ordainsarietan agertzen da 30 urtetik beherako eta 45 urtetik gorako emakumeen artean. Alderdi kualitatiboan, aldiz batez ere 45 urtetik gorako emakumeen artean detektatzen da 2009-2013 epealdiarekin lotzen den narriadura. Gizonekin alderatuta dagoen % 10,9ko tartearik ez du aurrekorik 1996az geroztik. 2000n, gehieneko kopurua % 6,3 izan zen.

9. taula

Soldatapekoak eta antzekoak
Emakumeen batez besteko ordainsariaren desorekaren ehunekoa (guztira eta orduka 2013ko prezioetan),
sexuaren eta adinaren arabera. Euskal AE. 1996-2013

	Ordainketa, guztira					Ordainketa/ordua				
	1996	2000	2004	2009	2013	1996	2000	2004	2009	2013
Sexua eta adina	Desoreka	Desoreka	Desoreka	Desoreka	Desoreka	Desoreka	Desoreka	Desoreka	Desoreka	Desoreka
	a	a	a	a	a	a	a	a	a	a
Emakumea	-21,5	-22,8	-22,7	-19,6	-24,5	-6,2	-6,6	-3,7	-4,4	-8,3
Emakumea 16-29	-25,9	-23,3	-19,0	-15,9	-23,5	-10,2	-10,4	1,9	-6,5	-10,1
Emakumea 30-44	-12,6	-17,7	-21,9	-21,1	-21,7	-1,2	-0,1	-2,1	-4,9	-4,3
Emakumea 45-64	-25,2	-24,8	-22,3	-17,5	-26,6	-1,5	-6,3	-4,4	-0,5	-10,9

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Enpresako posizioari buruzko beste alderdi batzuk

Soldatapekoek eta antzekoek ekoizpen-sisteman eta enpresan duten posizioari dagokionez, nabarmendu beharreko beste alderdi batzuk jarraian zehaztuko dira.

Lana mantendu duten pertsonen artean, euskal ekoizpen-sistemak oraindik sustapenerako aukera gehiago eskaintzen ditu posizioak galtzeko arriskua baino

2013an lanpostua mantendu zuten soldatapekoen eta antzekoen artean, eta enpresan posizioen jarraitasuna nagusi izanik, euskal ekoizpen-sistemak oraindik ere aurrera egiteko aukera gehiago eskaintzen ditu atzera egiteko baino (jakina, enplegutik botatzeko arriskua alde batera utzita). Aztertutako biztanleriaren % 38,7k une batean edo bestean enpresan sustapena izan du, edo, ordainsarien hobekuntzarik lotua izan ez arren, erantzukizun handiagoak hartu ditu bere gain (% 28,3 eta % 10,5 hurrenez hurren). Posizioak galdu dituztenak, aldiz, ozta-ozta % 2,5 izan dira. Azken lau urteotan proportzio horrek gora egin du 1,4 puntu, baina 2009an ikusitakoetatik oso urrun ez dauden kopuruak dira (% 30,5, % 8,8 eta % 1,1), eta sustapenarekin lotutako maileri dagokienez hobeak dira 2004koak baino. Urte hartan, okupazioaren kopuruak gaur egungoak baino txikiagoak izan ziren (% 25,7, % 7,5 eta % 1).

19. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Ikastaroetan sartzeko aukerak kopuru handiak mantendu ditu


Barne sustapeneko prozesuei lotutako alderdietako bat prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko aukera da. 2004ra arte gehieneko kopurua % 21 izan zen. Horren aldean, 2013an lanerako ikastaro garrantzitsuak egiten dituzten biztanleen proportzioa % 24,7 izan zen, 2009ko % 25,8tik oso urrun ez dagoen proportzioa. Gainera, 2013an jarduera horiek egiteko enpresak emandako babes gehieneko kopurura heldu zen; enpresek jardueren % 84,5ean eman zuten laguntza. Hala, 2004ra egondako goranzko joera areagotu zen, baina 2009an apur bat atzera egin zuen.

Soldata aldakorraren sistemak gorantz jo du, baina gutxien aukera da oraindik ere

Soldata aldakorra duten soldatapeko eta antzekoen proportzioa 2004an gutxieneko kopurura heldu zen, % 9,6ra. Gerora proportzio horrek gora egin zuen, 2009an % 10,6ra heldu zen, eta 2013an % 11,2ra. 1996ko kopuru berbera da, eta 2000ko % 14,3ak soilik gainditzen du.

2004az geroztik ikusitako gorakadak lotura du errendimendu pertsonalagatiko edo lantaldearen errendimenduagatiko osagarrien pisu erlatibo handiagoarekin.

20. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Soldata aldakorraren garrantziak 2004 eta 2013 bitartean izan zuen goranzko joerak lotura du lan-eduki jakin batzuekin. Lan-eduki horien ezaugarria zen 2004an adierazle horretan Euskal AEko batez besteko mailaren azpitik zeudela. Gorakada 1,6 eta 2,9 ehuneko puntu bitartekoa da 2013an artean posizio horretan zeuden esparruetan. Hain zuzen ere, esparru horiek zerikusia dute bulegoko lanaren kategoria guztiekin eta osasuneko goi-mailako tituludunekin. Gorakadarik handiena industria-ekoizpenaren

kategoria altu eta ertainei dagokie. Esparru horretan, % 15,1ekin, Euskal AEko 2013ko batez besteko kopurua gainditzen da, 2004ko % 7,7tik 7,4 puntu gora egin ondoren.


Osagarri aldakorra duten soldatapekoen eta antzekoen goranzko joera gorabehera, jaitsi egin da osagarri horri lotutako diru-sarreraren ehunekoa, 2009ko % 14,3tik 2013ko % 9,2ra.

Aldiz, behera egin du ordaindutako aparteko orduen eraginak, eta gora egin du ordaindu gabeko aparteko orduenak

Krisiaren eraginez behera egin du ordaindutako aparteko orduak egiten dituzten soldatapekoen kopuruak. Proportzioak 1996 eta 2004 bitartean gora egin zuen % 18,1etik % 20,1era, eta 2009an behera egiten hasi zen, % 17,4rekin. Ehuneko hori % 14,4raino jaitsi zen 2013. urtean. Jaitsierarik handiena hori salbuespen gisa ez baizik eta sarritan edo muturreko aldietan egiten duten pertsonen kopuruarena da. Kasu horretan, 2009ko % 8,9 eta % 10,7 bitarteko ehunekoetatik 2013ko % 5,9koetara jaitsi da.

Aldiz, ordaindu gabeko aparteko orduak 2004an % 14,9 eta % 16,1 bitarteko ehunekoetan zeuden, baina 2009an % 13,2an. 2013an, berriz, soldatapekoen % 23,9k egin zituen ordu horiek.

21. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Behera egin du enplegu-aniztasunaren eraginak. Berriro ere, zerikusia du iraupen mugagabeko kontratazioaren faltarekin

Krisiaren ondorioetako bat enplegu-aniztasunaren eraginaren beherakada da. Ordaindutako enplegu bat baino gehiago duten soldatapekoak 2009an 40.960 ziren. 2013an, aldiz, 20.045. Kopuru

erlatibotan, horrek esan nahi du % 5etik % 2,6rako beherakada egon dela soldatapekoen eta antzekoen bolumen osoan. Jaitsiera hori gorabehera, enplegu-aniztasunaren pisua 2004koa baino handiagoa da. Urte hartan 16.508 pertsona egon ziren egoera horretan, LBlk aztertzen duen biztanleriaren % 2,2.


Jaitsiera nagusia iraupen mugagabeko kontratazioa ageri den egoerei dagokie. Egoera horietan, egoera horretan dauden pertsonen kopuruak behera egin du 2009 eta 2013 bitartean, 27.491tik 7.144ra (hala ere 2004ko 5.319 kasuak baino gehiago dira). Aldiz, nahiko egonkorra da enplegu anitzak dituzten eta iraupen mugagabeko kontraturik ez duten pertsonen kopurua. 2004 eta 2009 bitartean kasuen kopuruak gora egin zuen 11.188tik 13.469ra, baina 2013an kopuruak 12.900era soilik egin du behera.

Kopuruek erakusten dutenez, 2013an neurri handi batean 2004ko egoerara itzuli gara. Enplegu-aniztasunaren eragina, kasuen bi heren baino gehiagoan, iraupen mugagabeko kontrataziorik ezarekin lotzen da (2004an % 67,8, eta 2013an % 64,4). 2009ko enplegu tekniko osoaren fasean, aldiz, enplegu-aniztasunaren fenomeno iraupen mugagabeko kontratazioen egoerarekin lotuago zegoen, eta errealitate horiek enplegu-aniztasuneko egoeren % 67,1 ziren.

Gora egin du sindikatueta afiliazioak

2013an ikusi da 1996az geroztik sindikatueta afiliazioak gora egin duela, % 28,1ekin. Proportzio horrek 1996ko % 27,1 gainditzen du, baita 2000 eta 2009 bitarteko % 25 inguruko kopuruak ere.

22. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


2009 eta 2013 bitartean ehuneko 7,1 eta 12,7 bitarteko gorakadak egon ziren. Neurri handi batean, gorakada horrek zerikusia du zuzendaritzako langileekin, osasuneko eta irakaskuntzako goi-mailako tituludunekin eta bulegoko lanarekin lotutako kategoria baxuekin.

Afiliazioaren gorakada orokorrean ez da lotzen bizitza sindikaleko partaidetza aktiboaren gorakadarekin, baina osasuneko eta irakaskuntzako goi-mailako tituludunen eta bulegoen sektoreko langileen artean partaidetza-maila horiek gora egin dutela ikusi da.

Gora egin du enpresan euskararen erabilerak, baina ohiko erabilera oraindik ere gutxienezkoa da

2013an, euskara lanean sarritan erabiltzen duten soldatapekoen proportzioaren goranzko joerak jarraitu du. 2000-2000 aldian % 22 inguruan egon zen; horren ostean, proportzio horrek gora egin du, 2009an % 26,4ra eta 2013an % 29ra. Lehenengo aldiz, euskara ez dakiten pertsonen proportzioa gutxienezkoa izan da 2013an, % 45,9.

23. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Erabilera nagusia irakaskuntzako goi-mailako tituludunen artean soilik gertatzen da oraindik ere. Eremu horretan % 80 ingurukoa izan da 2013an. Aldiz, euskararen erabilerak nabarmen atzera egin du osasunaren sektoreko mota bereberko tituludunen artean.

3. LANAREN ANTOLAKETA

2009-2013 epealdian lanaren antolaketak izan duen bilakaeraren ezaugarria funtsezko alderdi batzuetako egonkortasun handia izan da. Egonkortasun hori nagusi da goragoko arduradun baten mendean kategoria berean dauden edo lan berbera egiten duten pertsonen kopuruari dagokion dinamikan, bai eta lanpostuen arteko txandakatzeen zereginetan, horietarako arrazoiak barnean direla. Hala ere, aldaketa esanguratsu batzuk ikusi dira, eta jarraian azalduko dira.

2009 eta 2013 bitartean gora egin du 30 ordu baino gutxiago irauten duen lanaren eta lanaldi partzialeko lanaren eraginak

30 ordu baino gutxiago irauten duten lanaldien gorakada

2009 eta 2013 bitartean ikusitako aldaketarik deigarrienetako bat da astean 30 ordu baino gutxiagoan lan egiten duten soldatapekoen eta antzekoen gorakada. Talde horretan kopuruak gora egin du, 2009ko 124.853 pertsonetatik 2013ko 142.533etara. 2009an soldatapekoen % 15,4 ziren, eta 2013an % 18,2.

Hala ere, zehaztu behar da gorakada horrek neurri handi batean zerikusia duela lan egiteko modu horrek 2009an izan duen eraginaren beherakadarekin. Hain zuzen ere, 2004an, egoera horretan 130.876 pertsona detektatu ziren, eta ez zen agertzen 2013ko egoera, baizik eta lan mota horrek 1996az geroztik izan zuen gorakadaren lehengoratzeara. Urte hartan, 30 ordu baino gutxiagoan lan egiten zuten pertsonen proportzioa % 12,1 zen. 2004an gora egin zuen % 14,2ra arte, eta gorakada azkartu egin zen 2009ko % 17,3ra arte. 2009ra arte erregistratutako bilakaerarekin konparatuz gero, 2013ko % 18,2 horrek argi eta garbi gorakada agertzen du baldin eta 2009ko % 15,4rekin konparatzen badugu. Hala ere, erregistro hori ez da batere ohikoa 2009 baino lehenagoko bilakaeraren testuinguruan.

30 ordutik beherako lanaren pisu erlatiboaren gorakadak batez ere 35 eta 39 ordu bitarteko iraupena duten lanei eragiten die. Lan-forma horien pisua 1996 eta 2009 bitartean aztertutako biztanleriaren % 12,7tik % 22ra igo zen. Aurrerakada etengabea gertatu da, 72.321 landunetik 178.930era. Hala ere, 2013ko kopuruak behera egin du 148.586ra.

2009 eta 2013 bitartean, beheranzko joerak ñabardura handiagoak dauzka 30 eta 34 ordu bitartean edo 40 eta ordu gehiagoan lan egiten duten pertsonen artean, baina agertu egiten da, bai kopuru absolututan bai erlatibotan; hala, jarraitu egin du 2004az geroztik agertu den beheranzko joerak. 2004. urte hori erreferentzia gisa hartuz gero, hain zuzen ere, behera egiten du % 67,3tik % 62,9ra lanaldi horien pisuak (508.742 pertsonatik 493.155era kopuru absolututan), eta 35 eta 39 ordu bitarteko lanaldiaren garrantzia handiagoa da, duela gutxi behera egin zuen arren. Lanaldi mota horren pisuak gora egin du % 15,4tik % 18,9ra (116.680 kasutatik 148.586ra). Gorakada hori 30 ordu baino


gutxiagoko lanaldiarena baino txikiagoa da. Azken hori, 2004 eta 2013 bitartean guztien % 17,3tik % 18,2ra igaro da (130.876 kasutatik 142.533tara).

10. taula
Soldatapekoak eta antzekoak. Normaltasunez lan egindako azken asteko lan-orduak. EAE. 1996-2013
Datu absolutuak

	Guztira	< 30 ordu	< 20 ordu	20 eta 29 ordu bitartean	30 - 39 ordu bitartean	30 - 34 ordu bitartean	35 - 39 ordu bitartean	40 ordu edo gehiago
Urtea	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.
1996	568.000	68.998	33.792	35.206	117.911	45.590	72.321	381.091
2000	680.971	96.917	37.532	59.385	158.702	56.610	102.092	425.352
2004	756.298	130.876	54.560	76.315	182.772	66.091	116.680	442.650
2009	812.857	124.853	45.989	78.864	247.533	68.603	178.930	440.471
2013	784.274	142.533	62.369	80.164	214.066	65.480	148.586	427.675

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

24. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Hala ere, 2009-2013 bitartean aldaketa nabarmena ikusi da iraupen laburragoko lanaren bultzadarekin lotuta dagoen guztian. 2004ra arte, 20 eta 29 ordu bitarteko lan-formek gora egin zuten. 2009-2013 epealdian, aldiz, funtsean gora egin du 20 ordu baino gutxiagoko lanak. Hala, 20 eta 29 ordu bitarteko lanekin lotutako enpleguaren bolumena 2004an % 10,1 zen, baina gerora ia ez da aldatu kopuru erlatibotan. 2009an % 9,7 izan zen, eta 2013an, berriz, % 10,2. Aldiz, 20 ordu baino gutxiagoko lanen % 8ko kopurua 2013an ehuneko 2,3 puntu handiagoa izan da 2009ko % 5,7 baino. 200ko % 7,2tik ez


da gehiegi urruntzen, baina lan-mota hori iraupen laburragoko lanen gorakada azaltzen duen faktore erabakigarria da.

Lanaldi partzial soileko lanaren gorakada erlatiboa are handiagoa da

Aurreko atalean aurkeztutako datuak ñabartu egin behar dira, kontuan hartuta jarduera-esparru eta adar batzuetan ohikoa baino iraupen laburragoa duten lanaldiak, 35 eta 40 ordu bitartekoak, jarduera-formen normaltasunaren barruan egon ahal direla. Jardueraren esparru espezifiko lanaldi arruntarekin alderatuta denbora murriztuko formak detektatzen diren kasuak kontuan hartuta, lanaldi partzialeko lanaren neurketarako doituagoa dagoen hurbilketa, duela gutxiko bilakaerak erakusten du fenomenoak gorakada nabarmenagoa izan duela. 2000ko % 5,7tik hasita, proportzioak 2004an gora egin du % 9,7ra, eta 2009an % 10,7ra. 2013an, fenomenoak izandako bultzadaren ondorioz, lanaldi partzial edo murriztuko lana % 16 da.


Kopuru absolututan, horrek esan nahi du 2000n egoera horretan zeuden 39.141 pertsonetatik 2004an 73.468ra igaro zirela, 2009an 86.631ra eta 2013an 125.461era. 2013an lanaldi osoan lan egin duten 658.813 pertsonak argi eta garbi 2009ko 726.226ak baino gutxiago dira, baina 2004ko 682.830ak baino gutxiago ere bai, eta 2000ko 641.830ak soilik gainditzen dira. Beraz, funtsezko aldaketa izan da, eta 2009-2013 epealdiko gertakariekin lotzen da.

25. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

26. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lanaldi partzial edo murriztuko lan-formek gora egin duten talde nagusiak


30 ordu baino gutxiagoko lan-formen gorakada aztertzean kontuan hartu behar da lan-edukia eta soldatapekoen egitura, sexuaren eta adinaren arabera.

Lan-edukiari dagokionez, zera egiaztatzen da: 2009-2013 epealdiko lanaldi partzialeko lanaren gorakada askoz txikiagoa da Euskal AEko batez bestekoa baino lanaren esparru askotan. Hori gertatzen da zuzendaritzako zereginetan, merkataritzako lanarekin edo hirugarren sektoreko ekoizpenarekin lotutako kategoria altu eta ertainetan, industria-ekoizpeneko jardueretan orokorrean eta beste zeregin batzuetan. Lan-eduki horietan aritzen diren soldatapeko guztien artean, lanaldi partzialeko lanaren eraginak gora egin du etengabe 2000ko % 2,5etik, baina 2013an ez du gainditu % 7,2. Astean 30 ordu edo gutxiagoan lan egiten duten pertsonen proportzioak are gutxiago egin du gora, 1996ko % 5,9tik 2013ko % 8,2ra. Kopuru hori txikiagoa da 2004ko % 9,4ko gehieneko kopurua baino.

Aztertutako lan-edukien multzoarekin alderatuta lanaldi partzialeko lanak egiten duen % 7,2 horren aldean, bulegoko jardueretan, irakaskuntzako eta osasuneko goi-mailako titulazioetan edo merkataritzako eta hirugarren sektoreko ekoizpeneko esparruetako kategoria baxuetan kopuruak % 15etik gorakoak dira.

27. grafikoa

Soldatapekoak eta antzekoak: Lanaldi partzialeko lanaren edo lanaldi murritzuko lanaren eraginaren adierazleak, lan-edukiaren arabera. Euskal AE. 1996/2000-2013
(Talde bakoitzeko biztanleriaren %tan)




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

28. grafikoa

Soldatapekoak eta antzekoak: Lanaldi partzialeko lanaren edo lanaldi murriztuko lanaren eraginaren adierazleak, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal AE. 2000-2013

(Talde bakoitzeko biztanleriaren %tan)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Baina lan-eduki horietan ere ñabardura batzuk egin behar dira. Irakaskuntzako goi-mailako tituludunen kasuan, 2013ko lanaldi partzialeko lanaren % 18,9 horrek benetan gorakada nabarmena dakar 2009ko % 10,7rekin alderatuta, baina 2004ko % 20,6tik behera dago. Astean 30 ordu baino gutxiagoan lan egiten duten pertsonen proportzioa kontuan hartzen bada, gainera, 1996 eta 2004 bitartean % 24,7tik % 35,4ra gora egin ondoren, proportzioak apurka behera egin du 2013ko % 23ra arte. Hain zuzen ere, hori gutxieneko kopurua da 1996tik.

Bulegoko jardueretan eta osasuneko goi-mailako tituludunen artean, aldiz, lanaldi partzialeko lanaren garrantziaren gorakadak eragin handia izan du 2009 eta 2013 bitartean. Lehenengo kasuan, 2004ko eta 2009ko % 8 inguruko kopuruetatik 2013ko % 15,4ra igaro da; bigarren kasuan 2004ko % 11,3tik behera egin du, 2009an % 6,7ra eta 2013an % 19,5era igaro da. Lan-eduki horietan, hala ere, ikusten da 30 ordutik beherako lanaldiaren pisu erlatiboa 2013an txikiagoa izan dela 2004an baino (% 15,3 % 16,8ren aldean, bulegoko jardueretan; % 16,0 % 20,5en aldean aztertutako osasuneko profesionalen artean), nahiz eta 2009ko proportzioa argi eta garbi gaititu (% 9,6 eta % 13,4, hurrenez hurren).

Merkataritza jardueraren eta hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria baxuetan, azkenik, lanaldi partzialeko lanak 2009-2013 epealdian izandako gorakada handiak luzatu egin du joan den mendearen amaieratik ikusi den goranzko joera nabarmen eta jarraitua. Kasu horretan, lanaldi partzialeko lanaren pisu erlatiboak 2000 eta 2009 bitartean gora egin zuen % 13,2tik % 23ra, eta 2013an goreneko mailara heldu zen, % 31ra. 30 ordutik beherako lanaldien pisuak, bestalde, gora egin zuen % 26,1etik % 31,1era 1996 eta 2004 bitartean. 2009an % 29,1era jaitsi ondoren, 2013an goreneko mailara heldu da berriro, % 36,7ra. Hala ere, kategoria horietan, fenomenoak 2009 eta 2013 bitartean izan duen gorakada alderdi kualitatiboan oso diferentea da 1996 edo 2000 eta 2004 artean ikusi zenarekin alderatuta.

Sexuaren eta adinaren faktorea kontuan hartzen bada, egiaztatzen da lanaldi partzialeko eta murriztuko lanak izan duen gorakada ia-ia etengabea izan dela talde batzuetan eta besteetan, aldagai horien eraginpean.

Hala ere, talde batzuetan, adibidez 30 urteko eta gehiagoko emakumeekin gertatzen den bezala, 2009-2013 epealdiko gorakada ez da handiagoa, beste epealdi batzuetan egondakoa baino. Hala, 45 urteko eta gehiagoko emakumeen kasuan, 2000-2004 epealdian % 10,4tik % 15,1era egondako gorakada, kopuruen alderdian, garrantzitsuagoa da 2009ko % 16,1etik 2013ko % 20,3ra gertatutakoa baino. Hori are agerikoagoa da 30 eta 44 urte bitarteko emakumeei dagokienez. Lanaldi partzialeko lanak % 20,7tik % 29,9ra izandako gorakada deigarria izan da 2009 eta 2013 bitartean, baina lehenago jaitsiera izan zen 2000ko % 24,6tik. Gorakada hori, gainera, argi eta garbi txikiagoa izan da 2000-2004 epealdikoa baino. Epealdi hartan, % 10,7tik % 24,6ra igaro zen.

30 urtetik gorako gizonen artean, ikusi da 2009-2013 epealdian lanaldi partzialeko lanak bultzada argia izan duela, baina 2013an lanaldi partzialeko lanaren kopurua soilik % 4,8 dela.

Benetan, lanaldi partzialeko lanaren gorakada esanguratsu eta diferentziala 30 urtetik beherako biztanleriaren artean soilik detektatzen da, eta modu espezifikoagoan, adin-talde horretako emakumeen artean. 30 urtetik beherako gizonen kasuan, 2000 eta 2004 bitartean proportzioa % 3 edo gutxiago izan zen; 2009an gora egin zuen % 7,1era, eta 2013an % 13,7 izan da. 30 ordutik beherako lanaldiaren proportzioak markatzen dituen diferentziak ez dira hain deigarriak, 2013an % 12,4 izan zen, eta hori ez da gehiegi aldentzen 1996ko eta 2000ko kopuruetatik (% 10), eta gainera 2009ko % 13,3ren azpitik dago.

2013an lanaldi partzialeko lanaren nahiz 30 ordutik beherako lanaldiaren gehieneko eragina 2013an talde bakar batean gertatu da, 30 urtetik beherako emakumeen taldean. Kasu horretan, lanaldi partzialaren eragina 2000ko eta 2004ko % 17-18ko kopuruetatik 2009ko % 22,2ra igo zen, eta gero 2013an gora jo zuen % 39,8raino. 30 ordutik beherako lanaldien % 43,8 horrek ere lehenagoko gehieneko maila (1996ko % 32,1) gainditu du.

2009 eta 2013 bitartean lanaldi partzialeko lanaren gorakadak izan dituen ondorioak


Lanaldi partzialeko lanaren gorakada enpresa-politika baten ondorioa da. Gehienetan, gauzatu nahi ez den politika baten ondorioa

2009-2013 epealdian lanaldi partzialeko lanak izan duen bultzada gehienbat enpresa-ekimenaren ondorioz sortu da. Lanaldi partzialeko lanaren arrazoa aztertuta, enpresaren beharrianengatik lanaldia murriztea (beharrian horien artean daude enplegua erregulatze prozesuak), 2009an ezaugarria zen lanaldi partzialeko lan-formen % 56,5en; 2013an, aldiz, % 70,5en. 2013an 88.432 pertsona zeuden egoera horretan. Lehenagoko gehieneko kopurua 2004an gertatu zen, 49.367 pertsona.


Aldiz, behera egin du ekimen pertsonalari eta uztartzeko prozesuei lotutako faktoreen garrantziak. Faktore horiek, era berean, lanaldi partzialaren gorakadan lagundu zuten 2009ra arte, bereziki 2004-2009 epealdian. Hala, prozesu horiek 2000n ezaugarria ziren lanaldi partzialeko lan-formen 17,9n, eta 2009an % 34,2n. Proportzio horrek 2013an behera egin zuen % 25,1era, 2004ko % 25,3aren antzekoa den mailara.

Ekimen pertsonalari edo adingabeen arretarekin zerikusia duten uztartze-prozesuei lotutako lanaldi partzialeko prozesuek garrantzi erlatiboa galdu dute, baina horrek ez du esan nahi kopuru aldetik prozesu horiek garrantzia galdu dutenik. Hain zuzen ere, 2013an, eta 2009az geroztik soldatapekoen eta antzekoen bolumenak behera egin duen arren, egiaztatu da arrazoi horiengatik lanaldi partziala aukeratzen duten pertsonen bolumenak gora egin duela: 31.480 kasu, eta horren aldean 2009an 29.601, 2004an 18.605 eta 2000n 6.990.

29. grafikoa




30. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Kasuen % 55,8n, 2013an lanaldi partzialean lan egin duten biztanleek ordu gehiagoan lan egin nahi zuten, 2009ko % 46,3 eta 2004ko % 49,4 baino gehiagok. Kopuru absolututan, aldiz, 2009-2013 epealdiak ekarri duen aldaketa argiago ikusten da. Hala, lanaldi partzialean lan egiten duten eta ordu gehiagoan lan egin nahi duten biztanleak 2004an 36.273 ziren, eta 2009an 40.081. 2013an, aldiz, 69.964 izan dira.

31. grafikoa



32. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lanaldi partzialean lan egiten duten biztanleen artean, nabarmendu behar da gora egin duela etengabe ekoizpeneko kategoria baxuetan (industrian edo hirugarren sektorean) ordu gehiagoan lan egin nahi duten pertsonen proportzioak. Aztertutako proportzioak apur bat behera egin zuen 2009 eta 2013 bitartean, baina errealitate hori orokorrean beste arlo batzuetara hedatu ahal da. Hiru esparru horietan ordu gehiagoan lan egin nahi duten pertsonen proportzioa % 60ra hurbiltzen da edo kopuru hori gainditzeko du. Multzoan hartuta, lan-eduki horietan, lanaldi partzialean lan egiten duten eta ordu gehiagoan jarraian lan egin nahi duten pertsonen proportzioak gora egin du etengabe 2004tik aurrera, urte hartako % 46,2tik 2008ko % 56,1era eta 2013ko % 69,5era.

Nabarmentzekoa da, halaber, merkataritza- eta bulego-jardueren kategoria baxuetan lanaldi partzialean lan egiten duten eta ordu gehiagoan lan egin nahi duten langileen proportzioaren gorakada (2013an % 56,8, eta 2009an % 43,7). Kasu horretan, hala ere, erreferentziako proportzioa 2004koa soilik baino apur bat handiagoa da (% 54,3). Kategoria altu eta ertainetan, 2009tik 2013rako igoerak (% 37,1etik % 43,8) adierazlea 2004ko % 48,2ren azpitik jartzen du.

33. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2009 eta 2013 bitartean nabarmen gora egin du 45 urtetik gorako emakumeen artean lanaldi partzialean lan egiten duten eta ordu gehiagoan lan egin nahi dutenen proportzioak. Hala, luzatu egin da 2004 eta 2009 bitartean indar apalagoaz ikusi zen joera. Hala, adierazleak kasu horretan gora egin du, 2004an % 37,9 zen, 2009an % 43,6, eta 2013an, berriz, % 51,8.

Hala eta guztiz ere, argi dago nahi ez diren lanaldi partzialeko egoeren gorakadak batez ere gizonei eragiten diela 2009-2013 epealdian. Hala, 2004 eta 2009 bitartean, ordu gehiagoan lan egin nahi zuten lanaldi partzialeko gizonen proportzioak % 45,9tik % 49,2ra gora egin zuen, eta 2013an proportzioa % 73,8raino igo da.

45 urtetik beherako emakumeen artean, aldiz, 2009-2013 epealdiko gorakada apur bat apalagoa da, % 46,4tik % 51,4ra. Proportzio hori txikiagoa da 2004ko % 52,4 baino.

34. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Batez besteko lanaldia 2009 eta 2013 bitartean laburtu da, baina funtsean egoerak bere horretan iraun du 2004arekin alderatuta

Gora egin dute 30 ordutik beherako lanaldiek, baina batez besteko lanaldia 2009 eta 2013 bitartean laburtu egin da 36,6 ordutatik 35,8ra. Hala ere, zera esan behar da: 2009ko kopuruak joera-aldaketa ekarri zuen 2004ra arteko bilakaerarekin alderatuta, laneko batez besteko denbora laburtu egin zelako. Han zuzen ere, batez besteko lanaldia 1996ko 37,5 orduetatik 2004ko 36 orduetara igaro zen. Benetan, beraz, 2013ko 35,8 orduak gauza bakarra esan nahi dute, 2009ko gorakadaren ostean azken hamarkadaren erdialdean detektatutako 36etara hurbiltzen garela.

Batez besteko lanaldiari dagokionez, ikusten da dinamika diferentea dagoela txandakako lana dagoen ala ez kontuan hartuta. Txandaka egiten ez den lanean 2013an batez besteko lanorduen beheranzko joera berriro hasi zen. 2013an gutxieneko kopurua jo zen, batez beste 35 orduz lan egin baitzen (2004an 35,5, eta 2009an 35,9). Aldiz, txandakako lanean, 2009tik 2013ra batez besteko lanorduetan egondako beherakada (2009an 39 ordu, eta 2013an 38,3 ordu) ez da nahikoa 2004ko batez besteko 37,8 orduen azpitik geratzeko.

Batez besteko lanaldiak 2004 eta 2013 bitartean izan duen bilakaera konparatuta, 1,5 puntutik gorako jaitsierak ikusten dira soilik 30 urtetik beherako pertsonen artean, eta lan-motaren arabera, merkataritza-jardueretan eta kategoría baxuko hirugarren sektoreko ekoizpenean. Aldiz, batez besteko lanaldia ehuneko puntu bat baino gehiago igo da zuzendaritzan eta osasunarekin, irakaskuntzarekin eta ekoizpenarekin lotutako kategoría altu eta ertainetan, bai industriaren esparruan bai hirugarren sektorean.

35. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

11. taula

Soldatapekoak eta antzekoak
Normaltasunez lan egindako azken asteko lan-orduen batez bestekoa, lan-edukiaren arabera. Euskal AE.
1996-2013

	1996	2000	2004	2009	2013
Lan-edukia	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa
Guztira	37,5	37,1	36,0	36,6	35,8
L1 Zuzendaritza	40,4	40,4	39,5	38,9	41,0
L2 Irakaskuntza (goi-mailako titulazina)	30,7	29,5	28,7	30,1	31,6
L3 Osasuna (goi-mailako titulazina)	37,9	36,1	33,7	36,0	34,7
L4 Bulegoa (kategoria altua eta ertaina)	38,2	37,2	36,2	36,1	36,7
L5 Merkataritza (kategoria altua eta ertaina)	38,0	37,4	38,2	36,2	36,1
L6 Industria-ekoizpena (kategoria altua eta ertaina)	40,7	39,8	39,2	40,2	40,3
L7 Hirugarren sektoreko ekorniznena (kategoria altua eta ertaina)	39,4	38,8	36,6	39,4	38,7
L8 Bulegoa (kategoria baxua)	36,0	37,9	34,4	35,9	34,4
L9 Merkataritza (kategoria baxua)	35,6	35,0	33,8	35,3	32,0
L10 Industria-ekoizpena (kategoria baxua)	39,4	40,1	39,5	38,4	39,4
L11 Hirugarren sektoreko ekorniznena (kategoria baxua)	33,3	33,0	32,1	32,9	30,4
L12 Bestelako zereginak	38,3	37,3	36,0	40,9	37,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

12. taula
Soldatapekoak eta antzekoak
Normaltasunez lan egindako azken asteko lan-orduen batez bestekoa, adinaren eta sexuaren arabera.
Euskal AE. 1996-2013

	1996	2000	2004	2009	2013
	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa
Sexua eta adina					
Guztira	37,5	37,1	36,0	36,6	35,8
Gizona	39,7	39,6	38,7	39,2	39,0
Gizona 16-29	39,1	39,0	39,1	37,7	36,4
Gizona 30-44	39,9	39,6	38,9	39,5	39,6
Gizona 45-64	39,9	40,0	38,3	39,6	39,1
Emakumea	33,5	33,2	32,3	33,4	32,3
Emakumea 16-29	32,1	34,0	33,2	33,9	29,1
Emakumea 30-44	35,0	33,0	31,8	33,4	32,6
Emakumea 45-64	32,0	32,5	32,3	33,0	32,9

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Asteko lan- eta atsedeen-jarraibide atipikoek gora egin dute

2009 eta 2013 bitartean gora egin dute nabarmen asteko lan- eta atsedeen-jarraibide atipikoak agerian jartzen dituzten egoerek.

Larunbatetan edo igandeetan egindako lanak gora egin du modu nabarmenean

Nabarmendu beharreko lehenengo alderdia da larunbat eta/edo igandeetan egindako lanak gorakada handia izan duela. 1996 eta 2009 bitartean, egun horietan lan egin behar zuten soldatapekoen eta antzekoen proportzioa orokorrean % 36,2 eta % 37,3 bitartean geratu zen, baina 2000n muturreko kopurua jo zuen, % 38,5. 2013an, aztertutako egoera modu deigarrian hedatu zen, eta soldatapekoen % 43,4ren ezaugarri bihurtu zen.

Bilakaera horrek oso lotura zuzena dauka larunbatetan egindako lanarekin. Horren kopuruak 1996 eta 2009 bitartean % 35 eta % 37,4 bitartean egon ziren, baina 2013an % 41,9ra heldu ziren; dena dela, nabarmentzekoa da igandeetan lan egiteko joera gero eta handiagoa. Iragan hamarkadaren erdialdera arte aurrerakada apala izan zuen, 1996ko % 18,2tik 2004ko % 19ra, baina ehunekoak gora egin zuen 2009an % 21,6ra eta 2013an % 26,2ra.


Larunbat eta igandeetan egindako lanaren gorakada handiaren ondorioz, 2009 eta 2013 bitartean batez beste ehuneko 12,1 puntu igo da industria arloko zuzendaritza eta ekoizpenari lotutako lan-edukietan. 2000 eta 2009 bitartean % 35,2tik % 28,9ra jaitsi ondoren, ehunekoak bat-batean gora jo zuen 2013an, % 41era. Ehuneko hori 5,8 puntu handiagoa da 2000ko gehieneko kopurua baino. Aldakuntza hori 5

puntukoa da larunbatetan egindako lanari dagokionez (2000n % 34,1, eta 2013an % 39,1), eta 6koa igandeetan egindako lanari dagokionez (% 16,1en aldean % 22,1).

2004. urtea erreferentzia hartuta, gorakada era berean deigarria da merkataritza-lanarekin eta beste zeregin batzuekin lotutako kategoria altu eta ertainetan. Kasu horretan ikusten da larunbat edo igandeetan egindako lanak etengabe gora egin duela, 2004ko % 46,etik 2013ko % 55,2ra. Hala ere, kategoria horietan, lehenagoko jaitsiera oso nabarmena izan zen 2004ra arte, 1996ko eta 2000ko % 56tik gorako kopuruetatik. Industria arloko zuzendaritza eta ekoizpenean gertatzen denaz bestela, 2013an larunbat edo igandeetan egindako lanaren kopuruak oraindik ere bi urte horietakoen azpitik daude. Errealitate hori bereziki egiaztatzen da larunbatetan egindako lanaren kasuan. Igandeetan egindako lanari dagokionez, hala ere, 2013ko % 38k 2000ko % 33,4 gaitzen du, eta 1996ko % 38,9tik oso hurbil geratzen da.


Larunbat edo igandeetan egindako lanaren eragina txikiagoa da gainerako lan-eremuetan, alde batera utzita osasun arloko goi-mailako tituludunen artean, baina kasu honetan 2013a jauzi kualitatibo argia da. Hala, adierazlea egonkor samarra izan zen –% 35,1 eta % 36,5 inguruan– baina gerora, 1996-2009 epealdian, proportzioak gora egin zuen % 36,1etik % 40,5era 2009 eta 2013 bitartean. Azken kopuru hori 1996ko kopurua baino 5,4 puntu handiagoa da. Aldakuntza hori 4,8 puntu da larunbatetan egindako lanari dagokionez. Horretan, gehieneko kopurua 2013koa izan zen, % 39. Igandeei dagokienez aldea askoz handiagoa da, 8,1 puntukoa. Hain zuzen ere, lan-eduki horietan, ikusten da igandeetan egindako lanak etengabe gora egin duela, eta 1996ko % 15,1etik 2013ko gehieneko kopurura, % 23,2ra igaro dela.

36. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

37. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

38. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Orain arte esandakoaren aldean, eta larunbat edo igandeetan egindako lanak duen eragina gorabehera, epe luzean osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean eragina txikiagoa da. Hain zuzen ere, 2013ko % 55 argi eta garbi 1996ko % 66,4 baino txikiagoa da. Proportzio hori 2000ko % 54 baino ehuneko puntu bat handiagoa da, baina 2004ko % 58,9 eta 2009ko % 57,3 baino txikiagoa da. Dinamika horrek lotura zuzena dauka larunbatetan egindako lanaren bilakaerarekin, eta horrekin alderatuta, beste alde batetik 2004az geroztik gora egin du igandeetan egindako lanak. 1996 eta 2004 bitartean behera egin zuen % 47,1etik % 42,7ra. Urte hartatik aurrera, igandeetan egindako lana gora egiten hasi zen osasunaren arloko kualifikaziorik handieneko langileen artean, eta 2013an gehieneko kopurura heldu da, % 49,4ra.

Larunbat eta/edo igandeetan egindako lanaren gorakadak sexu eta adin talde guztiei eragiten die. Hala ere, 2009-2013 epealdiko gorakadak batez ere 30 urteko edo gehiagoko gizonari eragiten die, bai eta adin horretatik behera dauden emakumeei ere. Adierazlea 1996 eta 2009 bitartean egonkorra izan zen, % 35,2 eta % 37 bitartean. Gerora, lehenengo kasuan, 2009ko % 35etik 2013ko % 46ra igaro da, eta igoera 11 puntukoa izan da. Beste alde batetik, 30 urtetik beherako emakumeen artean, ikusten da 1996 eta 2000 bitartean gorakada handia egon dela, % 36,6tik % 45,5era, eta gerora adierazleak apur bat behera egin du, 2009ko % 44,3ra arte. 2013an bigarren aldiz gorakada nabarmena egon zen, eta adierazlea % 53,8ra heldu zen, 2009an baino 9,5 puntu gehiago.

39. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

30 urtetik beherako gizonen artean ere modu nabarmenean gora egin du larunbat edo igandeetan egindako lanak, % 36,9tik % 42,6ra. Baina 5,7 puntuko gorakada hori azaldutako beste bi taldeena baino txikiagoa da, eta gainera, adierazlea 1996ko eta 2000ko kopuruetatik hurbil geratu da (% 42,5 eta % 43).

Beste alde batetik, larunbat eta igandeetan egindako lanak epe luzean etengabe gora egin du 30 urtetik gorako emakumeen artean, baina kasu horretan, erritmo neurritsuetan egin du, 2013an ere bai. 1996 eta 2013 bitartean, larunbat eta igandeetan egindako lanaren pisuak gora egin du kasu horretan % 34,1etik % 39,2ra. 2013ko kopurua txikiena da aztertutako sexu eta adin taldeen artan.

Larunbat eta igandeetan egindako lanaren gorakada, nolana ere, lagungarria izan da bi atsedeen egun gutxienez ez dauden egoeren gorakada gertatzeko. Egoera horretan 2009an soldatapekoen eta antzekoen % 18,2 zegoen, eta 2013an, berriz, % 20. 2009-2013 epealdiko gorakada, dena dela, nahiko neurritzkoa da, eta adierazlea 1996ko eta 2004ko kopuruen antzera geratu da, eta 2000. urteko kopuruen azpitik (urte hartan gehienekoa % 25 izan zen).

40. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Gora egin dute modu apalagoan lanaldi luzeak (10 ordu baino gehiago jarraian) eta gaueko lanaldiak, baina gorakada esanguratsua da. Gaueko lanaldiak industria-ekoizpenean soilik egin du gora

Gorakada ez da larunbat edo igandeko lana bezain deigarria, baina gora egin du 2009 eta 2013 bitartean sarritan lanaldi luzea –hamar ordu edo gehiago– egin behar duten soldatapekoen eta antzekoen proportzioak. 2000 eta 2004 bitartean proportzioak % 15etik % 12,6ra behera egin zuen. Gerora, 2009an % 15,1era gora egin zuen, eta 2013an gehieneko kopurura heldu zen, % 19ra, 2004ko erregistroa baino 6,4 puntu gehiago.

Lanaldi luzeak 2004 eta 2013 bitartean izan zuen gorakada etengabe horrek batez ere zuzendaritzako eta bulegoko jardueri eta bestelako zereginiei eragin die, % 15,4tik % 29,1era egin dute gora (ehuneko +13,7 puntu); eta horiez gain, irakaskuntzako goi-mailako tituludunei (% 6,9tik % 17,2ra, +10,3 puntu) eta industria-ekoizpenarekin lotutako pertsoneri (% 13tik % 20,6ra, +7,6 puntu). Kasu horietan guztietan, 2013an lan-forma horren eraginik handiena gertatu da.

Osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean, lanaldi luzearen baliabideak gora egin du % 17,6tik % 22,1era 2009 eta 2013 bitartean, baina 2000ko % 26,3tik behera egin zuen lehenago. Gainerako lan-edukietan, lanaldi luzearen eragina % 12,7 da, 2004ko % 10,8ko proportzioa baino handiagoa, baina 2009ko % 13,4koa baino txikiagoa eta 2000ko % 12,5etik hurbil.

41. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Horrelako egoeren gorakadarik handiena 30 urtetik gorako gizonen artean ikusi da. Kasu horretan, lanaldi luzearen eraginak behera egin du % 18,5etik % 15,6ra 2000 eta 2004 bitartean, eta gerora etengabe egin zuen gora. 2013an talde horren % 26ren ezaugarria izan zen (+10,4 puntu, 2004arekin alderatuta). Emakumezkoen artean antzeko portaera ikusten da, baina 2004-2013 epealdiko gorakadak behera egin du ehuneko 4,6 puntu (% 8,3tik % 12,9ra).

Beste muturrean, 2013an lanaldi luzearen eragina gutxieneko kopurura heldu da 30 urtetik beherako gizonzkoen artean (% 14,3, 2000ko % 18,1en aldean).

42. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2009 eta 2013 bitartean gora egin duen beste lan-jarraibide atipiko bat gaueko lanaldiarena da. Horrek 2004an eta 2009an % 16tik apur bat beheragoko kopuruak zituen, eta 2013an, aldiz, % 17,ra heldu zen.


Kasu horretan gorakada neurritsuagoa da soldatapekoen multzoarentzat, baina 9,2 puntukoa izan da 2004 eta 2013 bitartean. Gainera, epealdi horretan beti gora egin du, industria-ekoizpenean eta bestelako zereginen taldean. Lan-edukien talde horretan, gaueko lanaldiaren pisuak 1996 eta 2000an % 27 inguruko kopuruetatik 2004an behera egin zuen % 22,9ra. Gerora, 2009an gora jo zuen berriro ere % 25,7ra, eta 2013an gehieneko mailara heldu da, % 32,1era. 2013an gehieneko % 12,1eko kopurua lortu da gainerako lan-edukietan, eta joera zertxobait goranzkoa da epe luzean, % 11,2tik.

43. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

44. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gaueko lanak modu diferentean eragiten die gizonei. 2004an, gizonek gaueko lanaldietan zeukaten partaidetza emakumeena baino 7,8 puntu handiagoa zen. Diferentzia hori etengabe igo da, eta 2013an 11,8 puntura heldu da (% 23,3, % 11,5en aldean). Gaueko lanaldiaren eraginak emakumeen artean 1996an soilik egin du gora apur bat (urte hartako % 8,3tik 2013ko gehieneko % 11,5era), baina gizonen kasuan errealitate horrek % 19,1etik % 23,3ra egin du gora 2004 eta 2013 bitartean, lehenago 1996ko % 22,4tik behera egin ostean.

Txandakako lana egonkortu da, baina lan-esparru batzuetan modu nabarmenean egin du gora

2009 eta 2013 bitartean gaueko lanaldiaren pisu erlatiboa egonkortu da, eta soldatapekoen eta antzekoen % 22,8 da. Egonkortze hori gorabehera, azpian antolamendu arloko dinamika oso diferenteak daude lan-edukiaren arabera. Horri dagokionez lan-esparru batzuk nabarmentzen dira, 2004az geroztik horietan txandakako lanaren garrantzia handitu delako. Bi esparrutan, gainera, mota horretako lanaren presentziari dagokionez erregistrorik handienak ikusi dira 2013an. Hori gertatzen da industria-ekoizpenean nahiz osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean.

45. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Industria-ekoizpenaren kasuan, txandakako lanaren pisuak 2004an eta 2009an taldeko biztanleriaren % 35 ingururi eragiten zien, 2013an % 41i, beraz 2000ko % 39 gainditzen da. Osasunaren sektoreko biztanleria kualifikatuaren artean, adierazlea 2004ko % 34,4tik 2013ko % 41,6ra igaro da, eta hala, era berean 2000ko gehieneko kopurua –% 38,6– gainditu da.

Txandakako lanaren presentzia handia duen beste esparru batean, bestelako zereginen taldean, era berean gora egin du oso modu nabarmenean txandakako lanak. 2004ko % 26,3tik 2009ko % 35,2ra igaro da, eta 2013an % 38,5 izan da. 2013ko kopurua 2000ko % 37,2 baino handiagoa da, baina kasu horretan oraindik 1996an erregistratutako % 44,5 baino beherago dago.

Dinamika horren beste muturrean, gainerako lan-edukietan, multzoan hartuta, txandakako lanaren pisua jaitsi egin da 2009ko % 16,3tik 2013ko % 14,5era. Kopuru hori ere 200ko eta 2004ko % 14,9 baino beherago dago. 1996ko % 9,1 soilik gainditu da.

Generoarekin eta adinarekin lotutako joera nabarmena dago txandakako lanaren duela gutxiko dinamikan. 2009 eta 2013 bitartean lan-forma horren eragina egonkortu egin da 45 urtetik gorako gizonen artean, % 23,8. Kopuru hori argi eta garbi txikiagoa da 1996ko eta 2000ko % 26tik gorako kopuruak baino. Emakumeen kasuan, 2013ko kopurua –% 16,9– 1996ko % 11,4 baino askoz handiagoa da, baina 2000. urteaz geroztik kopururik txikiena da. Aldiz, 45 urtetik beherako gizonen artean, txandakako lanaren pisuak etengabe gora egin du epe luzean, desbideratze txiki batzuekin. 1996ko gutxieneko kopurutik –% 23,7– 2000n eta 2009an % 25,6ra eta % 26,9ra igo da, eta 2013an gehieneko kopurura heldu da, % 31,7ra.

46. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lanaldi etengabearen gorakadak muga batzuk dauzka

2013an sendotu egin da lanaldi etengabearen nagusitasuna txandaka lan egiten ez duen biztanleriaren artean, baina lanaldi horren presentzia ez da modu nabarmenean igo. Lanaldi horren presentzia duten modalitateak aztertu den biztanleriaren % 59,2ren ezaugarri dira, eta lanaldi etengabea kasuen % 53n nagusi da. Azken kopuru hori 2009ko % 53,3 baino apur bat txikiagoa da, baina 2013an lanaldi etengabearen pisua oraindik ere askoz handiagoa izan da 1996ko eta 2004ko % 38,6 eta % 41,8 baino.

Puntu horretan, 2009 eta 2013 bitartean aldaketarik deigarriena hau izan da: berriro ere igoera erlatiboa izan dute forma mistoek, hau da, lanaldi etengabea eta etena konbinatzen direneko formek. Lanaldi-modalitate horrek gora egin zuen % 5,1etik % 7,8ra 1996 eta 2004 bitartean, eta % 5,9ra jaitsi zen 2009an. 2013an, proportzioa % 8,9ra heldu zen. Orduan, egoera hartan 54.064 langile zeuden (lehenago, gehieneko maila 2004an izan zen -45.927-). Kasu horietan, 2013an egoeren % 68,5en lanaldi etena nagusi izan da.

47. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lan-edukiaren araberako bilakaerak, ordea, alde nabarmenak agerian jartzen ditu duela gutxiko bilakaeran. Alde batetik, areagotu egin da lanaldi etengabearen nagusitasuna lanbide-kategoria baxuko biztanleriaren artean, orokorrean industria-ekoizpenean eta bestelako zereginetan. Kasu horretan, mota horretako lanaldiak 1996az geroztik goranzko joera izan du. Urte hartan % 39,7ko gorakada izan zuen, eta 2009an % 54,2ko kopurua egin zuen; 2013an gorakada hori areagotu da. Urte horretan, batez ere lanaldi etengabea egiten duen biztanleriaren proportzioa erreferentziako soldatapeko biztanleriaren % 60,4 da. Aldiz, kategoria altu eta ertainetan mota horretako lanaldiaren protagonismoa nabarmen

murritzen da, industria-ekoizpenean salbu. 2009ko % 52,1etik behera egin du 2013ko % 45,1era. Hala ere, proportzio hori 1996 eta 2004 bitarteko % 40tik gorako kopuruetan geratu da.

48. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexu eta adin aldean arabera, 2009 eta 2013 bitartean lanaldi etengabearen nagusitasuna itxuraz egonkortu da, baina egonkortze horren atzean benetan lanaldi horrek behera egin du ia-ia talde guztietan. 30 urtetik gorako emakumeen artean, lanaldi etengabearen nagusitasunak behera egin du aldi horretan % 64tik % 62,2ra, eta gizonen artean % 44,9tik % 42,5era. Bi kasuetan, hala ere proportzioa argi eta garbi 1996-2004 epealdiko kopuruak baino gorago geratzen da. Aldaketak daude, 30 urtetik gorako emakumeen % 52,4ren eta % 56,4ren artean, eta gizonen % 31,1en eta % 32,7ren artean.

Bilakaera hori konpentsatu egiten du 30 urtetik beherako emakumeen artean egon den 11,1 puntuko gorakadak. Lanaldi etengabearen pisuak talde horretan bakarrik egin du gora, edo talde horretan soilik da nagusi lanaldi hori, 2004tik aurrera haren presentzia kasuen % 44,9tik % 69,4ra igo da 2004 eta 2013 bitartean. Emakumeen talde horretan mota horretako egoerak presentziarik txikiena izan zuen 2009ra arte, baina 2013an mota horretako lanaldiarekin loturarik zuzenena duen taldea izan dira.

49. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Hala eta guztiz ere, lanaldi etenak lotura du bazkaltzeko atsedenaldiaren laburtzearekin, eta horrek zerikusia du lantokian bazkaltzeko ohitura gero eta handiagoarekin

Uneren batean lanaldi etenean lan egiten duten biztanleen artean, hala ere, bazkariarekin lotutako atsedenaldiak nabarmen laburtu direla ikusi da. Bazkaritarako 75 minututik beherako atsedenaldiak etengabe laburtu dira 2009ra arte. 1996an % 56 ziren, eta 2009an, aldiz % 49,2. 2013an, unerren batean lanaldi etenean lan egiten duten soldatapeko edo antzekoen % 62,6 egoera horretan dago.

Aurrerakadarik deigarriena bazkaritarako etenaldian 45 minutu baino gutxiago ematen dituzten pertsonena da. Inguruabar hori bazkaritarako etenaldia duten pertsonen % 11,7ren eta % 14,3ren artean izan dute 2009ra arte. 2013an, aldiz, ehuneko horrek gora egin du bat-batean eta % 24,2ra heldu da.


50. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Joera horrek lotura du bazkaria etxean nahiz jatetxean enpresaren barruan edo hortik kanpo gutxiago egitearekin. Etxean bazkaltzeari dagokionez, oraindik ere irauten du beherakadak 2000ko % 61,3tik 2013ko % 51,8ra. Jatetxeen erabilerari dagokionez, aldiz, portaeretan haustura argia ikusi da. 2004an goreneko mailara heldu zen, % 29ra. Hala ere, bazkaritarako jatetxea erabiltzeak behera egin du 1996 eta 2009 bitartean % 25,2tik % 26,1era. Dena dela 2013an soldatapekoen % 16,8k soilik erabili ditu.

51. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Enpresako jantokiaren erabileraren beherakada agerikoa da, etengabe behera egin du 1996ko % 9,4tik 2013ko % 5era, baina aldaketarik handiena kanpoko jatetxeei dagokie. Kasu horretan, horien erabilerak gora egin zuen, eta gehieneko kopurua 2004ko % 21,1 izan zen. 2009an % 19, baina 2013an proportzioak behera egin du % 11,8raino.

Gora egin du opor-egun guztietarako sarbidea ez duten pertsonen proportzioak

2009 eta 2013 bitartean gora egin du % 14,6tik % 19,3ra opor-egun guztietarako sarbidea ez duten soldatapeko eta antzekoen proportzioak. 2013ko adierazlea hala ere 1996ko eta 2000ko % 23-24ko kopuruetatik behera egon da, eta 2004ko % 19,1en antzekoa izan da. Kopuru absolututan, opor-egun guztietarako sarbidea duten 633.297 pertsonak soilik 2009ko 693.895etatik behera daude, eta 2004ko 611.846ak gainditzen dituzte.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Iraupen mugagabeko kontratazioak epe luzean garrantzia galdu du. Egoera horretan, arrazoien artean pisu erlatiboa galdu du urte oso batean lana falta izanak (2013an % 58,6, 2004ko % 55,5 baino gehiago baina argi eta garbi 1996 eta 2004 bitarteko % 65etik gorako kopuruak baino beherago).

Aldiz, gora egin dute enpresaren eskakizunekin edo borondatez uko egitearekin zerikusia duten arrazoiek. Multzoan hartuta, soldatapeko edo antzekoen % 8k 2013an ezin izan ditu opor-egun guztiak hartu, enpresak eskatuta edo borondatez uko eginda. Hori 1996az geroztik kopururik handiena izan da, baina 2000ko % 7,8tik hurbil dago. 2004ko % 5,3rekin alderatuta datua ia-ia 2,7 puntu igo da.

Batez besteko oporretako lan-egunen kopuruak behera egin du

1996ko 24,4 egunetatik 2000 eta 2004an 26 egunetara eta 2009an 27,3ra gora egin zuen batez besteko oporretako lan-egunen kopuruak. 2013an, aldiz, behera egin du 25,2ra, opor-egun guztiak hartu dituzten pertsonen artean. Beherakada hori batez ere irakaskuntza eta osasun arloko goi-mailako tituludunek eta bestelako zereginetan aritzen direnek jasan dute, 3 egunetik gorako beherakadekin (-9,1 irakaskuntzan). Kasu horretan, beherakadarik handienak, 3 egun horiek edo gehiago, 30 urtetik gorako emakumeei dagozkie.


Goranzko joera dauka laneko autonomia-mailak

Adierazle batzuek agerian jarri dutenez, 2013an gora egin du soldatapekoek eta antzekoek lanean duten autonomia-mailak.

Gora egin du lanean helburu eta modalitate zorrotzak ezarrita ez dituzten pertsonen proportzioak

Alde batetik, gora egin du helburu zehatz bat eta helburu hori lortzeko modu zehatz bat ezarritz haien lan-modalitateak mugatuta ez dauzkaten pertsonen proportzioak. 1996, 2004 eta 2009an, proportzioa % 71,5-% 72 ingurukoa izan zen. 2013an % 75,9a igo zen, eta hala, 2000n lortutako % 74,6a gainditu zuen. Arduradun baten mendean lan egiten ez duten soldatapekoen zatia kenduta, azken urteetan goranzko joera are deigarriagoa da, eta adierazleak gora egin du 2004ko % 68,8tik 2009ko % 70era eta 2013ko % 72,5era.

53. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Laneko autonomia ezaugarri duten posizioen gorakada bereziki deigarria da industria-ekoizpenaren kategoria altu eta ertainetan. Kasu horretan, 2009 eta 2013 bitartean % 67,3tik % 77,7ra gora egin du lan egiteko modu bat mugatu gabe lan egiten duen zatiak, gehieneko kopurua da hori 1996az geroztik. Bilakaera hori esanguratsua da. Izan ere, 2004an autonomiaren arloko posizio horietan askoz pisu txikiagoa zuen talde hori nagusi diren kopuruetara heldu da kategoria altu edo ertainekin lotutako lan-eremuetan.

Gora egin du berriro ere ustekabeko egoerak zuzenean konpontzen dituzten pertsonen proportzioak

1996 eta 2004 bitartean, etengabe gora egin du lanean gertatzen diren ustekabeko egoerak zuzenean konpontzen dituzten pertsonen proportzioak. Adierazle hau 1996an % 52,7 zen. 2004an, aldiz, % 60,4. 2009an % 52,9raino jaitsi zen, eta gerora proportzioak gora egin zuen. 2013an, gehieneko kopurua jo du, % 65,6.

Gorabeherak zuzenean konpontzeko formen aurrerakada ia-ia orokorra izan da 2009 eta 2013 bitartean. Hala ere, zuzendaritzako jardueretan eta merkataritza-jardueraren kategoria altu eta ertainetan ildo diferentea ikusten da, goragoko kontrolen mende. Soldatapekoen edo antzekoen biztanleria mota horretan, autonomiaren adierazle horrek behera egin du 2009-2013 epealdian. % 74tik % 70,1erako jaitsiera egon da ustekabeko egoerak zuzenean konpontzen dituzten pertsonen proportzioan. Talde horretan, adierazlearen beheranzko joera benetan 2004tik aurrera hasi zen detektatzen. Urte hartan, adierazlea % 74,6 zen.

54. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gora egin du lan-ordutegi malgua edo aldakorra duten pertsonen proportzioak

Lehenengo aldiz, enpresak ezarritako mugen barruan lan-ordutegi malguan edo bere borondatearen arabera ordutegi malgu batean lan egiten duten soldatapeko edo antzekoen bolumena 200.000 pertsona baino handiagoa izan da Euskal AEn (215.567 pertsona guztira). Egoera horretan dauden langileen proportzioa 2009ra arte ez zen izan % 22,8 baino handiagoa. 2013an, aldiz, % 27,5 izan da.

55. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gora egin du lanean presentziaren kontrolik ez duten pertsonen proportzioak ere

Gora egin du lanean presentziaren kontrolik ez duten pertsonen proportzioak ere. Proportzio horrek behera egin zuen etengabe 2000ko % 47,7tik 2009ko % 41,3ra. 2013an, hala ere, gora egin du % 47,4ra, eta 2000. urteko kopuruetara hurbildu da.


Dena dela, lan-eduki batzuetan oraindik ere kontrol-sistemen goranzko joerak irauten du. Hala, zuzendaritzarekin, merkataritza-jarduerekin eta industria-ekoizpenarekin zerikusia duten esparruan, lanean ordutegien kontrol antolatua mendean dauden soldatapekoen proportzioak behera egin zuen 1996 eta 2004 bitartean (% 46,9tik % 44). Gerora, adierazleak berriro ere gora jo zuen 2013ra arte. 2013an, horrelako kontrolen mendean pertsonen % 46,7 egon da.

56. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

57. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


2009arekin alderatuta, behera egin du kontrolekin, zaintzarekin, lankideekiko koordinazioarekin eta errespetatu beharreko arau edo epeekin zerikusia duen presioak

Lanaren erritmoa baldintzatzen duten faktoreak kontuan hartzean, detektatu da beherakada deigarria izan dutela kontrolak edo zaintza edo lankideekiko koordinaziorako prozesuak aplikatzearekin zerikusia

duten antolaketa-eskakizunek. Egoera horren mendean dauden pertsonen ehunekoak behera egin du % 53,4tik % 39ra 2009 eta 2013 bitartean. Beheranzko joera hori aplikatu beharreko arau edo epeen errespetuarekin lotutako eskakizunei dagokion guztian detektatu da. Mota horretako faktoreen mendean dauden pertsonen proportzioak behera egin du % 51tik % 37,9ra.

Ehunekoak 2013an handiagoak izan dira, baina bi kasuetan ehunekoak 1996-2004 epealdikoetara hurbiltzen dira. Ikusi den bilakaerak lotura estua du 2009 eta 2013 bitartean egon zen kanpoko eskarien presioaren murrizketarekin.

58. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gora egin du bazkalorduz bestelako etenaldiak dauzkaten pertsonen proportzioak

Lan egitean autonomia pertsonal handiagoa agerian jartzen duen beste alderdi bat da gora egiten jarraitu duela uneren batean etena den lanaldian bazkalorduz bestelako etenaldiak dauzkaten langileen ehunekoak. Erreferentziako proportzioak gora egin du 1996ko % 37tik % 44,1era eta % 45,4ra 2000 eta 2009 bitartean, eta gehienez % 50,3ra 2013an.

Gora egin du haien oporraldia aukeratzen duten pertsonen proportzioak

Opor egun guztiak hartzen dituzten pertsonen artean, gora egiten jarraitzen du haien oporren egunak proposatzen dituzten edo, gutxienez, enpresak ezarritako aukeren barruan zuzenean definitzen dituzten langileen proportzioak. Proportzio hori 1996an % 55,4 zen, eta etengabe igo da. 2013an % 64,2 izan

da. Hala ere, 2009 eta 2013 bitartean behera egin du % 43,4tik % 42,6ra oporraldia zuzenean proposatzen duten soldatapeko eta antzekoen proportzioak.


2013an areagotu egin dira lan-baliabideen egokitzapeneko arazo batzuk, bereziki behar adina kolaboratzailerik ez izatearekin eta lana egiteko denbora-epe eskasarekin zerikusia dutenak

Krisiaren ondorioetako bat izan da zertxobait okertu egin dela soldatapekoek eta antzekoek lana egiteko erabilgarri dauden baliabideen egokitzapenari buruz daukaten iritzia. Joera horren barruan detektatu da ia orokorrean gora egin dutela egoera horrekin zerikusia duten arazoek, bai 2009an bai 2004an.

Kasu batzuetan, 2013ko datuak 1996az geroztik txarrena den posizioa jarri du agerian. Hala gertatzen da behar adina kolaboratzailerik gabe lan egiten dutela esaten duten soldatapekoen proportzioarekin. 2004an erregistratutako gutxieneko % 15,6tik gora egin du 2013ko % 21,2ra. 1996az geroztik proportziorik handiena da, eta gainditu egiten ditu 1996ko % 18 eta 2000ko % 19ko kopuruak. Bilakaera antzekoa da zereginak betetzeko denbora-epe eskasa duten pertsonen proportzioari dagokionez. 1996 eta 2000 bitartean gorakada izan zuen % 15,9tik % 20ra. Horren ostean, eragindako pertsonen proportzioak behera egin du apurka 2009ko % 14,5era arte. 2013an, adierazleak berriro ere gora jo zuen % 20,8ra arte, 1996az geroztik handiena den kopurura arte.

2013an ikusitako okertzea –arazoek urte honetan izan dute eraginik handiena– hedatu egin da beste arazo batzuetara, neurri apalagoan; adibidez, arazo hauetara: lan egiteko informazio argirik ez (2013an biztanleriaren % 13,3 zegoen eraginpean; 2000n, % 12,5); dokumentazio egokirik ez (2013an % 9,8, eta 1996an % 9,7) edo makina edo erreminta desegokiak (2013an % 10,5, eta 2000n % 9,5).

59. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Behar dina kolaboratzailerik ez edukitzearekin zerikusia duen adierazleari dagokionez, 2009-2013 epealdiko gorakada bereziki deigarria da adierazlean 2004 edo 2009 eta 2013 bitartean 10 puntutik gorako igoera egon den kasuetan. Gainera, 2013an, ikusi diren arazoen mailarik altuenak izan dira. Errealitate hori ezaugarria da zuzendaritza-jardueretan, irakaskuntzako goi-mailako tituludunen artean, bulegoko edo merkataritzako lanaren kategoria altu eta ertainetan eta bestelako zereginen taldean.

2009-2013 epealdian arazo horien gorakada txikiagoa izan da, baina gainerako lan-edukietan goranzko joera izan da ezaugarri nagusia (lehenago aipatu direnez bestelako kategoria baxu edo altuak eta ertainak, osasunarekin eta ekoizpen-esparruekin zerikusia dutenak). 2013an kolaboratzaile nahikorik ez duten pertsonen proportzioa kasu horietan 1996 edo 2000kotik hurbil dago.

60. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Ikusitako arazoak gorabehera, hobera egin dute lan pertsonaleko produktibitate-adierazleek, 2009arekin alderatuta


Argi eta garbi hobera egin dute adierazleek, 2009 eta 2013 bitartean. Alde batetik, 2009an produktibitate pertsonalean aurrera egiten zuela zioen pertsonen % 28k. Horren aldean, 2013an proportzioak gora egin zuen % 41,3ra. Hori ez dago oso urrun 2004ko % 44,9tik. Beste alde batetik, 2009 eta 2013 bitartean produktibitate pertsonalaren jaitsiera aipatu zutenen kopuruak % 17,2tik % 14,5era behera egin zuen. Dena dela proportzio hori 2004ko % 6,6 baino handiagoa da. Produktibitate pertsonalaren igoeraren eta jaitsieraren arteko diferentziala 2013an 26,7 puntu positibo izan da, 2009ko 10,8 puntuak baino gehiago baina 2004ko 38,3ak baino 10 puntu gutxiago.

Produktibitateak 2013an bilakaera hobea izan du zenbait esparrutan, eta produktibitateak gora egin duela ikusi duten pertsonen proportzioak gora egin du esparru horietan, 2009arekin nahiz 2004arekin alderatuta. Zuzendaritzarekin eta irakaskuntzako goi-mailako titulazioarekin zerikusia duten esparruak

dira. Lan-eduki horietan, soldatapekoen % 51,9k uste du haren produktibitate pertsonala handitu dela, eta hala 2004ko % 44 gainditzen da. 2009 eta 2013 bitartean, produktibitatearen hobekuntzaren ildoak merkataritza- eta bulego-jardueretan eta industria-ekoizpenean zuzendaritzaren eta irakaskuntzaren antzekoa izan da. 2013ko hobekuntza-adierazlea, hala ere, 2003an erregistratutakoa baino apur bat beherago geratu da.

Osasun arloko goi-mailako tituludunen artean, hirugarren sektoreko ekoizpenean eta bestelako zereginetan, haien lanean produktibitate handiagoa egon dela uste duten soldatapekoen proportzioa astiroago igo da 2009 eta 2013 bitartean (% 28,9tik % 33,1era); hala, 2004ko proportziotik behera geratu da (% 39,9).

61. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Enpresan oraindik diskriminazio-arazoak ikusten dira eta egoera gatazkatsuen kopuruak gora egin du


2009arekin alderatuta, nabaritzen den diskriminazioak behera egin du, baina adierazleak 2004koetatik gorago daude argi eta garbi

2009 eta 2013 bitartean, % 17,1etik % 14,1era behera egin du zereginen banaketan eta/edo sustapen-aukeretan diskriminazio-arazoak nabaritzen dituzten soldatapeko eta antzekoan proportzioak. Aztertutako epealdian, adierazleak behera egin du diskriminazioari dagokionez, bai sustapenean (% 12,2tik % 10era) bai zereginak banatzean (% 6,6tik % 5,7ra).

Dena dela, 2013ko adierazleak 2004ko adierazleak baino handiagoak dira. Hala, 2013an zereginengatiko eta sustapenagatiko diskriminazioaren adierazle orokorra (% 14,1) 2004ko % 9,3 baino askoz handiagoa izan da, eta 1996ko % 12,3 eta 2000ko % 13,5 baino handiagoa ere bai.

2004ari dagokionez, diskriminazioaren eragina handiagoa izatea azaltzen duen arrazoi nagusia sustapen-aukerek lotzen da (soldatapekoen % 10ek arazo hori aipatu du 2013an; 2004an, aldiz, % 6k; aztertutako urte horietan, zereginengatiko diskriminazioari dagokionez kopuruak % 5,7 ziren, % 4,7ren aldean). 1996ko eta 2000ko egoera orokorrari dagokionez, diferentziak askoz txikiagoak dira zereginetako diskriminazioari (2013an % 5,7; 1996 eta 2000 bitartean, aldiz, % 4 eta % 4,6) nahiz sustapen-aukerei dagokienez (2013an % 10; aldiz, 1996an % 9 eta 2000n % 10,1).

62. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Dena dela, 2009 eta 2013 bitartean talde guztietan ez da gertatu sustapenarekin eta zereginen banaketarekin zerikusia duen diskriminazioaren beheranzko joera. Adierazleak mantentzen dira edo igotzen dira bulegoetako kategoria ertain eta altuetan eta merkataritza-jarduerarekin eta industria-ekoizpenarekin zerikusia duten kategoria baxuetan. Multzotan hartuta, eta 2004ko beherakada salbuespen bakarra dela, nabaritzen den diskriminazioak gora egin du 1996 eta 2013 bitartean kategoria horietan, eta 2013an gehieneko kopurua jo du, % 18,2.

Gainerako edukietan, diskriminazio-egoeren eraginak behera egin du modu nabarmenean 2009 eta 2013 bitartean. Lan-eduki batzuetan, hala ere, jaitsiera horren ondorioz 2013an ere diskriminazio-adierazlea 1996-2004 epealdiko erregistroen gainetik geratu da. Hori gertatzen da zuzendaritza-jardueretan, irakaskuntzako goi-mailako tituludunen artean, industria-ekoizpenaren kategoria ertain eta altuetan eta, orokorrean, hirugarren sektoreko ekoizpenean. Edukien talde horretan diskriminazioaren adierazleak behera egin du % 16,6tik % 12,8ra 2009 eta 2013 bitartean, baina 2004a arte detektatzen ziren % 8 eta % 12,1 bitarteko kopuruak gainditu ditu.

Beste muturrean, 2009ko % 18,5etik 2013ko % 10,4ra egon den jaitsierak gutxieneko kopurua markatu du, baita 2004ko % 10,6rekin ere, gainerako lan-edukietan. Kasu horretan, talde hori osatzen dute osasunaren arloko goi-mailako titulazioek, merkataritza-jardueraren kategoria altu eta ertainek, bulegoko kategoria baxuek eta bestelako zereginak.

63. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Sexuaren eta adinaren arabera, 2013an kasu batzuetan zereginetan eta/edo sustapenean nabaritzen den diskriminazioa 1996az geroztik kopururik handienetara heldu dira, edo kopururik handienetan mantendu dira. Hori gertatzen da 30 urtetik beherako gizonen artean. Talde horretan, nabaritzen den diskriminazioa egonkorra izan da 2009an eta 2013an, % 17 inguru. Kopuru hori 2000n erregistratutako % 17,7 baino apur bat txikiagoa da.

Okertze handiagoa izan du 30 eta 44 urte bitarteko emakumeen bilakaerak. Haien kasuan, sustapenaren eta/edo zereginen diskriminazio-adierazleak behera egin zuen % 13,7tik % 8,2ra 1996 eta 2004 bitartean, baina orduz geroztik berriro ere gora egin zuen etengabe, 2009an % 15,7ra heldu zen, eta 2013an % 17,2ra. Emakumeen talde horretan, nabaritzen den diskriminazio-maila askoz handiagoa da 1996-2004 epealdikoa baino, eta sexuaren eta adinaren arabera beste talde batzuetan 2009tik aurrera ikusi denaz bestela, gainera maila horiek goranzko joerari eutsi diote 2013an.

Sexuaren eta adinaren arabera gainerako taldeetan sendotu egin da 2009 eta 2013 bitartean orokorrean detektatutako diskriminazio-indizearen beheranzko joera. Epealdi horretan, nabaritzen den diskriminazioak behera egin du % 21,4tik % 17,5era 30 urtetik beherako emakumeen artean, baina hala ere kopuruak handiak dira. Hala, 2013ko % 17,5 hori argi eta garbi handiagoa da 1996 eta 2004 bitartean ikusitako kopuruak baino. Orduan, gehienekoa % 16,4 izan zen, 2000n.

Bilakaerarik onena, adierazleak behera egitea % 16,9tik % 12,5era 2009 eta 2013 bitartean, 30 urtetik gorako gizonek eta 45 urtetik gorako emakumeek osatzen duten taldean gertatu zen. Kopuru horiek ez dira gehiegi aldentzen 1996ko eta 2000ko % 11,4-% 12 bitarteko kopuruetatik, eta soilik 2004ko % 8,5 gainditu dute.

64. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Itxura pertsonalarengatik nabaritzen diren indarkeria, jazarpen eta diskriminazio arazoak multzoan hartuta ugaritu dira; hala ere, ez dira argi eta garbi areagotu arazo espezifikoak 2009 eta 2013 bitartean

Pertsonaren itxura pertsonalarengatik nabaritzen diren indarkeria, jazarpen eta diskriminazio egoeren kopuruak 2004 eta 2009an % 4,3-% 4,4 ziren. 2013an, aldiz % 6,1. Arazo horietako esperientzia pertsonala areagotu egin da: 2004an % 2 izan zen, 2009an % 2,5 eta 2013an % 3,3.

Enpresan arazoak detektatzen dituztenen ikuspegitik, gorakadarik handiena nabaritzen den larderiarekin lotzen da (% 2,5etik % 3,7ra 2004 eta 2013 bitartean). 2013an, mespretxu pertsonala ezaugarri duten egoeren presentzia aipatu du aztertutako pertsonen % 2,7k. Urte horretan indarkeria fisikoaren eragina % 0,9 izan da, eta gorakada txiki baina etengabea izan du 2004ko % 0,6rekin alderatuta.


Larderiaren salaketa pertsonalak, hala ere, ez du baieztatzen aipatutako goranzko ildo hori. 2013ko % 2 argi eta garbi 2004ko % 1,1 baino handiagoa da, baina 2009ko kopuruetan geratu da (% 2,1). Indarkeria fisikoa 2013an % 0,2k soilik aipatu du, eta hori 2009ko kopuruaren antzekoa da. Mespretxu pertsonal larriak % 1,5eko kopurua izan du.

65. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

66. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Egoera larrien bizipen pertsonalak kasu batzuetan soilik lan-eduki batzuen eta besteen % 2 gainditzen du. Arazorik ohikoenek zerikusia dute larderia-arazoekin edo mespretxu pertsonaleko forma larriekin.

Eraginik handiena jasaten duen taldea osasunaren arloko goi-mailako tituludunena da. Larderia kasuen % 4,6 eta mespretxu pertsonaleko kasuen % 2,4 jasaten dituzte. Mota horretan egoerak era berean % 3tik gorako kopuruetan agertzen dira, orokorrean larderia gisa, hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria ertain eta altuetan, bulegoko lanaren eta industria-ekoizpenaren kategoria baxuetan eta bestelako zereginetan. Arazo horien eragina % 2 eta % 3 bitartekoa da zuzendaritza eta merkataritza-jardueraren eta hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria baxuetan.

67. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren arabera datuek ez dute diferentzia handirik agerrarazten. Larderiaren eta mespretxu pertsonal larriaren arazoaren eraginak talde bakar batean gainditzen du % 2: 30 eta 44 urte bitarteko emakumeen taldean. Ez dira inola ere gainditzen % 3ko kopuruak.

Antolaketari buruzko beste alderdi batzuk

Presentzia apur bat galdu du udako ordutegi murriztuak

Txandaka lan egiten ez duten biztanleen artean 2009ko % 20,3tik 2013ko % 19,2ra behera egin du udako ordutegi murriztua duten pertsonen proportzioak. Hala ere, erreferentziako proportzioa oraindik ere 2004ra arte ikusitakoak baino handiagoa da. 2013an gehieneko kopurura heldu zen, % 18,8ra.

Udako ordutegi murriztuen presentziaren beherakadarekin lotuta, lanaldi etengabea batik bat duen taldearen artean mota horretako lanaldia lortzeko aukerak % 23,1etik % 12,6ra egin du behera. Kopuru hori 2004ko % 12,4rekin soilik konparatu ahal da. Aldiz, 2013an udako lanaldi murriztua gehien baliatzen dutenak lanaldi etena batik bat duten biztanleak dira (% 26,6, 2009ko % 17,1en gainetik eta 2000ko eta 2004ko % 20ren eta % 21en gainetik).


Luzatu egin da lanera joateko behar den denbora, eta ibilgailu partikularra erabiltzearen garrantzia mantentzen da

2009 eta 2013 bitartean, lanera joateko denborak luzatzearen joera, 2004ra arte ikusitako hori, berriro hasi da. Hala, 2013an lantokira heltzeko gehienez 15 minutu behar dituzten pertsonen proportziorik txikiena izan da, % 53,1 (2004an % 54,3, eta 2009an % 54,9). Proportzio horrek agerian jartzen du jaitsiera ia-ia etengabea egon dela 1996ko % 59,9tik.

16 eta 30 minutu bitartean behar dituzten pertsonen proportzioa nahiko egonkorra izan da (% 33,6, 2004ko % 33,7ren antzekoa, eta 2009ko % 34,3 baino zertxobait txikiagoa). Egoera horretan, bidea egiteko 30 minutu baino gehiago behar dituzten langileen proportzioak batez ere egin du gora. Proportzio hori 1996an % 9,8 zen, eta 2004an % 12raino heldu zen. Erreferentziako proportzioak 2009an behera egin zuen % 10,8raino, eta gerora gora egin zuen. 2013an, gehieneko kopurua jo du, % 13,3. Kopuru absolututan, 1996an egoera horretan 55.498 langile zeuden. 2013an lehenengo aldiz gainditu da eragindako 100.000 pertsonen atalasea (zehazki, 104.358).

Azaldutako joera horren ondorio nagusia da 2013an iraun egin duela lanera oinez joatearen beheranzko ildoak, langileen % 19 egoera dago horretan. Auto partikularren erabileraren pisu erlatiboak gora egin du % 55,6tik % 57,1era 2009 eta 2013 bitartean, hamarren batzuk ozta-ozta 2004ko gehieneko kopuruaren, % 57,6ren gainetik. Oinez, bizikletaz edo garraio publikoan lekualdatzeko formen multzoa nahiko urrun dago, % 40,7. Kopuru horrek 2004ko % 40,4 soilik gainditzen du, eta lau puntu urruntzen da 1996ko % 44,9tik.

68. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Ikusitako antolaketa arloko aldaketak gorabehera, itxuraz ez dira okertu lana eta gizarte- eta familia-bizitza uztartzeko aukerak

Azken urteetan lanaren antolaketan ikusi diren aldaketak gorabehera, ez da nabaritu lana eta lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko aukerak okertu direnik. Hala, eta apur bat besterik ez bada ere, haien bizitza pertsonaleko alderdi batzuk eta besteak txarto samar uztartzen dituztela dioten langileen proportzioak behera egin du 2004ko % 17,4tik 2009ko % 16,7ra eta 2013ko % 16,4ra. Beste muturrean, ondo moldatzen direla dioten pertsonak 2004an % 14 ziren, 2009an % 23,7 eta 2013an % 24,6.

69. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Hala ere, datu horien atzean joera diferenteak daude, lanaren edukia eta sexuaren eta adinaren arabeko ezaugarriak kontuan hartuta, uztartzearen arloan txartzat edo oso txartzat hartzen diren egoeren eraginari dagokionez. Lanaren edukiari dagokionez, alde batetik, 2004 eta 2013 bitartean behera egin du apurka uztartzeko arazoaren eraginak, 2004an % 20,6, eta 2013an % 16,2, ekoizpen-jarduerekin lotutako kategoria altu eta ertainetan, bai eta merkataritza-jarduerekin eta hirugarren sektoreko jarduerekin lotutako kategoria baxuetan ere.


Uztartzeko arazoek beherakada nabarmena izan dute 2013an % 13,4ra arte irakaskuntzako goi-mailako titulazioetan, industria-ekoizpenaren kategoria baxuetan eta bestelako zereginen taldean, 2004 eta 2009 bitartean % 13,7tik % 16,7ra igo ondoren.

Kontrakoa gertatzen da osasunaren arloko goi-mailako titulazioetan eta merkataritzako eta bulegoko jarduerekin lotutako kategoria ertain eta altuetan. Kasu horretan, 2004 eta 2009 bitartean % 19,8tik

% 12ra jaitsi ondoren, uztartzearen arloan txartzat katalogatzen diren egoerek gora jo dute, eta % 16,6 egiten dute.

Bilakaerarik txarrena, azkenik, zuzendaritza-jarduerena eta bulegoko kategoria baxuena da. Lan-eduki horietan, uztartze arazoek 2013an erreferentziako pertsonen % 23ri eragiten diote, 2004 eta 2009 bitartean % 13,9tik % 15,5era gora egin ondoren.

70. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren arabera datuek erakusten dutenez, adinaren aldagaiak eragin erabakigarriagoa izan du 2009 eta 2013 bitartean. Hala, zera ikusten da: 45 urtetik beherako pertsonen artean lana eta gizarte- eta familia-bizitza uztartzeko arazoek behera egin dute, edo behintzat egonkortu egin dira, baina arazo horiek apur bat gora egin dute erreferentziako epealdian 45 urtetik gorako pertsonen artean.

Konparatuta, nolanahi ere, uztartze-arazoek 2013an garrantzi handiagoa izan dute 30 eta 44 urte bitarteko pertsonen artean (pertsonen % 18 eta % 20 bitartean daude eraginpean, sexuaren arabera; aldiz, 30 urtetik beherako pertsonen artean edo 45 urtetik gorakoaren artean kopuruak % 15 ingurukoak edo hortik beherakoak dira).

Adierazitako joerak berdinak dira gizonen nahiz emakumeen artean.

71. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


4. EKIPAMENDUEN ERABILERA, LANEKO GIROA ETA ARRISKUAK

Aurrerapauso nabarmena detektatu da bulegoko lanabes informatikoen erabileran

Aurrerapauso nabarmena izan da 2009 eta 2013 bitartean bulegoko lanabes informatikoen ohiko erabileran. 1996ko % 26,8tik 2009ko % 45,8ra gora egin zuen; horren ostean ehuneko 19 puntuko gorakadarekin, 2013an proportzioa % 52,6raino heldu da, eta % 50eko muga gainditu du. LBI egiten denetik lehenengo aldiz, lanabes informatiko horiek langile gehienek erabili ohi dituzte.

2009 eta 2013 bitartean, hazkundera batez ere osasun arloko goi-mailako tituludunen artean, ekoizpen-jardueretan eta bestelako zereginetan gertatu da. Lanabes informatikoekin banaka eta sarritan egiten den lanaren unibertsalizatze-prozesuaren eraginik txikiena jasaten duen talde horretan barruan, aurrerapausoa oso deigarria da. 1996ko % 3,9tik 2009ko % 15,7ra jaitsi ondoren, proportzioak % 32,5era arte egin du gora 2013an. Gainerako edukietan, ohiko lan informatikoa % 75,1era heldu zen 2009an, baina proportzioak behera egin du % 71,8ra; hala ere, kopuru hori 2004ko % 70,1 baino handiagoa da.


72. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lanabes informatikoen erabilerarekin bat, posta elektronikoaren eta Interneten ohiko erabilerak ere gora egin du. Lehenengo kasuan, 2013an ohiko erabilerari dagokionez, % 45,1era heldu da. Proportzio hori % 43,4 da Interneten ohiko erabilerari dagokionez.

73. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Gora egin du garraio-ibilgailuen eta ekipamendu eta ibilgailu automotorren erabilerak

Ibilgailuen erabileraren gorakada

Soldatapekoek eta antzekoek garraio-ibilgailuak erabiltzeari dagokionez, proportzioak gora egin zuen etengabe 2000ko % 9,2tik 2009ko % 11,5era. 2013an, hala ere, proportzio hori % 15,1era heldu da, 3,7 puntuko igoerarekin. Hori ia-ia 2000 eta 2009 bitartean ikusitako igoeraren bikoitza da.

Gorakada horrek zerikusia du zuzendaritzaren, osasun arloko goi-mailako titulazioen, bulegoko eta ekoizpeneko kategoria altu eta ertainen eta bestelako zereginen esparruetan egondako igoerarekin. Edukien talde horretan, ibilgailuen erabileraren proportzioak gora egin du % 12,9tik % 20,1era 2009 eta 2013 bitartean. Gainerako edukietan, erabilera egonkorra izan da baina nolabaiteko goranzko joera dauka (2013an % 10,7, 2009ko % 10,3ren aldean).

74. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Ekipamendu eta ibilgailu automotorren erabilerrari dagokionez, horien ohiko erabilera % 3,1 eta % 3,9 bitartean mantendu zen 1996 eta 2009 bitartean, baina orokorrean goranzko joeran. 2013an, erabilera % 8,1era heldu da, 4,2 puntuko igoerarekin. Gorakada horrek ekoizpen-jarduerekin du zerikusia, bai industriaren esparruan, bai hirugarren sektorearen esparruan.

Aldi berean gora egin du kalean egiten den lanak, ibilgailuen erabilerarekin lotuta

Kalean egindako lanaren mota guztiek ez dute modu deigarrian gora egin (2013an soldatapekoen % 22,1 dago egoera horretan, eta 2009an % 22,5), baina kalean ibilgailu itxien erabilera eskatzen duten lan-formek gora egin dute. 1996 eta 2000 bitartean % 11,6tik % 9,9ra behera egin ondoren, errealitate horrek gora egin zuen apurka, 2009an soldatapekoen % 11,9ra heldu arte; hala, 1996ko erregistroa gainditu da. 2013an gorakada nabarmenagoa egon zen, eta % 13,9ra heldu zen. Lehenengo aldiz, egoera horretan 100.000 pertsona baino gehiago egon ziren (zehazki 109.226).

Ikusi den prozesu horrek zerikusia du kalean ibilgailu itxi batean egindako lan-formen gorakada nabarmenarekin. Era berean, lan-forma horiek bulegoko jarduerekin eta hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria altu eta ertainekin dute lotura. Kasu horretan, proportzioak 1996ko % 16,1etik behera egin zuen 2004ko % 11,8ra eta 2009ko % 13ra, eta 2013an bat-batean gora egin zuen % 23,4ra arte.

75. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Orokorrean hobera egin dute lantokiko baldintza fisikoek

Laneko eragozpenen eragina orokorrean murriztu da

2009 eta 2013 bitartean, orokorrean behera egin du laneko eragozpen fisikoek soldatapekoentzat edo antzekoentzat ekartzen duten eragina. Beherakada bereziki deigarria izan da kasu hauetan:


- * 2013an, zikintasunak 1996ko % 27,2tik ikusten den beheranzko joerari eutsi dio. 1996 eta 2009 bitartean, eraginpeko soldatapeko eta antzekoen biztanleria % 27,2tik % 18,3ra jaitsi zen; 2009 eta 2013 bitartean beherakada areagotu zen, eta 2013an gutxieneko kopurua jo du, % 13,2.
- * Hezetasunaren presentzia ere gutxieneko kopuruetara heldu da 2013an. 1996an eta 2000n % 19 baino apur bat gorago egon ondoren, eta 2004ko % 17,4ra arte ehuneko 2 puntu baino gutxiagoko jaitsiera izan ondoren, hortik aurrera beherakadak erritmo biziagoa eta egonkorra izan du. 2013an, % 12,5 izan da.
- * Instalazio sanitario txarren kasuan, bilakaera oso antzekoa da hezetasun-arazoetan ikusi denarekin alderatuta. Adierazlea % 11tik baino apur bat gorago egon zen 1996an eta 2000n. Ordutik aurrera arazo horien eraginak apurka behera egin du, eta 2013an gutxieneko kopurura heldu da, % 6,4ra.

2013an gutxieneko kopurua egon da kanporako bistarik ez izateari dagokionez, % 20,9. Hori argi eta garbi 1996 eta 2004 bitarteko % 26 eta % 27 arteko kopuruak baino txikiagoa da. Kasu horretan, hala ere, duela gutxiko dinamikak erakusten du 2009ko % 21,1en inguruan egonkortu dela.

Antzeko zerbait gertatzen da argiztapen eskasarekin; % 8,2ko kopuruarekin berriro ere 2004ko mailetara itzuli da, 2009an % 9,1era igo ondoren. Kopurua argi eta garbi 1996ko eta 2000ko % 10etik gorako kopuruetatik behera dago.

Orokorrean positiboa den joeraren salbuespen bakarra aire-korronteen presentziaren goranzko joera da. Adierazle hori soldatapekoen eta antzekoen % 25,4 zen 2009an; 2013an, berriz, % 27,8. Kopuruak ez du asko hobetu 2004ko % 28,9 hori, baina 1996ko eta 2000ko % 33,5eko eta % 34,1eko kopuruetatik urrundu da.

76. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lan-karga batzuen eraginak ere beherantz egiten du

2009 eta 2013 bitartean ikusi da beherantz egin duela soldatapekoek eta antzekoek dauzkaten karga fisiko edo zentzumenezko karga batzuen eraginak. Hori gertatzen da, adibidez, luzaroan zutik egon behar duten proportzioarekin. Gutxienez biztanleriaren % 53,4 egon zen horren eraginpean 2013an.

Luzaroan jarrera astun edo nekagarrian egotea eskatzen duten egoeren eraginak ere beherakada deigarria izan duela ikusi da. Adierazle hori 2009ko % 47,8tik 2013ko % 38,4ra igaro da. Kopuru hori ere 1996ko eta 2000ko % 45etik gorako kopuruetatik argi eta garbi aldentzen da. Hala ere, jaitsiera hori 2009ko gorakada deigarri baten ostean gertatu da. Benetan, 2013ko adierazlea 2004an erregistratutako % 37,8tik apur bat gorago geratu da.


Antzeko zerbait esan ahal da bibrazioen edo astinaldien eraginari buruz. 2013an eraginpean egon den biztanleriaren % 7,6ko kopuru horrek epe luzeko beherantzko joera luzatu egiten du. 1996, 2000 eta 2009an kopuruak % 8 ingurukoak edo gorakoak izan dira. Hala ere, 2004ko % 6,2ko gutxieneko kopurua gainditu da.

Beste muturrean, karga fisikoen adierazle batzuk nahiko egonkorrak izan dira erlatiboki mugatua den aldakuntza-tarte baten barruan. Karga pisudunak eramaten edo desplazatzen dituzten pertsonen eta esfortzu fisiko handiak egiten dituzten pertsonen proportzioaz ari gara. 2013ko kopuruak, hurrenez hurren, % 24,1ean eta % 24,6an kokatzen dira. Bi kasuetan 2009ko kopuruetatik behera dauden arren, kopuru horiek orokorrean nagusi den tartearen barruan mugitzen dira. Ezaugarria, bi kasuetan, % 23,5 eta % 25,5 bitarteko aldakuntzak izan ziren.

Zentzumenen arloko kargei dagokienez, 2013an gutxieneko kopurua izan da normal hitz egitea eragozten duten zaratei aurre egiten dieten pertsonen proportzioari dagokionez. % 20,2ko gutxieneko kopuruak luzatu egiten du beherakada 1996ko % 30,8tik, eta ehuneko puntu bat handiagoa da 2009ko % 21,3 baino. Nolanahi ere, 2013ko kopurua 2004koaren (% 20,5) oso antzekoa izan da.

Beste alde batetik, 2009 eta 2013 bitartean behera egin du % 40,5etik % 30,4ra ikusmena behartzeko beharrezana. Kopuru hori alendu egiten da 1996ko eta 2000ko % 35etik gorako kopuruetatik. Baina 2013ko proportzioa 2004ko gutxieneko % 27 baino handiagoa da.

77. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Arrisku askoren eragina murriztu da

Laneko arrisku batzuei dagokienez, 2013an gutxieneko kopuru gehiago egon dira. Egoera horretan, arrisku horien eragina argi eta garbi behera egiten ari da. Prozesu hori argi ikusten da honako arazo hauek soldatapeko eta antzekoengan duten eraginari dagokionez:

- * Kea arnastea (1996an % 23,3; 2013an, aldiz, gutxienekoa, % 11,7).
- * Hautsa arnastea (1996an eta 2000n % 30,2; 2013an, % 17,3).
- * Produktu toxikoak arnastea (1996an % 17,5, 2000n % 19,5, eta 2013an % 14,4).
- * Makinek eragindako zauriak, 2013an gutxieneko kopurua, % 20,7, 2004ko % 22,4tik urrun eta 1996, 2000 eta 2009ko % 23,2tik % 23,7ra bitarteko tartetik urrun ere bai.
- * Erremintek edo materialek eragindako zauriak (1996 eta 2009 bitarteko % 29-29,5 inguruko kopuruetatik 2013ko % 28,2ra).

78. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gora egin du temperatura egokian beti lan egiten duten pertsonen kopuruak

2009 eta 2013 bitartean % 62,3tik % 66,3ra gora egin du beti lan egiteko temperatura egokia dutela diotenaren proportzioak. Proportzio hori orain arte ikusitako erregistrorik handienara hurbiltzen da, 2004ko % 68,1era, alegia.

79. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Multzoan hartuta, 2009 eta 2013 bitartean behera egin du eragozpenen, kargen eta arriskuen eraginak


Eragozpenen, kargen eta arriskuen eraginaren baterako balorazioak ere 2009 eta 2013 bitartean hobekuntza agerian jartzen du. Gutxienez esparru arazotsu horietako biren metaketa jasaten duten soldatapeko eta antzekoen kopuruak, hain zuzen ere, epealdi horretan behera egin du. Multzoan hartuta, esparru arazotsu bi edo gehiago dauzkaten pertsonen proportzioa 2013an % 40,5 izan da, 2009ko % 43,8ren eta 2000ko % 46,2ren azpitik. Kopuru hori, hala ere, 1996ko % 40,6ren antzekoa da, eta 2004ko % 40 baino ehuneko puntu erdi handiagoa da.

Nolanahi ere, lan-eduki batzuetan okertzea ikusi da 2009 eta 2013 bitartean. Hori gertatu da osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean; lan-esparru horretan, eragindakoen kopuruak gora egin du % 39,2tik % 44,9ra. Kopurua 1996ko % 42,6 baino handiagoa da, baina 2000ko eta 2004ko kopuruak baino txikiagoa (% 47,3 eta % 49).

Arrisku-maila txikiagoa duten taldeei eragiten dien arren, gorakadarik handiena merkataritza- eta bulego-jarduerekin lotzen da. Kasu horretan, eragozpen, karga eta arrisku metatuen arazoek 2004an soldatapekoen % 15,2ri eragiten zioten; 2009an % 18,6ri, eta 2013an % 23,5i. 1996az geroztik kopururik handiena da, 2000ko % 21,2 baino handiagoa ere bai.

Aldiz, gainerako edukietan, eragindakoen proportzioa 1996az geroztik kopururik txikienetan geratu da % 50,3rekin, ehuneko 8 puntu baino gehiago 2009ko % 58,5etik behera.

80. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren arabera, 1996az geroztik arrisku-mailari txikienak detektatu dira 30 urtetik beherako gizonen artean eta 45 urtetik gorakoen artean (% 50,9 eta % 46,5, hurrenez hurren). Arrisku-egoeran dauden pertsonen proportzioak emakumezkoen artean ere behera egin du 2009 eta 2013 bitartean, 2009ko % 29,7tik 2013ko % 27,9ra. Kopuru hori 2000ko % 29,4 baino txikiagoa ere da. Kasu

horretan, hala ere, 2013ko erregistroak esan nahi du gorakada egon dela 1996ko % 22,1ekin eta 2004ko % 24,7rekin alderatuta.

Okertzerik handiena 30 eta 44 urte bitarteko gizonak jasan dute. 2000 eta 2004 bitartean egondako jaitsiera gorabehera, kasu honetan ikusten da hain zuzen ere goranzko joera egon dela epe luzean, eta gora egin duela arriskuan dauden pertsonen proportzioak 1996ko % 49,7tik 2013ko % 57,5era, gehieneko kopurura.

81. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Dena dela, alderdi batzuek okerrera egin dute karga eta arrisku batzuen eraginari dagokionez

Azaldu diren lan-eduki eta adinetan izandako bilakaera konparatu txarrago horrek lotura dauka soldatapekoei eta antzekoei eragiten dieten laneko karga eta arriskuen inguruko alderdi batzuetan egon den okertzearekin. Beraz, duela gutxiko bilakaera guztia ez da ona izan dimentsio horietan.

Gora egin du karga batzuen eraginak, eta beste batzuei eragiten dienak 2013an ez du modu nabarmenean hobera egin, aurreko epealdiekin alderatuta


Dimentsio fisikoan, oinez desplazamendu luzeak egin edo desplazamenduak maiz egin behar dituzten pertsonen proportzioak 1996 eta 2004 bitartean behera egin zuen % 24,7tik % 22,4raino. Ordutik aurrera goranzko joera hasi zen, eta 2013an % 25,2ra heldu zen. 1996tik erregistratu den kopururik handiena da.

Zentzumenen dimentsioan, ordenagailuaren pantailara etengabe begiratzearen kopuruak gora egin du 2000ko eta 2004ko % 25,6tik 2009ko % 37,6ra. 2013an adierazlea jaitsi egin zen % 34,7ra, baina oraindik argi eta garbi mende hasierako kopuruetatik gora dago.

Karga psikiko edo psikologikoei dagokienez, duela gutxiko bilakaera ere ez da ona. Kargen eraginak apur bat behera egin du 2009 eta 2013 bitartean, baina 2013ko kopuruak 2000koak eta 2004koak baino handiagoak dira etengabeko kontzentrazio edo zaintza espezifikoaren beharrianari eta buruan aldi berean informazio asko gorde behar izateari dagokienez. Lehenengo kasuan, 2013ko % 50,5eko kopurua jaitsi egin da 2009ko % 51,4tik eta 1996ko % 54,4 baino txikiagoa da, baina argi eta garbi 2004ko gutxienekoa, % 38,8, gainditu egiten du. Buruan informazio asko gorde behar izateari dagokionez, karga horren eragina murriztu egin da % 47,2tik % 46,5era 2009 eta 2013 bitartean. Hala ere, 2013an ikusi den eragina handiagoa da 1996-2004 epealdikoa baino. Epealdi hartan, gehienekoa % 42,6 izan zen 2000n.

Behera egin zuen 2009ko % 38tik, eta urrun geratzen da 2000ko % 35,5etik, baina ezin da esan epe luzean argi eta garbi hobetu denik, mugimendu-segida behin eta berriz errepikatzearen adierazleari dagokionez. 2013ko % 32,1ek, beraz, 1996ko % 27,8 nahiz 2004ko % 31,1 gainditzen ditu.

82. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Arrisku batzuen eraginak gora egin du, edo altu samar mantendu da, konparatuta

Laneko arriskuen azterketarekin lotutako alderdi batzuetan, ez da hobekuntzarik ikusi 2013an, eta kasu askotan okertu egin dela nabarmendu da.

Kanpoko agente arriskutsuekin harremanetan egotearekin lotutako arriskuei dagokienez, infektatzeko arriskuak behera egin du azken lau urteetan, eta eraginak behera egin du, 2009an soldatapekoen

% 15,1etik 2013an % 14ra. Hala ere, kopuru hori 1996ko % 14,2ren antzekoa da, baina horrez gain, 2000ko eta 2004ko % 11,5 inguruko kopuruak gaitzitzen ditu.

Beste elementu batzuetan, gainera, arriskuak gora egin du. Hala gertatzen da toxikoak maneiatzearekin edo horiekin harremanetan egotearekin. 2004an gutxieneko mailari heldu zen, % 12,7ra; gero, proportzioak gora egin du etengabe 2013ko % 15,8ra, 1996az geroztik gehieneko kopurura. Sekuentzia hori antzekoa da lehergailuak maneiatzeari edo horiekin harremanetan egoteari edo erradiazioen arriskuari dagokionez. Gutxieneko kopuruak 2004an izan ziren, eta gerora igo egin ziren; 2013an gehieneko kopuruetara iritsi ziren (% 4,5 lehergailuekin harremanetan egoteari dagokionez eta % 3,5 erradiazioen arazoari dagokionez).

Antzeko gauza bat gertatzen da materialen edo objektuen erorikotik gertu egotearekin eta goietatik erorikoa izatearekin lotutako arriskuei dagokionez. Bi kasuetan, 2013an gora egin duten kopuruak ikusi dira 2000-2009 epealdiari dagokionez, eta 1996koak baino handiagoak soilik (2013an % 16,6, eta 1996an % 17,9 materialen edo objektuen erorikotik gertu egoteari dagokionez; % 13,3 % 14ren ordez goietatik erorikoa izateari dagokionez).

Bilakaera oso antzekoa izan da erreduren kasuan. 2013an, eragina soldatapekoen % 16,4ra iritsi zen. Kasu horretan, proportzioa 2009ko gutxieneko % 14,2tik aldendu da, eta berriro ere, 1996ko % 17,4 baino txikiagoa da soilik.


Deskarga elektrikoaren kasuan, 2013an arriskuan zeuden soldatapekoen ehunekoa % 9,1 izan zen, 1996ko % 10,3 baino txikiagoa eta 2004ko % 8,7tik eta 2009ko % 9,3tik hurbil. Adierazlea 2000ko gutxieneko % 8,1etik soilik aldendu da.

Antzeko gauza bat esan ahal da jendearekin tentsioak izateari dagokionez. Kasu horretan, 2013an eraginpean zeuden soldatapekoen % 20,7 apur bat txikiagoa da 2000ko % 22,3 eta 2009ko % 21 baino. Aldiz, adierazlea argi eta garbi handiagoa da 1996ko % 18,8 nahiz 2004an erregistratutako gutxienekoa –% 17,2– baino.

Zirkulazio-istripuak aparteko kasua dira, soldatapekoengan duten eragina etengabe gora joan delako 1996ko % 16,6tik 2013ko % 29,8ra. Zalantzarik gabe, arrisku-modalitateen artean epe luzean 1996az geroztik gora egiteko joerarik nabarmena izan du horrek.


Arriskuen gorakadarik deigarrienetako bat da akatsengatik zigorra jasotzeko aukerari dagokion adierazlearena. Kasu horretan, arriskuan zeuden soldatapekoen proportzioa 1996an % 18,4 zen; gero, % 16tik apur bat goragoko kopuruetara behera egin zuen 2000n zein 2004an. Urte horretatik aurrera, hala ere, adierazleak berriro ere gora egin zuen. 2009an % 21,8ra, eta 2013an gehienekora, % 27,2ra.

83. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

84. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Eragozpen, karga eta arriskuen baterako eraginaren murrizketak zerikusia du babes-ekipamenduen erabileraren gorakada orokorrarekin. Horren atzean, hala ere, okertu diren elementu batzuk daude

Eragozpen, karga eta arriskuen presentzia ezaugarri duten egoeren eraginak behera egin du. Horrek zerikusia du babes-ekipamenduen erabileraren gorakada esanguratsuekin. Babes-ekipamenduen erabilera 2009ra arte % 45,7 eta % 47,8 bitarteko kopuruetan egon da. 2013an, soldatapekoen eta antzekoen % 54,7ra arte handitu da erabilera hori.

Hala ere, gorakada horrekin batera, babes-maila okertu da esparru batzuetan, adibidez osasunean edo ekoizpenean. Osasun arloko goi-mailako tituludunen kasuan, babes-neurriak erabiltzen dituen biztanleriaren proportzioa 1996ko % 76,1etik 2009ko % 83,5era handitu zen. Gero, 2013an % 76ra arte murriztu da, 1996koen antzeko kopuruetara. Ekoizpenaren esparruan antzeko joera ikusi da. Kasu horretan, hala ere, 2009ko % 88,1etik 2013ko % 85era egon den beherakadak oraindik ere azken urte horretan erregistro hobe agerrarazten du 2004ra arte ikusitakoak baino.

85. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Hurbilketa espezifikoagoa eginez, narriadura ezaugarri duten esparru batzuk detektatu dira. Hauek dira:

- * Objektuak edo materialak erortzeko arriskuak gora egin du. 2000 eta 2009 bitartean biztanleriaren % 14-15 zegoen arriskuan; 2013an, aldiz, % 16,6. Hala ere, arrisku-egoeran dauden biztanleen artean kaskoaren erabilerak behera egin du 2009ko % 50,2tik 2013ko % 43,6ra. Kopuru hori ez da asko aldentzen 2000ko eta 2004ko % 41,6 eta % 42,6 bitarteko kopuruetatik.
- * 2013an gora egin du goietatik erorikoa izatearen arriskuak (% 13,3, 2000 eta 2009 bitarteko % 12,3tik % 13ra arteko kopuruen aldean), eta aldi berean, arnesaren erabilerak behera egin du 2009ko % 43,6tik 2013ko % 34ra. Kasu horretan, 2013ko adierazlea 2004ko % 37,2tik behera ere dago, eta 2000ko % 33,2tik ez oso urrun.


- * Eskularruen erabilerak ere jaitsierak izan ditu 2009 eta 2013 bitartean, erremintek edo materialek eragindako zaurien, deskarga elektrikoaren edo erreduren aurrean (azken kasu horretan 2004arekin alderatuta ere jaitsi da), kasu batzuetan izan ezik: infekzioaren aurrean, gehienekoa % 40 izan da 2013an, eta toxikoak manipulatzeko, % 51,6, hori 2004ko % 52,4k soilik gainditzen duela. Arriskuan dagoen biztanleria osoan, eskularruen erabilerak behera egin du, 2004ko eta 2009ko % 34,7- % 34,8tik 2013ko % 33ra. Kasu horretan, behera egin du soldatapekoen arrisku-mailak, 2009ko % 48,4tik 2013ko % 45,4ra. Azken kopuru horrek, hala ere, 2004ko % 43,2 gainditzen du.
- * Erabateko babesaren erabilerari dagokionez, 2013ko kopuruek orokorrean beheranzko egonkortze-ildoan agertzen dute. Hala, arriskuen bat duten biztanleen artean, horrelako jantzien erabilerak behera egin du % 30,9tik % 29,1era 2009 eta 2013 bitartean. Hala ere, kopuruak askoz handiagoak dira 2004ra arte ikusitakoak baino, eta gehienekoa % 21,5 izan da. Gainera, erradiazio-arriskuan erabilerak hobera egiten jarraitzen du, eta 2013an gehieneko kopurura heldu da, % 42,6ra.

Aldiz, beste esparru batzuek askoz bilakaera hobeak erakutsi dute. Hala:

- * 2013an maskararen erabileraren kopururik onenak ikusi dira 1996az geroztik infektatzeko arriskua dagoenean (% 40), hautsa arnasten denean (% 44,5) edo kea arnasten denean (% 44,9). Proportzioa % 51,8 da toxikoak arnasten direnean, % 52,4 baino apur bat beherago, baina era berean kopuruak 2004ra arte ikusitakoak baino handiagoak dira.
- * Ikusmenekoak ez diren arrisku fisikoen kasuan, babes-betaurrekoen (ez-optikoak) erabilera biztanleriaren % 44,8ra heldu da 2013an, 2009ko % 47,6 baino beherago. Hala ere, kopuruak 2004ko % 43 gainditzen du, eta testuinguru horretan, arrisku-mailek apurka behera egin dute. Beste alde batetik, ordenagailua erabiltzean babes-betaurrekoak erabiltzen dituzten biztanleen artean gehieneko kopurura heldu da, % 13,6ra. Dena dela erabileraren kopuru horiek oso txikiak dira. Testuinguruan, arrisku-maila askoz handiagoa da 2000. eta 2004. urteekin alderatuta.
- * Azkenik, soinu-babesgarrien erabilera gehieneko kopurura heldu da, 2013an zarata handien eraginpean dauden biztanleen % 64,1era. Aldi berean, kasu horretan, behera egin dute arrisku-egoerak gutxieneko mailara, biztanleen % 20,2ra, urte horretan.

86. grafikoa

**Arriskuak jasaten dituzten eta babes-ekipamenduak erabiltzen dituzten soldatapeko eta antzekoak, arrisku-
motaren arabera. Euskal AE. 1996-2013**
(%)




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gora egin du laneko arriskuei buruz informazio nahikorik ez dutela uste duten langileen proportzioak

Arriskuan dauden soldatapekoen artean laneko arriskuei buruz behar adina informazio ez duten soldatapekoak 2000n % 24,1 ziren, eta behera egin zuten 2004ko % 15,4ra, eta 2009ko % 10,8ra. Gerora ehuneko horrek gora egin du % 14,4ra.

Nabaritzen den okertze hori deigarria da lan-eduki jakin batzuetan. Modu deigarrian gertatzen da hori osasun arloko goi-mailako tituludunen artean. Kasu horretan, 2000n eta 2004an kopuruak % 22 baino apur bat handiagoak ziren, eta 2009an % 5,3 ziren. 2013an, aldiz, proportzioak berriro gora egin zuen, % 18,8raino. Joera antzekoa da –baina ez hain nabarmena– bulegoko lanaren kategoria altu eta ertainetan eta hirugarren sektoreko ekoizpenean, eta orokorrean merkataritza-lanean eta bestelako zereginetan. Edukien multzo horretan, arrisku-taldeetan informazio-falta 2000ko % 23,3tik 2009ko % 9,8ra murriztu da, baina 2013an berriro ere igo da % 17ra. Gainerako edukietan, aldiz, informazio-falta 2009ko kopuruetan mantendu da, 2013an % 11,8. Kopuru hori modu nabarmenean urruntzen da 2000ko % 24,5etik.

87. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


2009 eta 2013 bitartean behera egin du laneko segurtasun eta osasunarekin zerikusia duten jardueretako partaidetzak

Laneko osasunaren arriskuei buruzko informazioarekiko gogobetetze ezan 2009 eta 2013 bitartean ikusitako gorakadarekin batera, laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako jardueretako partaidetzak

ia-ia orokorrean behera egin du. Alde horretan, 2009 eta 2013 bitartean % 81,9tik % 75era behera egin du egindako azterketa medikoen kopuruak, eta % 66,7tik % 55,2ra laneko segurtasun eta osasunari buruzko prestakuntza-jardueretako partaidetzak. Enpresako prebentzio plana 2009an % 61,9n zegoen, eta 2013an % 51,7n. Era berean, % 60,6tik % 49,8ra behera egin du arriskuak ebaluatzeko azterlanen eraginak.

Joera berbera detektatu da instalazioetan edo erakundean hobetzeko ekintzak egiteari dagokionez (2013an % 38,6, eta 2009an % 55,1) edo babes-ekipamenduei dagokienez (2013an % 38,3, eta 2009an % 53,4). Kasu horietan, benetan, adierazleak 2004ko kopuruak baino beherago jaitsi ziren, eta urte hartan hurrenez hurren % 41 baino apur bat gorago egon ziren.

88. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Behera egin du lantokian Laneko Segurtasun Batzordeen edo Prebentzio Delegatuen presentziak


Ikusi den gorakadak lotura du lantokian Laneko Segurtasun Batzorderik edo Prebentzio Delegaturik edo figura baliokiderik ez daukatela dioten soldatapekoen kopuruaren gorakadarekin. Proportzio horrek etengabe behera egin zuen 1996az geroztik. 1996ko % 36,7tik 2009ko % 16,9ra jaitsi zen. Hala ere, 2013an zifrak gora egin du berriro ere % 21,5era arte. Enpresan figura horien presentzia jaitsi egin da 2009ko % 72,1etik 2013ko % 66,9ra. Hala ere, kopuru hori oraindik handiagoa da 2004ko % 62,4 baino.

Nolanahi ere, bajen eraginaren beherakada da laneko giroarekin lotutako alderdietan 2009 eta 2013 bitartean egon den aldaketarik garrantzitsuena

Krisiarekin lotutako presioaren ondorioz izan (enpleguan irautea askoz beharrezkoa da), edo lan-baldintzetan eragozpen, karga edo arrisku batzuen kontrolaren ondorioz izan, gertakari erabakigarri bat da 2009-2013 epealdian laneko bajen eraginaren beherakada, bai kopuru absolututan, bai kopuru erlatiboetan.

Kopuru absolututan, aurreko 12 hilabeteetan laneko baja izan duten soldatapekoen edo antzekoen bolumena 2009an 139.486 pertsonatik 2013an 73.334ra jaitsi da. Beherakada % 47,4koa izan da. Jaitsiera hori bereziki handia da laneko gaixotasunaren ziozko baijari dagokienez. 2009an 97.500 pertsona izan ziren, eta 45.286ra jaitsi dira (-% 53,6). Dena dela, modu deigarrian jaitsi da laneko istripuen bajen kopurua, 2009an 48.108 pertsona izan ziren, eta 2013an, aldiz, 31.845 (-% 33,8).

89. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Kopuru erlatibotan, bajen eraginak soldatapeko eta antzeko landunen % 17,2tik (2009) % 9,4ra (2013) jaitsi da. Jaitsiera deigarria izan da alderdi bitan. Alde batetik, lehenagoko joera orokorrean goranzkoa izan zen, 1996ko % 12,6tik, baina 2000 eta 2004 bitartean % 15,0tik % 13,7ra jaitsi zen; beste alde batetik, 2013ko bajen kopurua txikiena izan da 1996az geroztik, eta ehuneko 3 puntu baino gehiago dago laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdeko kopururik behera.

Azaldutako errealitatea bajen mota batzuen eta besteen ezaugarria da, bana agerikoagoa da laneko gaixotasunei dagokienez. Kasu horretan, 2009an soldatapekoen % 12 zeuden eraginpean, eta 2013an

aldiz, % 5,8. Kopuru hori txikiagoa da 2000ko eta 2004ko % 8,4-% 8,8 bitartekoak baino, eta askoz hurbilago dago 1996ko % 6,3tik baino. Orduan ere krisi ekonomiko bat amaitu zen.

Hala ere, laneko istripuen ziozko bajei dagokienez ere jaitsiera deigarria da. 2009 eta 2013 bitartean behera egin dute % 5,9tik % 4,1era, orain arte ikusitako jaitsierarik handiena. Kasu horretan, hala ere, joeraren ildo argi eta garbi beheranzkoa da, 1996ko eta 2000ko % 6,6-% 7ko kopuruetatik. Bajarik gabeko eragozpenen eragina, beste alde batetik, nahiko egonkorra izan da, 2013an soldatapekoen % 23,9 zeuden eraginpean. Kopuru hori 2004ko % 23,1etik nahiz 2009ko % 24,8tik hurbil dago.


90. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lan-edukiaren arabera, baje eragin erlatiboaren beherakada fenomeno orokorra izan da, eta 2013an eraginaren kopururik txikiak izan dira lan-edukien talde batzuetan eta besteetan. Hala ere, jaitsierarik handiena ekoizpen-jarduerena izan da. Esparru horretan, adierazleak behera egin du % 21,6tik % 12,4ra, 2006az geroztik kopururik txikienera. 2009 eta 2013 bitarteko jaitsiera 6 eta 7 puntu bitartekoa da gainerako edukietan. 2013an, baje eragina kopuru txikiagoetan egon da eduki horietan (% 9,6 bulegoko eta merkataritzako jardueren kategoria baxuetan eta bestelako zereginetan eta % 6,1 ekoizpenaz bestelako kategoria ertain eta altuetan).


91. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Bajen dinamikan egon den paradoxa hau da: horien eraginaren beherakada bat dator egunen aldetik iraupenak izan duen gorakadarekin. Hala, 2009 eta 2013 bitartean laneko istripuen ziozko baja-egunen kopuruak gora egin du 26,8tik 40,3ra. Horrenbestez, baja-egunen bolumena oso antzekoa da bi urteetan, baina bi kasuetan askoz txikiagoa da 1996-2004 epealdikoak baino.

92. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

93. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gauza bera gertatzen da laneko gaixotasunen ziozko bajekin. 2009an batez beste 37,5 egun ziren, eta 2013an, aldiz 48,1 egun. Hala ere, kasu horretan, bajaran metatutako egunen bolumena askoz txikiagoa izan da 2004koa nahiz 2009koa baino, eta 2000koaren antzekoa izan da.

Ekipamenduei, laneko giroari eta arriskuei buruzko beste alderdi batzuk

Ekipamenduei, laneko giroari eta arriskuei dagokienez, beste alderdi esanguratsu batzuk aipatu ahal dira:

- * Ekipamenduen erabilerari dagokionez, 2009 eta 2013 bitartean berriro gora egin du zenbakizko kontroleko makinen erabilerak. 1996 eta 2000 bitartean mota horretako makinak erabili ohi dituzten soldatapeko eta antzekoen proportzioak gora egin zuen % 3,8tik % 6,7ra, eta 2009an behera egin zuen % 6,2ra arte. 2013an, berriz, gehieneko kopurura heldu zen, % 8,5era. Aurrerapauso hori zuzendaritzako jardurekin, osasun arloko goi-mailako tituludunekin eta industria-ekoizpenarekin lotzen da.
- * Makina-erreminten ohiko erabilerak etengabe behera egin zuen 1996 eta 2009 bitartean, baina 2013an gora egin zuen % 15,2ra arte. Proportzio hori handiagoa da 2004ko eta 2009ko kopuruak (% 13-% 13,5) baino ere bai.

5. GOGOBETETZEA LANEAN

Gogobetetze ezak gora egin duen arren, lanarekiko gogobetetze orokorra kopuru handietan mantendu da 2013an


2009 eta 2013 bitartean gora egin du % 10,1etik % 12,8ra lanpostuarekin modu batean edo bestean pozik ez dauden soldatapeko eta antzekoen proportzioak. Hala ere, azterketatik sortzen den irudian ikusten da gogobetetze-maila handiak mantendu direla eta alderdi batzuetan hobetu ere egin direla.

Alde horretan, biztanleen % 87,2k dio lanpostuarekin nahiko pozik edo oso pozik dagoela. Proportzio hori jaitsi egin da 2009ko % 89,9rekin alderatuta, baina argi eta garbi 1996 eta 2004 bitartean ikusi ziren % 83,4 eta % 84,8 bitarteko kopuruetatik askoz gorago dago.

Gainera, gora egin du haien lanpostua oso gogobetegarri gisa baloratzen duten pertsonen proportzioak. Proportzio horrek 1996 eta 2004 bitartean behera egin zuen % 19,6tik % 14,5era. Gero, adierazleak gora egin zuen 2009an % 23,1era arte, eta 2013an apur bat igo da % 23,4ra arte. 1996tik erregistratu den kopururik handiena da.

Nagusi diren dinamikekin bat etorriz, haien lanarekin batere pozik ez dauden pertsonen ehunekoa 2013an % 1,6 besterik ez da izan, eta apur bat jaitsi da 2004ko eta 2009ko % 1,7rekin alderatuta, baina argi eta garbi urrun dago 2000ko % 2,6tik eta 1996ko % 3,2tik.

94. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Joera orokorren atzean, dena dela, ikusten da okertze nabarmena gertatu dela lan-eduki batzuetan, eta sexuaren eta adinaren arabera taldeen arabera ere bai

Nolanahi ere, esan behar da dinamika oso diferentea dela lanaren edukia kontuan hartuta. Kasu batzuetan, 2009 eta 2013 bitartean behera egin du haien lanpostuarekin pozik ez dauden pertsonen proportzioak. Hala gertatu da industriako edo hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria baxuetan. Esparru horietan, 2013an gogobetetze-ezaren kopururik txikiena izan zen 1996tik (% 15,3, eta 2000n, aldiz, % 23,5). Beste kasu batzuetan, gogobetetze-ezaren gorakada ehuneko 1 eta 2,5 puntu bitartekoa izan da 2009 eta 2013 bitartean. Hala gertatu da zuzendaritza-jardueretan, irakaskuntza arloko goi-mailako tituludunen artean eta industria-ekoizpenaren kategoria altu eta ertainetan. Lan-edukien multzo horretan 2013an gogobetetzea % 8,2koa zen. 2009ko % 6,4 baino handiagoa da, baina 1996 eta 2004 bitarteko kopuruak baino txikiagoa da (% 11 eta % 13,8 bitartean).

95. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Merkataritzako eta bulegoko jardueran, 2009-2013 epealdiko gogobetetze-ezaren gorakada 4 puntu ingurukoa da. 2009 eta 2013 bitartean gogobetetze-ezak gora egin du % 9,3tik % 13,1era, eta 2004ra arte nagusi izan diren % 12,6 eta % 13,3 bitarteko kopurueta hurbildu da.

Azken lau urteetan, lanarekiko gogobetetze-ezaren gorakada 5,6 puntukoa izan da hirugarren sektoreko ekoizpenarekin lotutako kategoria altu eta ertainetan, 6,5 puntukoa osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean eta 9,7 puntukoa bestelako zereginetan. Bestelako zereginetan, 2013ko proportzioa oraindik 1996 eta 2004 bitarteko kopuruak baino txikiagoa da (% 15,8, 2004ra arteko % 16,9 eta % 19,3 bitarteko kopuruen aldean), eta osasunaren arloko goi-mailako tituludunak ere 1996ko eta 2004ko kopuruetatik behera geratu dira (% 15,5, 1996ko % 20,1en eta 2004ko % 16,9ren


aldean). Aldiz, hirugarren sektoreko kategorია altu eta ertainetan 2013ko % 17,8 aurretiaz ikusitako gehieneko kopuruaren antzekoa da, 2000ko % 18ren antzekoa, alegia.

Sexuaren eta adinaren arabera, bi kategoriatan lanpostuarekiko gogobetetze-ezak nabarmen gora egin duela ikusi da. Alde batetik, 30 urtetik beherako gizonen artean, 5 puntuko gorakada egon da 2009ko % 12,2ren eta 2013ko % 17,2ren artean. Kopurua 2004ko % 16,3 baino handiagoa ere da, baina 1996ko % 18,5etik eta 2000ko % 20,7tik behera dago.

Beste talde bat 30 eta 44 urte bitarteko emakumeena da. 6,5 puntuko gorakada egon da 2009ko % 8,1en eta 2013ko % 14,6ren artean. Dena dela, ehuneko hori 1996 eta 2004 bitarteko kopuruak baino txikiagoa izan da. 2000n gutxieneko kopurura izan zen, % 16,5, epealdi horri dagokionez.

Gainerako gizon eta emakumeen artean, gogobetetze-ezaren gorakada ehuneko puntu baten eta 2 punturen artean egon da 2009-2013 epealdian. 2013ko kopuruak, hala ere, 1996-2004 epealdikoak baino txikiagoak izan dira. Hala, 30 urtetik gorako gizonen % 12,3 2009ko % 10,5 baino handiagoa da, baina 1996 eta 2004 bitarteko % 13tik % 15,7ra bitarteko kopuruetatik behera mantentzen da. 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako emakumeen 2013ko % 11,2 2009ko % 10,3 baino handiagoa da, baina askoz argiago urruntzen da 2004ra arte erregistratutako % 15,3tik % 16,6rako kopuruetatik.

96. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gogobetetze-ezak gora egiteko faktore nagusiak

Gogobetetze-ezaren goranzko joera sorrarazi duten faktore nagusiak 97. grafikoan ikusi ahal dira. Horri dagokionez zenbait alderdi nabarmen aipatu ahal dira:

97. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Okertzea ia-ia orokorra da eta oso deigarria sustapenari dagokionez. 2013an, alderdi hori da gogobetetze-ezaren faktoreen artean gehien aipatzen dena

Lehenengoz, egiaztatu da alderdi batzuetan egoerak okerrera egin duela nabaritu dela orokorrean. 2009-2013 epealdian esparrurik deigarriena sustapenerako aukerena da. Kasu horretan, gogobetetze-eza mailaren batean erakusten duten soldatapekoen proportzioak gora egin du 2009ko % 27,3tik 2013ko % 40,4ra, 2000ko % 39,7ren antzeko kopurura. Gorakada hori gorabehera, gogobetetze-ezaren ehunekoa urrundu egin da 1996ko % 65etik nahiz 2004ko % 45,4tik. Nolanahi ere, esanguratsua da 2013an gogobetetze-ezaren elementurik garrantzitsuena izatea, ordainsarien gainetik ere.

Salbuespen eskas batzuetan (30 urtetik beherako emakumeak eta hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria baxuak), mota guztietako lan-edukietan edo sexu eta adinaren arabera taldeetan gora egin du gogobetetze-ezaren adierazleak, ehuneko 10 puntu baino gehiago 2009 eta 2013 bitartean. Okertzerik nabarmenena, 2004ko kopuruekin alderatuta 3 puntutik gorako igoera ekarri duena gogobetetze-ezaren mailetan, merkataritzaren edo bulegoaren esparruetako kategoria altu eta ertainetan ikusten da.

Ordainsariari, nagusiekiko harremanari, lan-erritmoari edo estresari eta presio psikologikoari buruzko alderdietan okertzea ia-ia orokorra da, baina kopuruei dagokionez ez da oso esanguratsua


Ordainsariarekin pozik ez egotea lanpostuarekiko gogobetetze-ezarekin oso lotuta egoten den elementua da oraindik ere, baina haren goranzko joera sustapen faktorearen joera baino neurritsuagoa da. 2009an soldatapekoen % 32,8ri eragiten zion, eta 2013an, aldiz, % 38,9ri. 1996ko % 38,7ren antzeko kopurua da, baina 2000ko eta 2004ko % 43-44 inguruko kopuruak baino txikiagoa.

Paradoxikoa den modu batean, beste alde batetik, ordainsariarekiko gogobetetze-ezaren gorakada ez da ekoizpen-sistemako lanbide-kategoriarik baxuenen ezaugarria (salbuespen bakarra bulegoko lanarekin lotutako biztanleria da, esparru horretan gogobetetze ezak gorakada handia izan du, 20 puntutik gorakoa). Gorakadarik handienak, benetan, lanbide-kategoria altu eta ertainetako batzuei dagozkie.

2009 eta 2013 bitartean, gogobetetze-ezak ehuneko 9,1 puntu egin du gora zuzendaritzaren esparruetan, % 18,3tik % 27,4ra; hori, dena dela, 2000 eta 2004 bitarteko kopuruetatik behera dago – % 30 baino gehiago—. Gainerako kategoria altu eta ertainetan (industria-ekoizpena alde batera utzita), bulegoko kategoria baxuetan eta bestelako zereginetan, gorakada ehuneko 13,2 puntuetara heltzen da, eta 2009ko % 27,3tik % 40,5era igo da. 1996az geroztik gogobetetze-ezaren kopururik handiena da, eta lan-edukien kategoria handien arabera handiena ere izan da 2013an.

Kontrastea industria-ekoizpenak eta kategoria baxuek markatzen dute (bulegoek izan ezik), 2013an soldatapekoen % 39,1 ez baitzen pozik egon. Ordainsariarekiko gogobetetze-kopuru horiek, konparatuta, handiak dira, baina lan-edukien talde horretan 1996az geroztik proportziorik txikiena ere da (% 44 inguruko edo hortik gorako kopuruak 2004ra arte eta % 39,9 2009an).

98. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren arabera, ordainsariarekiko gogobetetze-ezaren goranzko joera 45 urtetik gorako gizonekin eta 30 urtetik gorako emakumeekin lotzen da, eta ehuneko 9 puntu inguruko gorakadak edo hortik gorakoak egon dira 2009 eta 2013 bitartean.

Pozik ez dauden pertsonen proportzioa 2013an kopururik handienetara iritsi da 1996tik 45 urtetik gorazko gizonen artean (% 40,6; lehenago, gehieneko kopurua 2000ko % 39,4 izan zen). Beste alde batetik, 30 urtetik gorako emakumeen artean gogobetetze-ezaren egoeren eragina 2000-2004 epealdikoa baino apur bat txikiagoa da (2013an % 39,9; 2000n eta 2004an, aldiz, % 41).

Ordainsariarekin pozik ez dauden pertsonen ehunekoa 2013an % 37 baino apur bat txikiagoa izan da 30 urtetik beherako pertsonen artean (gizonak zein emakumeak). Kasu horretan, 2013ko gogobetetze-ezaren kopuruak 2009koen antzekoak dira (gizonen artean % 36,6, % 35en aldean, eta emakumeen artean % 36,9, % 36ren aldean) eta argi eta garbi 1996-2004 epealdikoak baino txikiagoak, betiere epealdi horretan % 40tik gorako kopuruekin.

99. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Nabarmentzekoa da estres edo presio psikologikoko egoeren eraginaren gorakada; izan ere, 2009an soldatapekoen % 22,7ri eragiten zion, eta 2013an, berriz, % 28,7ri. Kasu horretan, eraginpean dagoen biztanleriaren proportzioa 2004ko % 28,1etik hurbil dauden kopuruetara itzuli da, eta ez da gehiegi urrundu 2000ko % 31,1etik.

Laneko presio psikologikoaren gorakada 2009 eta 2013 bitartean zuzendaritzarekin, osasun arloko goi-mailako titulazioekin eta bulegoko kategoria ertain eta altuekin lotzen da. Kasu horretan, adierazleak gora egin du % 19,5etik % 33,9ra, eta 2000ko eta 2004ko % 33-34 inguruko balioetara itzuli da. Gorakada era berean nabarmena da gainerako kategoria altu eta ertainetan eta merkataritzako eta bulegoko jardueren kategoria baxuetan. Eraginpean dagoen biztanleria 2009an % 24 zen, eta 2013an, aldiz, % 29,6. Hala ere, kopuru hori 1996-2004 epealdiko erregistroetatik behera geratu da, eta 2004an gutxienezkoa jo zuen, % 31.

Bilakaerarik onena ekoizpenaren kategoria baxuei eta bestelako zereginen taldeari dagokie. Esparru horiek arazoaren eraginik txikiena jasan dute 2013an, % 23. Funtsean, kopuru hori 2004ko eta 2009ko kopuruen antzekoa da (% 22,3 eta % 22,8, hurrenez hurren).

100. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Okertze ia-ia orokorra beste esparru batean ere gertatu da, nagusiekiko harremanean, alegia, irakaskuntzarekin lotutako esparruan izan ezik. Gogobetetze-ezaren gorakada, dena dela, apur bat moderatuagoa izan da, 2009 eta 2013 bitartean eragindako pertsonen kopurua % 10,1etik % 14,2ra igo baita. Hala, 2000n eta 2004n nagusi ziren mailetara itzuli dira, eta 1996ko % 12,9 ere gainditu da.

Sexuaren eta adinaren arabera, gai horri buruz gogobetetze-eza handitu dela azaltzen dute gehienbat 30 urtetik beherako pertsonen (gizonen artean ehuneko +7,3 puntu, eta emakumeen artean +5,7).

Antzeko dinamika ikusten da lan-eritmoari dagokionez. Esparru horretan, pozik ez dauden pertsonen proportzioa 2009an % 12,2 zen; 2013an, aldiz, % 16,2. 2004ko % 16,1en antzeko kopurua da, baina argi eta garbi 2000ko % 18,5en eta 1996ko % 28,5en azpitik dago.


Kasu horretan, okertzea diferentziala da, eta 2009arekin alderatuta ehuneko 10 puntuak gainditzeko dira zuzendaritza-jardueretan, osasun arloko goi-mailako titulazioetan, hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria altu eta ertainetan, bulegoko jardueretan eta bestelako zereginetan. Lan-eritmoaren multzo horretan, lan-eritmoarekin pozik ez daudela dioten soldatapekoen kopuruak gora egin du % 8,6tik % 18,8ra 2009 eta 2013 bitartean. 2000z geroztik kopururik handiena da, eta soilik 1996ko % 27,7tik beherakoa da.

2009 eta 2013 bitartean, gorakada ehuneko 2,5 puntukoa izan da irakaskuntzako goi-mailako tituludunen artean, orokorrean merkataritza-jardueretan industria-ekoizpenaren kategoria altu eta ertainetan. Kasu horretan, 2009an pozik ez dagoen biztanleria % 12,6 zen. 2013an aldiz, % 15,1.

Kopurua 2004ko % 14,4 baino handiagoa da, baina 2000ko % 18,7tik eta 1996ko % 26,7tik oso urrundu dago.

Aldiz, sendotu egin da lan-eritmoarekin gogobetetze-ezaren beherakada ekoizpenaren kategorian baxuetan. Kasu horretan, pozik ez dauden pertsonen proportzioak etengabe behera egin du, 1996an % 32 zen, 2000n % 20,8, 2004an eta 2009an % 17,1, eta gutxieneko kopurua 2013an, % 13,7.

101. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lan-baldintzen beste alderdi batzuetan okertzea mugatuagoa da, eta selektiboagoa ere bai

Gogobetetze-ezaren adierazleen gorakada, kopuru aldetik mugatuagoa da eta askoz selektiboagoa da lan-baldintzekin lotutako beste alderdi batzuetan:

* Laneko giroarekin eta baldintza materialekin pozik ez daudela dioten pertsonen proportzioak gora egin du % 10,2tik % 12,2ra 2009 eta 2013 bitartean. Kopuru hori handiagoa da 2004ra arte erregistratutakoak baino. Kasu horretan, gorakada ehuneko 3,6 eta 5,5 puntu bitartekoa da bestelako zereginetan eta industria-ekoizpenean. Gorakadarik handiena, hala ere, 9,6 punturekin, osasunaren arloko goi-mailako tituludunena da.

* Laneko ordutegiari buruzko gogobetetzea 2009ko % 15,7tik 2013ko % 17,1era igo da. Kopuru horiek argi eta garbi 2000ko eta 2004ko kopuruetatik behera daude (% 22,8 eta % 19,6). Lan-eritmoarekin batzuek, hala ere, faktore horri dagokionez okertze nabarmena agerrarazten dute. Bulegoko

kategoria baxuetan gogobetetze-ezaren ehuneko 3,9 puntuko gorakada nabarmentzen da, eta horrez gain, kategoria altu ertain batzuetan gogobetetze-ezaren gorakada handia ere bai: Hirugarren sektoreko ekoizpenean 7,3 puntu, zuzendaritza-jardueretan 9,4 puntu, eta osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean 11,1.

- * Gogobetetze-ezaren kopuruen gorakadak are garrantzi txikiagoa dauka lanaren gogortasunari eta kargei dagokienez. Kasu horretan, arazoak soldatapekoen artean duen eraginak gora egin du 2009ko % 15,7tik 2013ko % 16,5era, baina neurri handi batean epe luzean beheranzko joerari eutsi dio, 1996ko % 29,4tik hasita ikusi den bezala. Hala ere, 2009 eta 2013 bitartean okertze nabarmena ikusi da kategoria batzuetan. Ehuneko 4,8 puntuko gorakada egon da zuzendaritzan, 7,6 eta 7,9 puntu bitartekoa bulegoko kategoria baxuetan eta bestelako zereginetan eta 10,3 puntukoa osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean.
- * Antzeko emaitzak ikusi ahal dira laneko arriskuei dagokienez, % 12,3tik % 13,4ra arteko gorakada egon baita gogobetetze-ezaren kopuruetan 2009 eta 2013 bitartean. Kasu horretan egiaztatu ahal da arazoaren eraginaren beheranzko joera egon dela 1996ko % 27,1etik, 2000ko % 17,6tik eta 2004ko % 16,4tik. 2009-2013 epealdiko okertzeak gorabehera, gutxienez ehuneko 2,7 eta gehienez 3,4 puntuko gorakadak ikusten dira lan-eduki batzuetan, adibidez zuzendaritzan, bulegoko kategoria altu eta ertainetan eta hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria baxuetan. Hala ere, osasunaren arloko goi-mailako titulazioekin zerikusia duen esparruan agertzen da berriro ere okertzerik handiena. Kasu horretan, gogobetetze-ezaren gorakada ehuneko 9,2 puntukoa da
- * Ildo berean, gorakada txikiagoa izan da lanpostuaren edukiari eta zereginei dagokienez, gora egin du gogobetetze-ezak 2009ko % 9,3tik 2013ko % 10era. Azken kopuru hori argi eta garbi 2004ko % 13,3tik eta 2000ko % 14,8tik behera mantendu da.


Hala ere, besteak beste alderdi horretan ikusten da gogobetetze-ezaren kopuruak nabarmen okertu direla, ehuneko 3 puntutik hurbilekoa edo hortik gorakoa, lan-edukien eta sexu eta adinaren arabeko taldeen artean lanpostuarekiko gogobetetze-ezaren okertze orokorra detektatu den horietan (industria-ekoizpenaren kategoria baxuetan eta 45 eta 64 urte bitarteko emakumeen artean izan ezik). Hiru kategoriatan (osasunaren goi-mailako titulazioak, merkataritza-esparruko kategoria altu eta ertainak eta bulegoko kategoria baxuak), gogobetetze-ezaren gorakada 2004ko kopuruetatik gorakoa da, ehuneko 3 puntu handiagoa edo gehiago.

Lana aldatzeari buruzko planteamenduen kopuruak oraindik txikiak dira, bereziki aldaketarako kudeaketak azaltzen direneko planteamenduak

Gogobetetze maila garrantzitsuak mantentzen direnez, lana aldatzeko planteamenduak kopuru txiki samarretan mantendu dira, argi eta garbi goranzko joera agertzen den arren. Hala, % 16,7tik % 19,6ra igo da lana aldatzeko aukera buruan duela dioen biztanleriaren proportzioa. Kopuru hori 2004koaren berdina da, baina 1996ko % 20,7 eta 2000ko % 23,9 baino txikiagoa.

Aldatzeko planteamenduaren ondorioz kudeaketa zehatzak egin direneko kasuak aztertzean, goranzko ildoan moteltzen da, eta zerikusia duten pertsonen proportzioak gora egin du soilik 2009ko % 7,5etik 2013ko % 8,3ra. Adierazlea 1996ko % 8,1en antzekoa da, eta 2000ko % 10,6tik eta 2004ko % 9,2tik behera dago.

102. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2004 eta 2013 bitartean, aldatzeko eskarien goranzko joera, kudeaketa zehatzei lotuta, argiago agertzen da lan-eduki batzuetan, bereziki irakaskuntzako goi-mailako titulazioen esparruan eta bulegoko jardueretan. Kasu horretan, aldatzeko eskaria –kudeaketei lotuta– etengabe igo da 2004ko % 6,4tik 2013ko % 8,5era. Kopuru hori soilik 1996ko % 9,4 baino txikiagoa da argi eta garbi, baina 2000ko % 8,7ren antzekoa da.

Edukien multzo horretarako, 2013ko erregistroak gainerako lan-edukietan gora egin du % 7,6tik % 8,2ra, kasu horretan 1996ko % 7,8 baino handiagoa da, baina urrun dago 2000ko % 11,1etik zein 2004ko % 9,9tik.

Deigarria da honako hau ere bai: laneko baldintzekiko gogobetetze-ezak gorakada nabarmena izan duen arren, osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean eta bestelako zereginetan behera egin du enplegu berriaren eskariak 2009 eta 2013 bitartean.

2013ko egoeran alderdi nabarmenetako bat hau da: modu nabarmenean gora egin du lana galtzeko beldurrarengatik aldatzea planteatzen duten pertsonen proportzioak. Aldaketa planteatzen duten pertsona guztien artean, aldaketa kudeatu duten ala ez kontuan hartu gabe, arrazoi horren kopurua 1996an % 13,4 zen, eta 2009an % 11. Hala ere, 2013an lana aldatzeko arrazoiak % 24,2 da.

6. LAN-BALDINTZEN OKERTZEARI BURUZKO PERTZEPZIOA

Gaur egungo soldatapeko eta antzekoen % 28,1ek dio lan-baldintzek okerrera egin dutela 2009 eta 2013 bitartean


2009 eta 2013 bitartean, EAEko soldatapekoen eta antzekoen % 28,1ek dio lan-baldintzek nabarmen egin dutela okerrera.

Lanbide-talde guztiak jasan dute horren eragina, baita sexuaren eta adinaren arabeko taldeek ere, baina laneko posizioaren edo biztanleriaren ezaugarrien arabera diferentzia nabarmenak daude. Lanaren edukiari dagokionez, okertze nabarmena egon deneko kasuen proportzioa % 18,3 eta % 23,3 bitartekoa da merkataritza-jarduerekin edo ekoizpen-jarduerekin zerikusia duten kategoria baxuetan. Multzoan hartuta, 2009 eta 2013 bitartean okertzearen eraginpean egon da talde honetako soldatapeko biztanleriaren % 21,1.

Proportzioa zertxobait handiagoa da (% 24 eta % 26,5 bitarteko kopuruak) azaldutako jarduerekin lotutako kategoria altu eta ertainetan eta bulegoko zereginetan. Zuzendaritza-jardueretan proportzioa % 31,4ra heltzen da. Edukien multzo horretan, biztanleen % 26,3k esan du lan-baldintzek okerrera egin dutela 2009 eta 2013 bitartean. Proportzio hori batez beste % 30,9 da bulegoko kategoria baxuetan eta bestelako zereginetan.

Okertzerik handiena –eragindakoak % 50,7 eta % 55,9 dira– irakaskuntzako eta osasuneko goi-mailako tituludunei dagokie.


103. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lan-baldintzak okertzearen eragina oso antzekoa da 30 urtetik gorakoen taldeetan, bai gizonen artean bai emakumeen artean, eta % 29,3 eta % 31,5 bitartekoa da. % 18 da 30 urtetik beherako emakumeen artean eta gutxienez % 9,4 da adin horretako gizonen artean.

104. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Okertzearen faktore nagusiak lotuta daude ordainsariarekin, kontratu-baldintzekin eta lanpostuarekin batera doan presio psikologikoarekin

2009 eta 2013 bitartean detektatutako okertzea azaldu ahal duten faktoreen artean hiru garrantzitsuenak kontuan hartuta, soldatapekoen % 16,2k –127.129 pertsonak guztira– ordainsaria aipatu du. Kontratu-motarekin, ordutegiekin, lanaldiekin edo oporrekin zerikusia duten baldintzak 75.737 pertsonak aipatzen dituzte, guztien % 9,7k. Nabarmentzekoak dira, halaber, lanpostuari buruzko aipamenak eta lanpostuarekin batera doan presio psikologikoari buruzkoak; horien eraginpean biztanleriaren % 8,3 dago (65.247 pertsona).

Biztanleriaren % 5,1ek lana egiteko erritmoa aipatzen du, eta % 6,4k zereginen edukia eta baldintzak. Lan-baldintzak okertzeko gainerako faktoreak soldatapeko edo antzekoen % 3k baino gutxiagok aipatzen ditu.

105. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2009 eta 2013 bitartean ordainsariak murriztu izana biztanleriaren % 10ek baino gehiagok aipatzen du ia-ia talde handi guztietan, lan-edukiaren edo sexu eta adinaren arabera. Aztertutako talde handietan, 30 urtetik beherako gizonak bakarrik daude atalase hori baino beherago (% 4,2). Aldiz, irakaskuntzako edo osasuneko goi-mailako tituludunen % 30k baino gehiagok (% 38,5 eta % 32,3, hurrenez hurren) ordainsarien murrizketa aipatzen du. Proportzioa % 15etik gorakoa da bulegoko lanaren kategoria baxuetan eta bestelako zereginetan ere (% 18,5).

Kontratuekin, ordutegiekin, lanaldiekin edo oporrekin lotura duten baldintzak okertzea, soldatapekoen % ek baino gehiagok aipatzen du, 30 urtetik beherako gizonek izan ezik. Okertzea deigarria da irakaskuntzako edo osasuneko goi-mailako tituludunen artean; esparru horretan, erreferentziako biztanleriaren % 23k eta % 30ek aipatzen du okertze hori. Kopurua –% 9,8– % 10era hurbiltzen da bulegoko kategoria baxuetan eta bestelako zereginetan. Sexuaren eta adinaren arabera, lan-baldintzen dimentsio horren okertzeak 30 urtetik gorako emakumeei eragiten die batez ere –% 12–.

Biztanleriaren % 10ek arazoak dauzka hirugarren esparru batean ere, lanpostuari eta lanpostu horren presio psikologikoari dagokion esparruan, alegia. Kasu horretan, eragina % 9,2 eta % 11,9 bitartekoa da lan-eduki batzuetan eta besteetan, kategoria baxuetan izan ezik (bulegokoak alde batera utzita). Horietan eragina % 6 da. Sexuaren eta adinaren arabera, presiorik txikiena 30 urtetik gorako pertsonen jasaten dute (% 3,4), eta % 8,0 eta % 9,4 bitarteko aldakuntzak daude sexuaren eta adinaren arabera aztertutako gainerako taldeetan.

Biztanleriaren % 5 baino zertxobait gehiagok ere azaltzen du zereginen edukiarekin eta lana egiteko erritmoarekin lotutako baldintzek okerrera egin dutela, salbu eta beste kategoria baxuetan (bulegokoak alde batera utzita) eta 30 urtetik beherako gizon eta emakumeen artean. Kasu horretan, zereginen eduki eta baldintzei dagokionez okertzerik deigarriena osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean ikusi da. Profesional horien % 18,9k dio lan-baldintzak okertu direla 2009 eta 2013 bitartean.

Aipatu diren esparruetatik kanpo, irakaskuntzako eta osasuneko goi-mailako tituludunen % 4k gutxienez eta % 7,5ek gehienez baldintzek okerrera egin dutela esan du lanaren antolaketari, lan egiteko baldintza materialei eta prestakuntzarako eta barne-sustapenerako sarbideari buruz.

13. taula

Soldatapekoak eta antzekoak. Lan-baldintzak okertzeko faktoreak, 2009 eta 2013 bitartean hiru lehenengoen artean aipatutakoak, lan-edukiaren arabera. Euskal AE. 2013
(Talde bakoitzeko biztanleriaren %)

	Ira- kaskuntza (Goi-m. tit.)	Osasuna (Goi-m. tit.)	Beste batzuk Kat. Ertaina/ Altua	Bulegoa (Kat.Baxua)/ Bestelako zereginak	Beste batzuk Kat.baxua
Ordainsaria	38,5	32,3	14,4	18,5	10,9
Kontratu-baldintzak, ordutegia, lanaldiak, oporrak	23,0	30,0	7,0	9,8	7,5
Lanpostua/presio psikologikoa	10,0	11,9	9,2	9,6	6,0
Zereginen edukia eta baldintzak	8,0	18,9	6,2	8,1	4,3
Lana egiteko erritmoa	7,8	6,4	5,8	5,3	3,4
Lanaren antolamendua	4,0	6,5	2,9	3,1	1,6
Lanaren baldintza materialak	7,3	5,3	1,6	2,0	2,4
Nagusien/mendekoen arteko harremanak	2,1	1,7	2,6	1,6	1,8
Prestakuntzarako/barne-sustapenerako sarbidea	5,0	6,2	1,3	4,0	0,8
Lanpostuko arriskuak	,8	4,2	1,0	1,0	,9
Beste batzuk	5,4	3,4	1,5	1,4	1,7

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

14. taula

Soldatapekoak eta antzekoak. Lan-baldintzak okertzeko faktoreak, 2009 eta 2013 bitartean hiru lehenengoen artean aipatutakoak, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal AE. 2013
(Talde bakoitzeko biztanleriaren %)


	Gizonak < 30	Gizonak > 30	Emakumeak < 30	Emakumeak > 30
Ordainsaria	4,2	16,7	12,6	18,0
Kontratu-baldintzak, ordutegia, lanaldiak, oporrak	3,9	8,7	6,8	12,0
Lanpostua/presio psikologikoa	3,4	8,0	8,1	9,4
Zereginen edukia eta baldintzak	2,6	6,8	2,6	7,1
Lana egiteko erritmoa	0,6	5,3	3,1	5,8
Lanaren antolamendua	0,0	3,1	2,5	2,7
Lanaren baldintza materialak	2,2	2,8	0,0	2,7
Nagusien/mendekoen arteko harremanak	0,0	2,9	1,6	1,8
Prestakuntzarako/barne-sustapenerako sarbidea	0,3	2,3	1,1	1,9
Lanpostuko arriskuak	0,0	1,2	0,0	1,3
Beste batzuk	0,0	2,1	1,7	2,1

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Eraginpean dagoen biztanleriaren artean, nabaritu den okertzea larritzat edo oso larritzat jotzen da

2009-2013 epealdian lan-baldintzak nabarmen okertu zaizkien biztanleen artean, % 18,5ek soilik uste du oso larria dela nabaritutako okertzea. Hala ere, larritzat jotzen diren egoerak ere sartzen direnez, proportzioa % 69,2ra heltzen da.

106. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lan-baldintzak okertu direla dioten pertsonen kasuan, % 70ean edo hortik gora okertze hori larritzat edo oso larritzat hartzen da esparru batzuetan. Esparru horietan, okertzeari buruzko pertzepzio orokorrarekin lotura estuagoa duten faktoreak hartzen dira kontuan. Honakoak dira faktore horiek: ordainsaria (% 19,1, pertzepzio oso larriarekin eta % 71% pertzepzio larri edo oso larriarekin), kontratuen eta lanaldiaren baldintzak (% 22,6 eta % 76,3), lanpostuarekin lotutako presio psikologikoa (% 17,9 eta % 69,9) edo zereginen edukia eta baldintzak (% 17,4 eta % 72,6).

Okertzea oso barreiatuta dago denbora aldetik, baina eragina txikiagoa izan da 2013an

Okertzea aztertuta ikusi ahal da denboran oso barreiatuta egon dela 2012ra arte. Gehieneko kopurua azken urte honetakoa da -% 24,6-, 2009ko % 23,4 eta 2010eko eta 2011ko % 20 inguruko kopuruak baino gorago. 2013an hobekuntza argia egon da, okertze-kasuen % 12,3rekin.

107. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Ordainsariaren beherakadaren eragina lehenago azaldu dena baino handiagoa da

Ordainsaria murriztu zaiela ikusi duten biztanleen proportzioa, hala ere, handiagoa da arestian azaldu diren kopuruak baino. Alde horretan, gehienez soldatapeko edo antzekoen % 26,7k dio azken lau urteetan ordainsaria murriztu zaiola. Kopururik txikienak, eraginpean daudenen % 13,9 eta % 17,9 bitartean, ekoizpenaren eta merkataritza-jardueraren kategoria baxuei dagozkien (batez beste % 16,1 lan-edukien multzo horrentzat).

Tarteko posizio batean, murrizketa jasan duten pertsonen proportzioa % 21,6 eta % 25,2 bitartekoa da merkataritza-jarduerarekin, bulego-jarduerarekin eta ekoizpen-jarduerarekin lotutako kategoria ertain eta altuetan (% 23,4 lan-eduki horien multzoarentzat). Kopuruak % 27,6ra heltzen dira bulego-jarduerako kategoria baxuetan eta % 38,8 bestelako zereginetan; azken kasu horretan, proportzioa % 37,9 ingurukoa da zuzendaritza-esparruetan. Proportziorik handienak irakaskuntzako eta osasuneko goi-mailako titulazioenak dira (% 55 eta % 47,6, hurrenez hurren).


108. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren arabera, ordainsariaren murrizketaren proportziorik txikienak biztanleriari gazteenari dagozkie. Gizonen artean pertsonen % 10,4 dago eraginpean, eta emakumeen artean % 13,6. Proportzioa 30 eta 44 urte bitarteko pertsonen % 25-26 da eta 45 urteko eta gehiagoko pertsonen artean % 30etik gorakoa (gizonen artean % 33,1, eta emakumeen artean % 30,9).

109. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Ordainsariaren jaitsiera, batez beste, % 16,1 dela kalkulatu da eraginpean dagoen taldean, eta nabarmendu beharrekoa da eraginpeko emakumezko biztanleriaren aretan eragin erlatibo handiagoa duela

Azken lau urteetan ordainsariak behera egin duela ikusi den taldeen barruan, 2009 eta 2013 bitartean batez besteko jaitsiera % 16,1 izan da.

Jaitsierarik txikienak bulegoko kategoria baxuenak (% 10,3) eta hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria altu eta ertainenak (% 12,9) dira. Murrizketa % 15 ingurukoa da zuzendaritzan, irakaskuntzako goi-mailako titulazioetan eta industria-ekoizpenaren kategoria altu eta ertainetan. Jaitsiera % 16,5 eta % 18,2 bitarteko kopuruetara heltzen da kategoria baxuetan –alde batera utzita bulegoko lana–, merkataritzaren esparruko kategoria altu eta ertainetan eta bulegoen eta bestelako zereginen kategoria altu eta ertainetan. Jaitsierarik handiena, % 20,5, osasunaren sektoreko goi-mailako tituludunei dagokie.


110. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Eraginpean dagoen taldean, ikusten da ordainsariaren murrizketak eragin diferentziala duela emakumezko biztanlerian. Batez besteko jaitsiera % 13,2 eta % 13,9 bitartekoa da gizonezkoen talde batzuetan eta besteetan, baina 30 urtetik gorako emakumeen artean batez besteko murrizketa % 18,5 inguruko kopuruetara heltzen da, eta gehienekora, hau da, % 24,2ra, adin horretatik beherakoen artean.

111. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Soldatapekoen eta antzekoen % 17,3k dio azken lau urteetako urteko lanorduetan aldakuntza egon dela.

Azken lau urteetan, soldatapekoen eta antzekoen % 17,3k dio 2009 eta 2013 bitartean egindako lanorduetan aldaketak egon direla. Kasuen % 5,4n, horren ondorioz lanorduak gutxitu dira, eta % 9,9n ordu horiek gehitu dira. % 2,1ean tarteko egoerak agertzen dira, edo aldaketaren nondik norakoak sintetizatzeke konplexuagoak diren egoerak.

Lan-eduki batzuetan gehiagotan gertatzen da lanaldia murriztea lanaldia luzatzea baino. Hori ikusi ahal da merkataritza-jarduerarekin eta ekoizpenarekin zerikusia duten kategoria altu eta ertainetan eta hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria baxuetan. Lanaldia luzatu den kasuetan, igoera-prozesu horiek jasan dituzten biztanleen kopuruak % 8,3 eta % 10,7 bitartekoak dira zuzendaritzaren esparruan, irakaskuntzako goi-mailako titulazioetan, bulegoko lanean orokorrean eta merkataritza-esparruaren kategoria baxuetan. Lanaldiaren luzapena jasan duten pertsonen proportzioak gehieneko kopurua jotzen du, % 47,8, osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean.

112. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Orduen kopurua handitu den kasuetan, urtean batez beste 49,2 ordu gehitu dira. Puntu honetan eraginik handiena jasan duten bi esparruak –110 ordu inguru gehitu dira–, zuzendaritzaren esparruak eta bulegoen sektoreko kategoria baxuak izan dira.

Orduen kopurua murriztu den kasuetan, batez beste 42,5 ordu gutxitu dira. Industria-ekoizpenaren kategoria baxuetan batez beste 103,5 ordu gutxiago izan dira, eta bulegoko lanekin zerikusia duten kategoria baxuetan 123,7 ordu.

113. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

ERANSKINA: EGINDAKO LANAREN EDUKIA

Dimentsio horretan, funtsezko alderdia egiten den zeregina da, baina horrez gain kontuan hartzen da erakundean zein den norberaren posizio hierarkikoa eta zein sektoretan lan egiten den, industrian edo hirugarren sektorean. Aldagaien hautaketa honetan aintzat hartzen da lanbide-kategoriaren zein sektorearen arabera era batekoak edo bestekoak direla egindako jardueraren ezaugarriak, zereginen mota beraren barruan. Definitutako taldeak hauek dira:

Kodea	LANAREN DESKRIBAPENA ¹
L1	Zuzendaritza-zereginak (kategoria altua edo ertaina)
L2	Hezkuntzako/irakaskuntzako zereginak (unibertsitateko titulazioa)
L3	Osasuna eta gorputz ongizatea (unibertsitateko titulazioa)
L4	Bulegoko lana (kategoria altua edo ertaina) ²
L5	Pertsonetikiko harremana dakarten beste lan batzuk/merkataritza-lanak (kategoria altua edo ertaina) ³
L6	Industria-ekoizpeneko zereginak (kategoria altua edo ertaina) ⁴
L7	Zerbitzuetako/hirugarren sektoreko ekoizpen-zereginak (kategoria altua edo ertaina) ⁴
L8	Bulegoko lana (kategoria baxua) ²
L9	Pertsonetikiko harremana dakarren lana/merkataritza-lanak (kategoria baxua) ³
L10	Industria-ekoizpeneko zereginak (kategoria baxua) ⁴
L11	Zerbitzuetako/hirugarren sektoreko ekoizpen-zereginak (kategoria baxua) ⁴
L12	Aurrez zehaztu gabeko bestelako zereginak ⁵

- (1): Lanbide-kategoria hiru taldetan estratifikatu da: Altua (goi-mailako tituluduna, erdi-mailako tituluduna, administrazio-burua edo tailerreko burua), ertaina (ofizial administraria, 1. edo 2. mailako industria-ofiziala edo titulaziorik gabeko laguntzailea) eta baxua (administrari laguntzailea, 3. mailako industria-ofiziala edo espezialista, peoia, mendeko langilea).
- (2): Bulegoko lanaren barruan sartzen dira bulegoko eta administrazio zereginak (espezifikokoak edo dibertsifikatuak), bai eta azterketa eta programazio informatikoko zereginak edo azterlanekin zerikusia dutenak.
- (3): Pertsonetikiko harremanaren lanaren barruan honako zeregin hauek sartzen dira: Lana antolatu, zuzendu edo kontrolatzea; leihatilako, kutxako edo harrera-guneko lana; bezeroekin edo hornitzaileekin harremanetan jartzea eskatzen duten beste lan komertzial batzuk; osasuna eta gorputz ongizatea; irakaskuntza eta kultur dinamizazioa.
- (4): Ekoizpen-lanaren barruan (industrian eta zerbitzuetan) honako zeregin hauek sartzen dira: Ekipamenduen instalazio eta mantentze-lana; neurketa eta probak; ekipamenduen mantentze-

lana, zamalanak; automatikoak ez diren tresna eta makinekin ondasunak ekoiztea; makina eta instalazio automatizatuak kontrolatzea; enbalatzea eta ontziratzea; garraio-ekipamenduak gidatzea; baliabide naturalak ustiatzea; lokalak garbitu eta atontzea.

- (5): Bestelako zereginetan zaintza-jarduerak eta aurreko ataletan sartzen ez diren gainerako zereginak sartzen dira.

TXOSTENAREN AURKIBIDEA

SARRERA	3
EMAITZA NAGUSIAK	7
1. SOLDATAPEKOEN BILAKAERA	9
2009 eta 2013 bitartean ikusi da nabarmen behera egin duela soldatapekoen bolumenak	9
Hala ere, landunen kopurua 2004koa baino handiagoa da	9
Landunen kopuruak 2009-2013 epealdian izan duen beherakadak ez du eraginik lanaren eduki guztietan, ezta talde soziodemografiko guztietan ere	10
Okupazio mailaren beherakada batez ere industria-ekoizpenaren kategoria baxuetan eta bulegoko lanean gertatu da	10
Okupazioak txarrera egin du 45 urtetik beherako pertsonen artean, bereziki 30 urtetik beherako artean, eta gizonen artean	13
2. SOLDATAPEKOEN POSIZIOA EKOIZPEN-SISTEMAN ETA ENPRESAN	16
Goranzko joera Euskal AEko ekoizpen-sistemako kategorien egituran	16
Iraupen mugagabeko kontratazioak oraindik pisu nagusia dauka	19
Soldatapekoen posizioaren narriadura estruktural nagusiak zerikusia du ordainsarien beherakadarekin	24
Hala ere diferentzia nabarmenak dira lanaren edukiaren eta sexuaren eta adinaren arabera	26
Enpresako posizioari buruzko beste alderdi batzuk	33
Lana mantendu duten pertsonen artean, euskal ekoizpen-sistemak oraindik sustapenerako aukera gehiago eskaintzen ditu posizioak galtzeko arriskua baino	33
Ikastaroetan sartzeko aukerak kopuru handiak mantendu ditu	34
Soldata aldakorren sistemak gorantz jo du, baina gutxienean aukera da oraindik ere	34
Aldiz, behera egin du ordaindutako aparteko orduen eraginak, eta gora egin du ordaindu gabeko aparteko orduenak	35
Behera egin du enplegu-aniztasunaren eraginak. Berritua ere, zerikusia du iraupen mugagabeko kontratazioaren faltarekin	35
Gora egin du sindikatuetao afiliazioak	36
Gora egin du enpresan euskararen erabilerak, baina ohiko erabilera oraindik ere gutxienean da	37
3. LANAREN ANTOLAKETA	38
2009 eta 2013 bitartean gora egin du 30 ordu baino gutxiago irauten duen lanaren eta lanaldi partzialeko lanaren eraginak	38
30 ordu baino gutxiago irauten duten lanaldien gorakada	38

Lanaldi partzial soileko lanaren gorakada erlatiboa are handiagoa da	40
Lanaldi partzial edo murriztuko lan-formek gora egin duten talde nagusiak.....	41
2009 eta 2013 bitartean lanaldi partzialeko lanaren gorakadak izan dituen ondorioak.....	45
Lanaldi partzialeko lanaren gorakada enpresa-politika baten ondorioa da. Gehienetan, gauzatu nahi ez den politika baten ondorioa	45
Batez besteko lanaldia 2009 eta 2013 bitartean laburtu da, baina funtsean egoerak bere horretan iraun du 2004arekin alderatuta.....	48
Asteko lan- eta atsedeen-jarraibide atipikoek gora egin dute	50
Larunbatetan edo igandeetan egindako lanak gora egin du modu nabarmenean	50
Gora egin dute modu apalagoan lanaldi luzeak (10 ordu baino gehiago jarraian) eta gaueko lanaldiak, baina gorakada esanguratsua da. Gaueko lanaldiak industria-ekoizpenean soilik egin du gora.....	55
Txandakako lana egonkortu da, baina lan-esparru batzuetan modu nabarmenean egin du gora 58	
Lanaldi etengabearen gorakadak muga batzuk dauzka	60
Hala eta guztiz ere, lanaldi etenak lotura du bazkaltzeko atsedenaldiaren laburtzearekin, eta horrek zerikusia du lantokian bazkaltzeko ohitura gero eta handiagoarekin	62
Gora egin du opor-egun guztietarako sarbidea ez duten pertsonen proportzioak	64
Batez besteko oporretako lan-egunen kopuruak behera egin du	64
Goranzko joera dauka laneko autonomia-mailak.....	65
Gora egin du lanean helburu eta modalitate zorrotzak ezarrita ez dituzten pertsonen proportzioak	65
Gora egin du berriro ere ustekabeko egoerak zuzenean konpontzen dituzten pertsonen proportzioak	66
Gora egin du lan-ordutegi malgua edo aldakorra duten pertsonen proportzioak	67
Gora egin du lanean presentziaren kontrolik ez duten pertsonen proportzioak ere	67
2009arekin alderatuta, behera egin du kontrolekin, zaintzarekin, lankideekiko koordinazioarekin eta errespetatu beharreko arau edo epeekin zerikusia duen presioak.....	68
Gora egin du bazkalorduz bestelako etenaldiak dauzkaten pertsonen proportzioak	69
Gora egin du haien oporraldia aukeratzen duten pertsonen proportzioak	69
2013an areagotu egin dira lan-baliabideen egokitzapeneko arazo batzuk, bereziki behar adina kolaboratzailearik ez izatearekin eta lana egiteko denbora-epe eskasarekin zerikusia dutenak ...	70
Ikusitako arazoak gorabehera, hobera egin dute lan pertsonaleko produktibitate-adierazleek, 2009arekin alderatuta	71
Enpresan oraindik diskriminazio-arazoak ikusten dira eta egoera gatazkatsuen kopuruak gora egin du.....	72
2009arekin alderatuta, nabaritzen den diskriminazioak behera egin du, bana adierazleak 2004koetatik gorago daude argi eta garbi	72
Itxura pertsonalarengatik nabaritzen diren indarkeria, jazarpen eta diskriminazio arazoak multzoan hartuta ugaritu dira; hala ere, ez dira argi eta garbi areagotu arazo espezifikoak 2009 eta 2013 bitartean	75
Antolaketari buruzko beste alderdi batzuk.....	77

Presentzia apur bat galdu du udako ordutegi murriztuak.....	77
Luzatu egin da lanera joateko behar den denbora, eta ibilgailu partikularra erabiltzearen garrantzia mantentzen da.....	78
Ikusitako antolaketa arloko aldaketak gorabehera, itxuraz ez dira okertu lana eta gizarte- eta familia-bizitza uztartzeko aukerak	79
4. EKIPAMENDUEN ERABILERA, LANEKO GIROA ETA ARRISKUAK.....	82
Aurrerapauso nabarmena detektatu da bulegoko lanabes informatikoen erabileran	82
Gora egin du garraio-ibilgailuen eta ekipamendu eta ibilgailu automotorren erabilerak.....	83
Ibilgailuen erabileraren gorakada.....	83
Aldi berean gora egin du kalean egiten den lanak, ibilgailuen erabilerarekin lotuta	84
Orokorrean hobera egin dute lantokiko baldintza fisikoek.....	85
Laneko eragozpenen eragina orokorrean murriztu da	85
Lan-karga batzuen eraginak ere beherantz egiten du	87
Arrisku askoren eragina murriztu da	88
Gora egin du temperatura egokian beti lan egiten duten pertsonen kopuruak	89
Multzoan hartuta, 2009 eta 2013 bitartean behera egin du eragozpenen, kargen eta arriskuen eraginak	89
Dena dela, alderdi batzuek okerrera egin dute karga eta arrisku batzuen eraginari dagokionez .	91
Gora egin du karga batzuen eraginak, eta beste batzuei eragiten dienak 2013an ez du modu nabarmenean hobera egin, aurreko epealdiekin alderatuta	91
Arrisku batzuen eraginak gora egin du, edo altu samar mantendu da, konparatuta	92
Eragozpen, karga eta arriskuen baterako eraginaren murrizketak zerikusia du babes-ekipamenduen erabileraren gorakada orokorrarekin. Horren atzean, hala ere, okertu diren elementu batzuk daude	94
Gora egin du laneko arriskuei buruz informazio nahikorik ez dutela uste duten langileen proportzioak	98
2009 eta 2013 bitartean behera egin du laneko segurtasun eta osasunarekin zerikusia duten jardueretako partaidetzak	98
Behera egin du lantokian Laneko Segurtasun Batzordeen edo Prebentzio Delegatuen presentziak.....	99
Nolanahi ere, baje eraginaren beherakada da laneko giroarekin lotutako alderdietan 2009 eta 2013 bitartean egon den aldaketarik garrantzitsuena	100
Ekipamenduei, laneko giroari eta arriskuei buruzko beste alderdi batzuk	103
5. GOGO BETETZEA LANEAN.....	104
Gogobetetze ezak gora egin duen arren, lanarekiko gogobetetze orokorra kopuru handietan mantendu da 2013an	104
Joera orokorren atzean, dena dela, ikusten da okertze nabarmena gertatu dela lan-eduki batzuetan, eta sexuaren eta adinaren arabera taldeen arabera ere bai	105
Gogobetetze-ekak gora egiteko faktore nagusiak	106

Okertzea ia-ia orokorra da eta oso deigarria sustapenari dagokionez. 2013an, alderdi hori da gogobetetze-ezaren faktoreen artean gehien aipatzen dena	108
Ordainsariari, nagusiekiko harremanari, lan-erritmoari edo estresari eta presio psikologikoari buruzko alderdietan okertzea ia-ia orokorra da, baina kopuruei dagokienez ez da oso esanguratsua	108
Lan-baldintzen beste alderdi batzuetan okertzea mugatuagoa da, eta selektiboagoa ere bai	112
Lana aldatzeari buruzko planteamenduen kopuruak oraindik txikiak dira, bereziki aldaketarako kudeaketak azaltzen direneko planteamenduak.....	114
6. LAN-BALDINTZEN OKERTZEARI BURUZKO PERTZEPZIOA	116
Gaur egungo soldatapeko eta antzekoen % 28,1ek dio lan-baldintzek okerrera egin dutela 2009 eta 2013 bitartean	116
Okertzearen faktore nagusiak lotuta daude ordainsiarekin, kontratu-baldintzekin eta lanpostuarekin batera doan presio psikologikoarekin	117
Eraginpean dagoen biztanleriaren artean, nabaritu den okertzea larritzat edo oso larritzat jotzen da	120
Okertzea oso barreiatuta dago denbora aldetik, baina eragina txikiagoa izan da 2013an	120
Ordainsariaren beherakadaren eragina lehenago azaldu dena baino handiagoa da	121
Ordainsariaren jaitsiera, batez beste, % 16,1 dela kalkulatu da eraginpean dagoen taldean, eta nabarmendu beharrekoa da eraginpeko emakumezko biztanleriaren aretan eragin erlatibo handiagoa duela	123
Soldatapekoen eta antzekoen % 17,3k dio azken lau urteetako urteko lanorduetan aldakuntza egon dela.	124
ERANSKINA: EGINDAKO LANAREN EDUKIA	127